# Gramatika Emendakinak Zuberoako euskaraz (Edizio zuzendua)



**JUJE ETXEBARNE KARRIKABERRI**
**Laguntzaileak:**
**AGOSTI AGUER ESQUER**
**BATTITTA GUIRESSE TARTAXÛ**
**BEÑAT SARASOLA LARRETXE**

**AEK**
**Xiberoko Gaü Eskola Laminak**

Jagon Saila

EUSKALTZAINDIA

# Gramatika Emendakinak
# Zuberoako euskaraz
# (Edizio zuzendua)
# **Jagon 12**

**JUJE ETXEBARNE KARRIKABERRI**
**Laguntzaileak:**
**AGOSTI AGUER ESQUER**
**BATTITTA GUIRESSE TARTAXÛ**
**BEÑAT SARASOLA LARRETXE**

**AEK**
**Xiberoko Gaü Eskola Laminak**

Jagon Saila
EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO
2015

Argitalpen honen fitxa katalografikoa eskuragarri duzu Azkue Bibliotekako Katalogoan: www.euskaltzaindia.net/azkue
La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación esta disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.net/azkue
Les donnes bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l´Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.net/azkue
A catalog record for this publication is avalaible from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.net/azkue

Diseinua: IKEDER, S.L.
Maketazioa: Jüje Etxebarne - Beñat Sarasola
ISBN: 978-84-943211-5-3

# AITZINSOLASA

Orai düala urte zonbait, Junes Casenave'ren « XIBEROAN EÜSKARAZ » agerrazi ondotik, SÜ AZIAk beste gramatika bat agertü züan "EUSKARAZ NIK ERE BAI", ehün aletan elki günüan bena uste beno zaleago agortü da...

Galtoa hein bat azkar izanez, Mauleko Gaü eskola LAMINAKen izenean bigerren argitalpen bat adelatü dügü.

Aitzinetik dei bat egin günüan honen edo horren ohar eta aholküen biltzeko, ez dügü arrapostü handirik üken...

Lehen argitalpenean bezala, batuareki zübia egin beharrez, eginahala egin dügü Xiberoko mintzadarraren EUSKALTZAINDIAren erabakier doitzeko gramatikako terminologian etab... Eta gure ogüz ere xüxentze eta emendio andana bat ekarri dügü, arauz ontsa jinik dirateke...

Bena beti ere noiz-nahi lan honen baliazaleen aholkü edo abürüak ontsa hartürik dirateke.

Besterik gabe :

Riu ! Riau ! Jo aitzina eüskaraz !

Talde lan hontan edireiten dügü :

Agosti AGUER
Jüje ETXEBARNE
Battitta GUIRESSE
Beñat SARASOLA

EDIRENGIA

**I. ORTOGRAFIA ETA AHOSKATZEKO MANERAK** ........ 5

**1. Idazkera eta ahoskera** ........ 5
1.1 Alfabetoa ........ 5
1.2 Bustidürak : LL, IN edo Ñ ........ 6
1.3 "Z" ren gogortzeaz edo galtzeaz ........ 6
1.4 Diptongoak eta hiatuak ........ 6
1.5 Deklinabidean metatü bokalen ahoskatzeko manera ........ 7
1.6 Aditzan metatü bokalen ahoskatzeko manera ........ 7
1.7 “N” : B eta P-ren aitzinean ........ 7
**2. Azkardüra edo azentua** ........ 7
2.1 Arruntean ........ 7
2.2 Diptongoetarik ürrentü hitzetan ........ 7
**3 Majüskülen erabilteaz** ........ 8
**4. Hitz alkartzeak** ........ 8
4.1 Hitz alkartü arruntak ........ 8
4.2 Hitz alkartü berex idatziak ........ 9
4.3 Hitz alkartü lotürik idatziak ........ 9
4.4 Hitz alkartüak marrattoareki ........ 10
4.5 Hitz alkartüak marrattoareki edo berex ........ 10
4.6 Hitz alkartüak marrattoareki edo lotürik ........ 11
**5. Kontsonante bestelakatzeak** ........ 11
**6. Hitz jesanak eta mailegatüak** ........ 11
6.1 Mintzaje zaharretarikoak ........ 11
6.2" REL-" ala "ERL-", "ERREL-" *(Xib.)* ........ 12
6.3 "R-" "S-" + kontsonante bat ........ 12
6.4 Hitz barneko kontsonante metatüak ........ 12
6.5 Hitz ürrentzeetan ........ 13
**7. Lotürik ala berex** *(aurrizki etab...)* ........ 13
7.1 Aurrizki, atzizki "BA...", "BEIT..." ........ 13
7.2 "ETA", "EDO" ........ 13
7.3 "NONAHI / NON-NAHI" ........ 13
7.4 "-GERREN" ........ 14
**8. Llabürdüra eta siglak** ........ 14
8.1 Llabürdürak ........ 14
8.2 Siglak ........ 14
**9. «H» hizkiaz** ........ 14
9.1 "H" bai ........ 14
9.2 "H" ez ........ 15

**II. PERPAUSEN OSAGEIAK** *(elementüak)* ........ 16

**1. Izenak** ........ 16
1.1 Sailkapena *(classification)* ........ 16
1.2 Generoa *(genre)* ........ 16
**2. Izenordariak** *(pronoms)* ........ 17
**3. Determinazaleak** ........ 18
3.1 Mügazaleak *(déterminants)* ........ 18
3.2 Erakusleak *(démonstratifs)* ........ 19
3.3 Zonbatzaleak *(quantifiants)* ........ 20
3.4 Orokorrak ........ 24
**4. Adjektiboak** ........ 24
4.I Izenondoak *(adjektiboak)* ........ 24
4.2 Izenondo motaz *(kategoriaz)* ........ 25
4.3 Izenondo atributu ........ 25
4.4 Izenlagünak *(compléments de noms)* ........ *25*
4.5 Aposizioa ........ 28

4.6 Adjektibo berezi zonbait *(adjectifs particuliers)* ... 28
**5. Adberbioa** ... 29
5.1 Adizlagiina *(kasü marka baliatüz / adverbe tiré de la déclinaison)* ... 29
5.2 Aditzondoak *(aldagaitz / invariable)* ... 29
5.3 Erakusleetarik elki adberbioak *(adverbes tirés des démonstratifs)* ... 31
5.4 Galtazaleetarik elki adberbioa *(“ “ interrogatifs)* ... 32
5.5 Posposizioak ... 32
5.6 Iritzi adberbioak *(adverbes signifiant un point de vue, opinion)* ... 34
**6. Adierazkortasün-maila** *(intensitatea)* ... 35
6.1 Gradüazaleak : adberbio mailak ... 35
6.2 Arrapikazaleak ... 36
6.3 Bardinkatze edo konparazioak ... 37
6.4 Atzizki gradüazaleak ... 37
6.5 Bustidüra erabilienak ... 38

**III. DEKLINABIDEA** ... 39

**1. Deklinabidea orokorki** ... 39
**2. Deklinabide kasuak** ... 42
2.1 Gramatikalak ... 42
2.2 Ez gramatikalak ... 45
2.3 Adberbial orokorrak ... 47
2.4 Adberbial lekü-denborazkoak ... 50
**Taulak :** Deklinabidea ... 53
Erakusleen deklinabidea ... 54

**IV. ADITZA** ... 55

**1. Euskal aditza** ... 55
1.1 Aditz motak ... 55
1.2 Azpektua ... 56
1.3 Aldia, denbora ... 59
1.4 Modua ... 59
1.5 Pertsona ... 59
1.6 Zonbata, nonbrea ... 60
**2. Aditz lagüntzaleak** *(auxiliaires)* ... 61
2.1 Indikatiboa ... 62
2.2 Subjuntiboa ... 62
2.3 Ahalera, potentziala ... 63
2.4 Baldintzazkoa *(conditionnel)* ... 63
2.5 Agintera *(impératif)* ... 64
2.6 Aditz-loküzioak ... 65
2.7 Aditz berezi zonbait ... 67
2.8 Adizki jokatügabea ... 68
2.9 Partizipioa ... 68
2.10 Aditz izena *(nom verbal)* ... 69
2.11 Gerundioa ... 70
2.12 Aditz arazleak *(factitifs)* ... 71
2.13 Aditzarekilako partikülak ... 71
2.14 Aloküitboa ... 72

**V. PERPAUS BAKUNAK** *(propositions indépendantes)* ... 73

**1. Perpaus bakun motak** ... 73
1.1 Galtozko perpausak *(interrogatives)* ... 73
1.2 Aitormen perpausak *(déclaratives)* ... 73
1.3 Aginte perpausak *(impératives)* ... 73
1.4 Harridurazko perpausak *(exclamatives)* ... 73
**2. Perpausen egindura** *(structure de la proposition)* ... 75

**VI. PERPAUS ALKARTÜAK** .......... 76

**1. Juntatuak** *(coordonnées)* .......... 76
1.1 Alpetuak *(juxtaposition)* .......... 76
1.2 Emendiozko jüntagailüak *(énumération, addition)* .......... 77
1.3 Jüntagailü haütakariak *(disjonctif, alternatif)* .......... 78
1.4 Jüntagailü aurkariak *(opposition)* .......... 79
**2.Menperatüak** *(subordonnées)* .......... 79
2.1 Konpletiboak *(complétives)* .......... 79
2.2 Erlatiboak *(relatives)* .......... 81
2.3 Kausazkoak *(causales)* .......... 82
2.4 Kontzesiboak *(concessives)* .......... 83
2.5 Helbürüzkoak *(finales)* .......... 84
2.6 Ondoriozkoak *(consécutives)* .......... 84
2.7 Baldintzazkoak *(conditionnelles)* .......... 85
2.8 Konparatiboak *(comparatives)* .......... 86
2.9 Denborazkoak *(temporelles)* .......... 86
2.10 Zernolakoak, manerazkoak *(modales)* .......... 88

**LOKAILUAK** *(Testu mailako lokailuak)* .......... 90

**EMENDIO ZONBAIT** *(nahas-mahas)* .......... 91
1. Noiz, noiztik .......... 91
2. Tenorea.ordüa .......... 92
3. Data .......... 93
4. Zonbaki : kardinalak, ordinalak, zatizaleak .......... 93
5. Eragiketak *(opérations)* .......... 94
6. Aroa,denbora .......... 94
7. Lau Aizeak .......... 95
8. Sendimenak .......... 95
9. Ahalmenak, dohainak *(facultés)*, kolore, gozo, jentartean .......... 96
10. Beste nozio zonbait .......... 96

**GRAMATIKAKO HIZTEGIA** .......... 98

**ADITZ TAULAK** .......... 101
1. nor, nor-nori : izan .......... 102
2. nor-nork, nor-nori-nork : edün .......... 103
3. indikatibo baldintza - ahalezkoa : izan .......... 104
4. indikatibo baldintza - ahalezkoa : üken .......... 105
5. subjuntiboa : edin, ezan .......... 107
6. agintera *(impératif)* : edin, ezan .......... 108
7. opazkoa : oxala ! *(souhait)* : edin, ezan .......... 109
8. opazkoaz adibideak .......... 110

# I. ORTOGRAFIA ETA AHOSKATZEKO MANERAK

## 1. IDAZKERA ETA AHOSKERA

### 1- 1 - Alfabetoa :

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | a(1) | H | hatxe | Ñ | eñe | U | u *(fr. "ou" bezala)* |
| B | be | I | i | 0 | o | Ü | ü *(ezpainak aitzina)* |
| (C) | ze | J | ji | P | pe | (V) | ube |
| D | de | K | ka | (Q) | ku | (W) | ube bikun |
| E | e | L | ele | R | erre | X | ixa (*fr. "ch" bezala)* |
| F | efe | M | eme | S(2) | ese | Y | i grekoa |
| G | ge*(gogor)* | N | ene | T | te | Z | zeta |

(1) Südürkari *(nasalisé)* izan daite. Adb : Ahate
(2) Eztitüa, mihia ez tiran aho sabaian. Adb : sa**s**ua, gi**s**a, deu**s** ere

Oharra : Kakoen arteko C, Q, W eta Y kanpotiar hitz berezien izkiribatzeko erabilirik dira :

Adb. : *Quebec, New-York, Valencia ...*

- Alfabetoan sartzen dira ere bi hizki edo letratako fonemak :

| | | | |
|---|---|---|---|
| DD (*busti)* | : | Maddi, onddoa | *(üsü txipigarri balioa dü)* |
| LL *(busti)* | : | Pello, arroskilla | *(üsü txipigarri balioa dü)* |
| TT *(busti)* | : | Pettiri, pottoka | *(üsü txipigarri balioa dü)* |
| TS | : | ütsü, aments | *(mihi pünta goiti ahosabai erditan hatsa igor)* |
| TX | : | etxe, txakür | *(mihi pünta aitzina ahosabai aitzinean hatsa igor)* |
| TZ | : | hitz, tzar | *(mihi pünta aitzina hortz erroetan hatsa igor)* |




- **“G” beti gogor ahoskatürik da**
  Adb. : *Legea, aragia, pedagogia*
  (nahiz "pedagojia“ ahoska daitean edo daitekean ere)

- **“H” kontsonanteen ondotik ez da izkiribatürik :**
  Adb. : *Ik(h)asi, at(h)e, ap(h)ez, el(h)e*

- **“J” Xiberoan, frantsesez bezala ahoskatürik da, eta ez “Y” beste** eüskalkietan bezala :
  Adb. : *Eijer, jan*

**- "R" bakuna bi bokalen artean üsüan ez da ahoskatürik :**
Adb. : *Orai, heltürik, eri*

**- "R"tarik ürrentzen diren hitzetan R'a bikuntzen da deklinabideko**
atzizkiak eratxekitzen zaitzolarik :
Adb. : *Haur = haurra, txakür = txakürrari*

Salbü : *hur-a, zur-a eta hitz jesan zonbaitetan : paper-a, tiradera, txükader-a, …*

**- "R"tarik hasten hitz arrunt güti da :**
Adb. : *Errepüblika, errezebitü, arraza, arriskü ...*

Bena hitz jesan berrietan edireiten da :
Adb. : *Radar, bena ere errügbi...*

**1-** 2 **Bustidürak : LL edo IL, IN edo Ñ :**

**-** "LL"ekin egiten da bustidüra bokal bakunaren ondotik :
Adb. : *Botilla, arroskilla*

**-** "L" bakunarekin egiten da bustidüra "I" rekilako diptongoen ondotik *(AI, EI, OI, ÜI, UI) :*
Adb. : ***Oi**lo, hozk**ai**lü, b**ei**la, bi**ui**l, s**ai**la, mürk**üi**la*

**-** "Ñ"rekin bustidüra egiten da bokal bakunaren ondotik :
Adb. : *Mañaña, andereño, begiñiñi*

**-**"N" aski da AI, EI, OI, ÜI, UI diptongoen ondotik :
Adb. : *Mah**ai**na, g**ai**n, oh**oi**n*

**1-** 3 **"Z"ren gogortzeaz edo galtzeaz üngürümen zonbaitetan :**

| | | | *idatzi* | *ahoska* |
|---|---|---|---|---|
| Z + N | = | N | ez niz | eniz |
| Z + L | = | L | ez lüke | elüke |
| Z + H | = | H | ez hiz | ehiz |
| Z + Z | = | TZ | ez zira | etzira |
| Z + D | = | ZT | ez da | ezta |
| Z + G | = | ZK | ez gira | ezkira |
| Z + B | = | ZP | ez bada | ezpada |

**1-** 4 **Diptongoak eta hiatüak :**

- AI, EI, OI, ÜI, UI, AU, AÜ, EÜ, *(hizkin edo silaba bakoitx bezala ahoskatürik) :*
Adb. : *Aita, goiz, esküin, erlui, gaur, gaü, baleü*

-EA (ia), IA, IE, IO, OA (ua), UA, ÜA (ia), ÜE (ie), UE. *(Bi hizkin edo bi silaba bezala ahoskatürik da)*
Adb. : *L**i**-**a**, Donost**i**-**a**, b**i**-**ek**, ol**i**-**o**-**a**, bal**u**-**a**,*
*bort**ü**-**a**, Ar**ü**-**e***

**1-** 5 **Deklinabidean metatü bokalen ahoskatzeko manera zonbait :**

| | | *idatzi* | *ahoska* |
|---|---|---|---|
| e + a | = | gazt**ea** | gazt**ia** |
| o + a | = | xahak**oa** | xahak**ua** |
| ü + a | = | bort**üa** | bort**ia** |
| a + ü | = | g**aü** | g**ai** |

**1-** 6 **Aditzan metatü bokalen ahoskatzeko manera zonbait :**
*( Ikus aditz taulak )*

| | | *idatzi* | *ahoska* |
|---|---|---|---|
| a + a | = | dez**aa**n | dez**aia**n / dez**á**n *hik* |
| a + e | = | zitz**ae**la | zitz**é**la / zitz**a(*i*)é**la*(2)* |
| a + ü | = | h**aü**t | h**ai**t |
| e + a | = | dit**ea**n | dit**ia**n |
| e + e | = | lük**ee** | lük**ie** |
| e + e + e | = | leizk**eee** | leizk**eié** |
| e + o | = | leik**eo** | leik**o** / leik**io** |
| o + a | = | ditz**oat***(1)* | ditz**oiat** *(alok.)* |
| o + e | = | lir**oe** | lir**oie** |
| ü + a | = | z**üa**n | z**ia**n |
| ü + e | = | z**üe**n | z**ie**n |
| o+a+e | = | ditz**oae***(1)* | ditz**oie** *(alok. )* |

*(1) Haiek hari ditzo-a/ña/zü-e* *(2) "i" epentetikoa*

**1-** 7 **"N" : B eta P- ren aitzinean ez da "M" bilakatzen :**

Adb. : *De**n**bora , ka**n**biatü , Ka**n**bo*

**2. EÜSKAL AZENTÜ EDO AZKARDÜRAZ OHAR ZONBAIT :**

**2-** 1 **Azkardüra hitzaren azkenaren aitzineko silaban üsüenik edireiten da :**
Adb. : *Z**á**nko, begit**á**rte, g**á**zte, gazt**é**a*

**-** Mügagabean "A" tarik ürrentzen diren hitzekin bi A behar beilizate mügatüaren artikülüarekin, azken silabak hartzen dü azkardüra :
Adb. : ***Á**ma (mügagabean), a**má** (mügatüan)*

**-** Hala-hala bi E (errokoa eta plural markarena) agitzen direlarik, E horrek hartzen dü azkardüra :
Adb. : *Em**á**ztek (akt. mügg), emazte**é**k (akt. plur.)*

**2-** 2 **Diptongo batetarik ürrentzen diren hitzetan azkardüra diptongo horrek hartzen dü :**
Adb. : *Emazteg**é**i, zel**á**i, hamal**á**u, bospas**é**i*

## 3. MAJÜSKÜLEN ERABILTEAZ *(hüllan beste mintzajeetan bezala)*

**Pertsona izenak :**
Adb. : *Petiri, Jakobe, Maia...*

**Mitologiako izenak :**
Adb. : *Basajaun, Mari, Tartalo...*

**Izarbel (planeta), izar izenak :**
Adb. : *Lür, Artizar, Argizagi, Eki*

**Geografi izenak :**
Adb. : *Everest bortüa, Hudson badia, Itsaso Hila ...*

**Besta eta egün handien izenak :**
Adb. : *Maiatzaren Lehena, Egüberri...*

**Zientzia eta ikasgeien izenak :**
Adb. : *Medikuntza, Literatüra...*

**Literatüra eta artelanak :**
Adb. : *Etxahunen Ofizialeak , Atxularren Gero*

**Sarien izenak :**
Adb. : *Nobel saria, Ürrezko Cesar...*

**Herrialdeen izenak :**
Adb. : *Eüskal Herria, Bretainia, Italia...*

**Antolamentü** *(erakunde)* **institüzione izenak :**
Adb. : *Gramatika / Literatüra Batzordea, Senatua ...*

**Egoitza ofizialak :**
Adb. : *Gernikako Juntetxea, Villa Bakea...*

## 4. HITZ ALKARTZEAK :

### 4- 1 Hitz alkartü arruntak :

Oro etxekara direnetan : *(aldatze fonetikoak)*

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ardi | = | ar**t** | : | ***art****zain,* ***art****ola,* ***art****ile,* ***art****aixtür...* |
| argi | = | ar**t** | : | ***Art****izar,* ***art****aste (argi haste) ...* |
| zanko | = | zank**a** | : | ***zanka****pean...* |
| asto | = | ast**a** | : | ***asta****ma,* ***asta****ña,* ***asta****pitotx ...* |
| begi | = | be**t** | : | ***bet****ezpal,* ***bet****axal,* ***bet****ohil ...* |
| beso | = | bes**a** | : | ***besa****pe,* ***besa****gain,* ***besa****ilkatü ...* |
| etxe | = | etx**a** | : | ***etxa****no,* ***etxa****pe,* ***etxa****di ...* |
| idi | = | **it** | : | ***it****zain,* ***it****aldi ...* |
| ohe | = | oh**a** | : | ***oha****pea,* ***oha****tü ... eta abar* |

## 4- 2 Hitz alkartü berex idatziak :

- Aposizionean :
  Adb. : *Dandürain jauregia, Maule Baita zinegela*

- Posposizioneak :
  Adb. : *mahain gainean, gerla aitzinean.*

- Halere badira hitzak etxekara lexikalisatürik :
  Adb. : *legegizon, prentsaitzineko, mahainüngürü …*

- ''Egin" , "eman" , ''hartü''-ekilako aditz errandürak :
  Adb. : *hitz egin, lo egin, kasü eman, parte hartü ...*

- Bena lexikalisatürik dira ere :
  Adb. : *sogin, hitzaman, hitzartü, hütsegite, lanüzte, parteharzale*

- Hitz bikunetan lehena deklinatürik delarik :
  Adb. : *etxez etxe, bürüz bürü, bürütik bürü ...*

- ''Berri", "zahar"-ekilako errandüretan :
  Adb. : *jin berri, izan berri, izan zahar, jan berri, jan zahar ...*

- Salbü :
  Adb. : Bestaberri, ezkonberri

- Bi hitzetarik lehena osagarri delarik :
  Adb. : *eüskal gramatika, itsas karreiüa, giza eskübideak ...*

- Bena ere :
  Adb. : *itsasuntzi, itsasadar, itsasgizon*

## 4- 3 Hitz alkartü lotürik idatziak :

- Alkartü eihartü zonbait :

| | | | |
|---|---|---|---|
| amazilo | bizkarrezür | ezpatadantza | lanegün |
| argindar | bolalüma | gatzuntzi | lansari |
| arrainuntzi | bürdünola | gütünaxal | lürmütür |
| astebürü | bürezür | hautsuntzi | lürbeso |
| azalili | dirülagüntza | hileri | mainügela |
| banketxe | eskübalu | itsasbazter | sagarrardu |
| bidekürütxüne | esküizkiribü | jeiegün | *etab...* |

- Atzizki *(azkenki)* erabilienak :

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| -GIN | : | zurgin, har**gin** | -BÜRÜ | : | urte**bürü** |
| -GILE | : | langile, oski**gile** | -GIZON : | : | lege**gizon**, plaza**gizon** |
| -ZAIN | : | artzain, gatü**zain** | -(G)ÜNE | : | hütsüne, argi**üne** *(güne)* |
| -DÜN | : | bizardün, sos**dün** | -(K)IDE | : | adixkide, aurr**ide** |
| -GABE | : | zentzü**gabe** | -(K)ÜME | : | astoküme, txakürr**üme** |
| -ALDI | : | kantaldi,ebil**aldi** (1) | -ORDE | : | züzendari**orde** |
| -GEI | : | emaztegei, haüta**gei** | -TSÜ | : | sütsü |
| -TEGI | : | auzitegi | -XKO (T) | : | bordaxko(t) |

(1) ebilaldi edo ibilaldi

**-** Aurrizki *(aitzinizki)* erabilienak :

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ARRA- | : | **arra**jin, **arr**egin | BER- | : | **ber**rehün, **ber**piztü |
| DES- | : | **des**egin, **des**güne | AITZIN- | : | **aitzin**solaz *(aurre)* |
| EZIN- | : | **ezin**asea, **ezin**egona | GAIN- | : | **gain**ezarri, **gain**egitüra |

**-** Aditzoina + izena :
Adb. : *jarlekü, helmüga, sorlekü, jokamolde*

**-** Aditzoina + izenondoa :
Adb. : *moldagaitz, baratxügaitz, eginehi*

**-** Izena + aditza :
Adb. : *indargabetü, büragertü*

**-** Zonbatzalea + izena :
Adb. : *bihortzeko, laubürü, herensüge*

**4-** 4 **Hitz alkartüak marrattoareki :**

**-** Arrapikatü hitzak :
Adb. : *emeki-emeki, zale-zalea, ikusi-mikusi, merke-merkea, gorri-gorria*

**-** Bi hitzen artean "eta" jüntagailüa isiltürik delarik :
Adb. : *seme-alabak, han-hor, harat-honat, galto-arrapostüak*

**-** Bi hitzen artean "edo" jüntagailüa isiltürik delarik :
Adb. : *hamar-hameka, bost-sei*

**4-** 5 **Hitz alkartüak marrattoareki edo berex :**

**-** Izena + izena *(izen alkartü berriak üsüenik) :*
Adb : *sos-ütürri* *edo* *sos ütürri*
*lan-hitzarmen* *edo* *lan hitzarmen*

**-** Izena *(obj. xüx.)* + aditz-izenkia *(egile) :*
Adb : *odol-emaile* *edo* *odol emaile*
*sonü-joile* *edo* *sonü joile*

**-** Izena *(obj. xüx.)* + aditz-izenkia *(egintza) :*
Adb : *artzar-jate* *edo* *artzar jate*
*lan-eskentza* *edo* *lan eskentza*

**-** Izena *(obj. xüx.)* +aditz-izenkia *(zertan ari) :*
Adb : *borta-joka* *edo* *borta joka*

**-** Salbü nahaste edo gaizki entelegatürik daitekeanean :
Adb : *haur ehailea* *(ehaile den haurra)*
*haur-ehailea* *(haurrak ehaiten dütüana)* *(infanticide)*

**4-** 6 **Hitz alkartüak marrattoareki edo lotürik :**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Adb : | *südür-lüze* | edo | *südürlüze* |
| | *beharri-lüze* | edo | *beharrilüze edo beharlüze* |
| | *odol-bero* | edo | *odolbero* |
| | *eskü-zabal* | edo | *eskÜzabal* |

## 5. KONTSONANTE BESTELAKATZE EDO KANBIOAK :

*(xib.)*

| | | |
|---|---|---|
| "B / P" : | barkatu | ***p**arkatü* |
| | biper | ***p**iper* |
| | botere | ***p**oterea* |
| "F / P" : | frogatu | ***p**robatü ( borogatü)* |
| | Naparroa | *Na**f**arroa* |
| "G / K" : | gorputz | ***k**orpitz* |
| | golko | ***k**olko* |
| | golpe | ***k**olpü (kolpe)* |

"TS / TZ / TX" : Hitz hatsarrean ez sekülan "TS", bena bai "TZ" eta "TX" :

Adb. : *tzakür* *: tzakür handi*

*txakür* *: txakür ttipi : eijer edo gaixto*

## 6. HITZ JESANAK EDO MAILEGÜAK NOLA IDATZI :

**6**- 1 **Mintzaje zaharrer jesanak**

**-** "**P- / T- / K-**" **lehen** -> "**B-/ D-/ G-**" hitz hatsarrean bilakatzen ziren **:**
Adb : ***b**ake, **d**enbora, **g**aztelü ...*

Hitz berrieki ez da kanbiorik : politika, telebista, kaseta

**-** "**X**" kontsonante baten aitzinean "**S**" idatzirik dateke :
Adb : *"texte", "exprès" -> te**s**tu, e**s**presüki*

**-** "**X**" hitz hatsarrean edo bi bokalen artean edo kontsonante baten ondotik :
Adb : ***x**enofobia, Feli**x**, ta**x**i, mar**x**ismo, o**x**igeno ...*

**-** "**G**" beti **gogor** da **:**
Adb : *Gerla, gizona, Ginea ...*

**-** Sonü gogorreko hitz jesan zaharrak "J"eki idatzi ohi dira, ütürriko hitza "G" izanagatik

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| gens | -> | ***j**ente* | general | -> | ***j**eneral* |
| gentil | -> | ***j**entil* | gestion | -> | ***j**estione* |
| gelatine | -> | ***j**elatina* | vierge | -> | *bir**j**ina* |

**-** Hitz jakitus edo kültoetan " **G** "reki idaztea hobetsirik da :
Adb : *pedago**g**ia, **g**eometria …*

**-** "**S**" -> "**Z**" bilakatzen edo "**S**" baratzen da :
Adb *: **z**akü, **z**opa, me**z**ü ...*
Bena ere : ***S**oziali**s**mo, **s**ü**s**tengü...*

**-** "**J**" bi bokalen artean -> "**I**" idatziko da **:**
Adb : *pro**i**ektu (egitasmü)*

**-** "**Y**" hitz hatsarrean -> "**J**" idatzi daite :
Adb : ***j**oga**, j**ogurt ... (nahiz hiztegi hanitxetan aurki daiten : yoga, yogurt)*

**-** Halere hitz jesan berrietan " Y " hori begiratzen da :
Adb *: **y**ankee, **y**en, **y**o-**y**o ...*

**-**"**-SC-**"(lat.) / "**-SK-**"(grek.) + "**i**" edo "**e**" bokalak "**-SZ-**" idatzi daite, eta hitz hatsarrean delarik "**e**-" lehen hartzen dü :
Adb : ***esz**eptiko, e**sz**ena*

**-** Bena hitz zaharretan halere :
*Adb : di**z**ipülü, di**z**iplina*

**-** Eta hitz berriagoetan :
Adb : ***z**ientzia**, z**iatika*

**-**"**-SCH-**"(lat.) **/** "**-SKH-**"(grek.) **+** "**i**" edo "**e**" bokalak "**-SK-**" idatzi daite :
Adb : ***esk**ema, **esk**izofrenia*

**-** Halere hitz zaharretan :
Adb : ***z**izma / **x**izma*

**6-** 2 "**REL-**"etarik hasi hitz jesaneki -> "**ERL-**", **ERREL-** *(Xib.)* ezarten da :

Adb : ***erl**atibo, **erl**ijione, **errel**ijione (Xib.)*

**6-** 3 "**R-**" **,** eta "**S-**" **+** kontsonante bat, hitz hatsarrean direlarik "**A**"**,** "**E**" edo "**I**" aitzinean hartzen düe **:**
Adb : ***ar**raza, **ar**ratu, **ir**rati, **ez**pata, **ez**piritü, **er**rege, **er**ramü ...*

Bena :
- ez hitz jesan berrietan :
Adb : *radar, rock, standard, stop ...*

- ez izen propioetan :
Adb : *Roquefort, Stalin, Rembrandt, Straus, ...*

- ez sigletan :
Adb : *RENFE, SPA ...*

**6-** 4 **Hitzaren erdian kontsonante atetüak begiratzen dira :**
Adb : *te**kn**ika, a**dm**inistrazionea, o**bj**e**kt**ua ...*

R / N / L + S / Z *(hüxtükariak)* TS / TZ bilakatzen dira :
Adb : *pe**rts**ona, unibe**rts**itate, ko**nts**olatü, ko**ltz**a,*
*ko**ntz**ie**ntz**ia, fa**lts**ü ...*

**6-** 5 **Hitz ürrentzeetan :**

| *Erdaraz* | *Batuan* | *Xibereraz* | | *Adb.* |
|---|---|---|---|---|
| -CION / -TION : | -ZIO (-ZINO) | -ZIONE | : | *nazione* |
| -SION : | -SIO (-SINO) | -SIONE | : | *ilüsione* |
| -ON : | -OI | -U | : | *kamiu, butu* |
| -ADO / -AT : | -ATU | -ATÜ | : | *estatü* |
| -AJE / -AGE : | -AIA | -AJE | : | *bidaje* |

**7. LOTÜRIK ALA BEREX :**

**7-** 1 **Aurrizki eta atzizki :**

**-** "**BA-**" baldintzazko ala baiezko lotürik izkiribatzen da :
Adb : ***Ba****litz,* ***ba****dü*

Salbü : ***Ba*** *ümen* ***dü*** *sos hanitx (dioe)*

**-** "**BEIT-**" **: beti lotürik :**
Adb : ***beit****a,* ***beit****ütü*

**-** "**-ARAZI** ***(-ERAZI)***" **: beti lotürik :**
Adb : *jin****arazi****, egin****arazi***

**-** "**-Z GEROZ**" **: berex izkiribatzen da :**
Adb : *igantea****z geroz****, ikusi****z geroz***

**-**"**GABE**" **: - lotürik hitz alkartüetan :**
Adb : *lotsa****gabe****, zentzü****gabe***

- berex partitiboareki :
Adb : *lotsa****rik gabe****, txapel****ik gabe***

**7-** 2 "**ETA, EDO**" **jüntagailü direlarik, berex izkiribatzen dira :**
Adb : *Pello* ***eta*** *Maia jin dira.*
*Lan hori hik* ***edo*** *nik egiteko dük*

ETA, EDOren ondokoa isiltürik delarik, hobe da marrattoaz jüntatzea :
Adb : *Aberats zela-****eta*** *nornahik sos ebasten zeion*
*Gaur etxen-****edo*** *aihaltüko gütük*

**7-** 3 "**NONAHI / NON-NAHI**" **Galto egilea** "**N, T edo K**"**-z ürrentzen delarik azken kontsonantea galtzen dü, eta idatzi leite :**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Nonahi | zonbanahi | nontinahi |
| *edo* | *Non-nahi* | *zonbat-nahi* | *nontik-nahi* |

Bena xüxenkako galtoan bi hitzak berex izkiribatürik dira :
Adb : ***Non nah****i zira jarri ?*
***Zonbat nahi*** *düzü ? ...*

**7-** 4 "**- GERREN** *(-GARREN)*" **beti lotürik izkiribatzen da :**

Adb : *bigerren, hirugerren (* **2., 3.** *)*

*[bosgerren (***5.***)* : T galtzen dü. ***"V."*** idatz leite*]*

Bena "ZONBAT" galtoak "T" hori ez dü galtzen :

Adb : *zonba***t***gerren ?*

## 8. LLABÜRDÜRA ETA SIGLA ZONBAIT :

### 8- 1 Llabürdürak

Nazioarteko unitateetan ez da takarik edo püntürik ezarten :

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| m | : metra | g | : grama | seg | : segunda |
| Km | : kilometra | Kg | : kilograma | min | : minüta |
| $m^2$ | : metra karratu | l | : litra | h | : or (ordü) |
| cm | : zentimetra | cl | : zentilitra | | |
| mm | : milimetra | ml | : mililitra | | |

Beste llabürdüra erabilienak :

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| adb. | : adibidez | e.a. | : eta abar | zk. | : zonbakia |
| or. | : orrialde | orr. | : orrialdeak | tel./ tf. | : telefona |
| k. | : karrika / kale | pl. | : plaza | etorb. | : etorbide |
| prob. | : probintzia | K.a. | : Kristo aitzin | K.o. | : Kristo ondotik |

### 8- 2 Siglak taka edo püntürik gabe idazten dira : "LAB, CGT, ELB ..."

Salbü testoa oro hizki larriz idatzirik delarik :

Adb : *E.L.B. ETA GOBERNÜAREN ARTEKO ...*

Siglak mügagabean deklinatzen dira :

Adb : *ONUren, AEKren, Aek-ren*

Sigla kasü-markako ber letrareki ürrentzen bada, marrattoa ezarten da :

Adb : *AEK-ko, RPR-ren*

## 9. "H" HIZKIA NOIZ IDATZI :

### 9- 1 "H" idazten da :

**-** Bi bokalen artean :

Adb : *ma***h***aina, lei***h***oa, me***h***e*

**-** Erakusleetan :

Adb : *hau, hori, hura*

**-** "Hi", 2. pertsonako aditz itxüretan :

Adb : (***h***)*aügü, hiz*

**-** Zonbait hitz berezitan kontsonante baten ondotik izanik ere :

Adb : *Ain***h***oa, Ain***h***arbe*

**-** Hitz jesan berrietan :

Adb : *in***h***alatu, an***h***idrido, in***h***ibizione*

**9-** 2 **“H” ez da idazten :**

**-** Kontsonante baten ondotik :
Adb : ***sort****(h)****ü****,* ***k****(h)****antorea****,* ***Lak****(h)****arri***

**-** Salbü nahazpide izan baledi :
Adb : *erhi (eri)*

**-** "H" üsü galtzen da ere hitz alkartüetan :
Adb : *Herri zain ->* ***ertzain****, harri beltz ->* ***arbel***

**-** Üsüenik bi hitzen jüntako "H" galtzen da :

| | |
|---|---|
| Adb : *Hon hartü* | -> ***honartü*** |
| *Hitz hartü* | -> ***hitzartü*** |
| *Hil hobi* | -> ***hilobi*** |

.

**-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-**

# II. PERPAUSEN OSAGEIAK *(ELEMENTÜAK)*

## 1. IZENAK :

### **1**- 1 **Sailkapena :**

**-** Arruntak -> bizidünak :
Adb. : *gizon, emazte, aita ...*

**-** Arruntak -> bizigabeak :
Adb : *etxe, mahain ...*

**-** Bereziak *(propioak) :*
Adb : *Maule,Pello, Europa ...*

**-** Izen arruntek determinazalea hartzen düe *(izaki saldoa) :*
Adb : *etxe**a**, gizon **hau**, mahain **bat***

**-** Bena norberarenak direlarik, mügagabean erabilirik dira :
Adb : *ama, aita, errege, andereño, etxe...*

**-** Izen bereziek ez düe determinazalerik *(izaki bakotxa)* eta mügagabean deklinatzen dira :
Adb : *Maulerat joaiten niz (ez Maulealat)*

### **1**- 2 **Generoa** *(kentea) :*

**-** Eüskarak ez dü genero edo kente gramatikalik, sexü ezbardinentako hitz ezbardinak erabilten dira, ezbardingoa lexikala da :
Adb : *Neskatila -> potiko, anai -> arreba, seme -> alaba*

**-** Halere mintzadar zonbaitetan eta üsü zubereraz genero gramatikalak agertzen dira :
Adb : *laborari**sa**, manex**ina**, küñat**a**, alargün**tsa**...*

**-** Generoa kabaleentako lexikala da ere :

Zonbait aldiz bi sexüentako arraren izena erabilirik da :
Adb : *Zaldiak, txakürrak ...*

Zonbait aldiz bi sexüentako amaren izena erabilirik da :
Adb : *Behiak, ahüntzak, oiloa ...*

Berezteko AR / AMA, KOTXO / ÜRRÜXA ... erabilten dira :
Adb : *Gat**ar*** -> *Gatü **ama**,*
*Txakür **kotxo*** -> *Txakür **ürrüxa** edo **oilaka***

## 2. IZENORDARIAK :

Pertsona izenordariak :

**-** Arruntak :

| | *Nor* | *Nork* | *Nori* | *Noren* |
|---|---|---|---|---|
| 1.p.s. | ni | nik | eni | ene |
| 2.p.s. | hi | hik | hiri | hire |
| 1.p.pl. | gü | gük | guri | gure |
| 2.p.s. | zü | zük | zuri | zure |
| 2.p.pl. | züek | züek | züer | züen |

- 3. pertsonentako ez da pertsona izenordaririk, erakusleak erabilten dira :
Adb. : *Hau, Hori, Hura, Hoik, Horik, Hurak*

**-** Pertsona izenordari indartüak *(intentsibo erabilienak) :*

| | *Nor* | *Nork* | *Nori* | *Noren* |
|---|---|---|---|---|
| 1.p.s. | nihaur | nihaurk | nihauri | nihauren |
| 2.p.s. | hihaur | hihaurk | hihauri | hihauren |
| 1.p.pl. | gühaur | gühaurk | gühauri | gühauren |
| 2.p.s. | zühaur | zühaurk | zühauri | zühauren |
| 2.p.pl. | zühauek | zühaurek | zühauer | zühauen |
| 3.p.s. | bera | berak | berari | beraren |
| 3.p.pl. | berak | berek | berer | beren |
| 3.p.pl. | berak | beraiek | beraier | beraien |

**-** "HAREN / BERE / BERAREN" :

| | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| Arrunta | haren | haien |
| Indartüa | beraren | beren *("beraien" galdürik)* |
| Bühürkaria *(réfléchi)* | bere | beren |

Adb. : *Maiak **haren** zaküa galdü dü (ez berea, beste ezagün batena)*
*Maiak **beraren** zaküa galdü dü (berea, ez beste batena)*
*Maiak **bere** zaküa galdü dü (berea)*

**-** "BERA / BERRA" :
Adb. : *Pello Ameriketarik **bera** jin da (bakarrik, lagünik gabe)*
*Pello Ameriketarik **berra** jin da (ez da aldatü, ez mehatü, ez gizentü...)*

**-** Izenordari zehaztügabeak :

- Galtozkoak :
Adb. : *NOR ? (*pertsonen) *ZER ? (pertsona ez direnen)*
*ZOIN ?* (bientako) bena ere : *ZE(R) gizona ! (harridüraz)*

- Galtozkoetarik elkiak :
  Adb. : *NOR -> ihor, norbait, nornahi, norbera (bakoitxa bera)*
  *ZER -> (ezer) deüs (Xib), zerbait, zernahi*

- Bühürkariak : "BERE BÜRÜA" *(réfléchi)*
Egintzaren egilea eta harzalea ber pertsona delarik :
  Adb. : *Pellok **bere bürüa** joaiten ikusi dü*

Zonbait aditzekin ÜKEN lagüntzalearen orde, IZAN erabilten da :

| Adb. : | *xahatü* | *dutxatü* | *apaintü* |
|---|---|---|---|
| | *begitartatü* | *mainatü* | *aihaltü* |
| | *iresi* | *prestatü* | *bazkaltü ...* |

- "BERE BEITAN / GOGOAN", BERARTAN :
  Adb. : *Pellok gezür bat erran zeiola **bere beitan** ari zen*

**-** Alkarkariak :
  Adb. : *Pellok eta Maiak **alkar** maite düe.*
  ***Bata besteari** so egoiten dira.*
  *Üsü **bata bestearen** ondotik dira*

## 3. DETERMINAZALEAK

### **3-** 1 **Mügazaleak :** *(déterminants)*

**- Artikülüak** : "**-a**", "**-ak**" / "**bat**" / "**elibat**" / "**eli bat**" " / **-ok**"
*(plür. hüllan hau güti Xib.)*

Zehaztüak :
  Adb. : *gizon**a** (sing.) , gizon**ak** (pl.)*

Zehaztügabeak :
  Adb. : eskola **bat** *(sing.), **libürü elibat** = zonbait + plür.*
  Bena ere : ***eli bat*** = talde bat, *ardi **eli bat** = artalde txipi bat + sing.*
  ***Gizelia** = tribu*

Zehaztü / zehaztügabea :
  Adb. : *Pellok beso**a** hautse dü (zehaztügabea)*
  *Pellok esküineko beso**a** hautse dü (zehaztüa)*

Noiz erabil "-A", "-AK" artikülü zehaztüak ?

Hitzen erraiteko :
  Adb. : *argi**a**, sagar(r)**ak***

Izenbürü, errotülüekin :
  Adb. *: "ene amets**a**", "tresnategi**a**", "kafetegi**a**", "bülego**a**" ...*

Izaki bakoitxa delarik :
  Adb. : *Lür(r)**a**, argizagi**a***
  *Pello herriko mitil**a** da, südürr**a** hon dü eta zanko**ak** lüze.*

**-** Zehaztüa / Zehaztügabea berezteak ez düalarik inportantziarik :
Adb. : *Maiak ükarai**a** amürratü dü* *(zeh.gab) (ez dakigü zoin)*
*Maiak beso esküin**a** hautse dü* *(zeh.)*
*Pellori seme**a** hil zaio* *(zeh.gab.) (ez dakigü zoin)*

**-** Izaki ezagün bat delarik :
Adb. : *Pellok etxe**a** saldü dü (pentsatzen dügü berea dela)*

**-** Balio generikoa düen izenekin :
Adb. : *Gizon**a** gizon**a**ren(tako) otso da.*
*Ordinagailü**a** orotan sartürik da*

**-** Atribütüan :
Adb. : *Zer da hori ? Hori mahain**a** da*

**-** Izen zonbakaitzeki :
Adb. : *Zer edan nahi düzü, hur ala ardu ? Hur nahi dizüt .*
*(Xübereraz üsüago mügagabea erabilten da bai galtoan, bai arrapostüan)*

Noiz erabil "BAT", "ELI BAT" zehaztügabeak ?

**-** Balio zehaztügabearen entzünarazteko :
Adb. : *Hori Maiaren lagün **bat** da (besteen artean)*
*Ama **batek** deitü naü* *(ez jakin zoinek)*
*Gizon **elibat** jin dira (ez jakin xüxen zonbat, zoin edo nor)*

**-** Atribütüa izenondo edo izenlagün batekin delarik :
Adb. : *Zer da hori ? Hori mahain txipi **bat** da*
*Zer da hori ? Hori Afrikako txori **bat** da*

**-** Ipuin edo ixtorio bat kontatzen delarik :
Adb. : *Behin bazen lamiña **bat** ...*

**-** Osageiak saldo edo talde bat dela entzünarazten düalarik :
Adb. : *Haur **bat** ez da joka erabilten*

**3**- 2 **Erakusleak** : *( ikus erakusleen deklinabide taula )*

**-** Hiru gradü :
Adb. : ***hau**, **hori**, **hura***

**-** Izen-sintagmaren ondotik ezarten da :
Adb. : *Txakür beltx, xahar, txainkü **hori** ütsü da*

**-** Ez dü genero gramatikalik :
Adb. : *emazte **hau**, gizon **hau***

**-** "**hauxe**, **horixe**..." erakusle indartüak ez dira güti baizik erabilirik Xiberoan, eta "**berau**, **berori**" ... *(ez behin ere)*

## **3-** 3 **Zonbatzaleak :**

### Zehatzak :

**-** Kardinalak :

Adb. : **zero** (hüts), ***bat***, ***biga*** *("BI" izenareki erabilten da)*

Ontsala izen-sintagmaren ezkerrean ezarten dira :

Adb. : ***Hiru*** *sagar gorri eder.*

Bena :

Adb. : *Sagar gorri eder* ***bat****.*
*Godalet* ***bat*** *ardu* *(betea)*
*Ardu godalet* ***bat*** *(ontzia)*

Eüskaraz zonbakiak hogeika moldatzen dira :

Adb : *Hogei, berrogei* (2x20), *hiruetan hogei* (3x20) *...*
*Hogeita hamabost* (20+15),
*Lauetan hogeita hemeretzü* (4x20+19)

*(ehünekoak)* eta *(batekoak)*

Adb. : *Bostehün* **eta** *sei* *->506*
*Zazpiehün* **eta** *hogeita hameka* *->731*

*(milakoak)* ***mila*** *(ehünekoak)* **eta** *(batekoak)*

Adb. : *Bost* ***mila*** *berrehün* **eta** *bost* *-> 5.205*

*(milakoak)* ***mila*** **eta** *(ehünekoak / batekoak)*

Adb. : *Lau* ***mila*** **eta** *berrehün* *->4.200*
*Lau* ***mila*** **eta** *sei* *->4.006*

**Oharra :** Zonbakien idazteko ez da kakotxik, ez marrattorik erabilten*.*

**- Kardinalen deklinabidea :**

| | *Mgg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|---|
| Nor | bat | bata | baták |
| Nork | batek | batak | baték |
| Nori | bati | batari | bater |
| Noren | baten | bataren | batén … |
| | | | |
| Nor | hiru | hirua | hiruak |
| Nork | hiruk | hiruak | hiruek |
| Nori | hiruri | hiruari | hiruer |
| Noren | hiruren | hiruaren | hiruen … |
| | | | |
| Nor | lau | laua | lauak |
| Nork | lauk | lauak | lauek |
| Nori | lauri | lauari | lauer |
| Noren | lauren | lauaren | lauen... |

**-** Balio hantüa *(enfatikoa)* düen zonbatzaleak :

| | | |
|---|---|---|
| - " bakea eta bi sos " | - " esker mila " | - " Zer mila debrü ! " |
| - " biga-bostetan " | - " bost axola zait " | - " zazpi ahalak egin dütüt " |
| - " hamar aldiz" | - " mila aldiz " | |

- Kardinalak nola idatzi :

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Bia | *edo* | 2a | Bosta | *edo* | 5a |
| Hiruan | *edo* | 3an | Zazpitik | *edo* | 7tik |
| Hamarretik | *edo* | 10etik | Hogeiala | *edo* | 20ala |

**-** Ordinalak : " - GERREN "

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Lehena | *edo* | 1.a | Bigerrenetik | *edo* | 2.etik |
| Lehenean | *edo* | 1.ean | Bos(t)gerrenak | *edo* | 5.ak |

Adb. : *Antso VII.a Azkarra*
XX. Mentea
Luis XIV.a ...

**-** Zatikiak :

| | | |
|---|---|---|
| 1/2 -> erdi | 1/5 -> bosten | 2/3 -> bi heren |
| 1/3 -> heren | 1/10 -> hamarren | 3/4 -> hiru laurden |
| 1/4 -> laurden | 1/20 -> hogeiren | 4/5 -> lau bosten |
| 7/10 -> zazpi hamarren | | |

Adb. : *Oren laurden hor nizala*
*Herena hartü düt (hirutarik bat)*

**-** Multzo edo talde baten parte bat delarik, plürala erabilten da :

Adb. : *Sagarraren erdia jan dü*
*Sagarren erdi**ak** jan d**ütü***
*Sagarra erdi jan dü* (ez dü ürrentü)
*Sagar erdi bedera jan dü**e*** (bakoitxak erdi bat)
*Sagar erdi bat jan dü*
Kilo t'erdiko gazna / Kilo bat et'erdiko gazna
*Biderditan* (distantzia erditan) : *" Egik biderdi ! "*
*Bide erdian* (pasalekü erditan)

**-** Ehünekoak / Milakoak ... "-KO" " -REN "*(tako)*

| | | |
|---|---|---|
| $^0/_0$ 5 | -> | ehün**eko** bost, ehün**aren** bost |
| $^0/_0$ 25 | -> | ehün**eko** hogeita bost, ehün**aren** hogeita bost |
| $^0/_{00}$ 25 | -> | Mila**ko** / **ren** hogeita bost |

Adb. *: Ezantza **%ko** bostez emendatü da*

**-** "Batezbeste" -> kontüak oro eginik
Adb. : **Batezbeste**, astean bi mila euro irabazten dü

- Banazaleak *(zatikariak)* Zonbana ? "-NA edo -RA"
Adb. *: Bede**ra** (bat bakoitxak), bi**ra**, hiru**na**, lau**na**, bos(t)**na**,*
*sei**ra**, zazpi**ra**, zortzi**ra**, bederatzü**ra***
*hamar**na**, hameka**ra** .... hemeretzü**ra**, hoge**ira***
*hogeita ba**na**, ... ehü(n)**na**, ... mila**ra*** (Gavel)

**-** "Mila" goitiko zonbakier "-NA, -RA" *(hanixle)* edo biderkariari lotzen zaio :
Adb. *: Hamar**na** mila libera eraiki düe*

- Banazalea + "-(Z)KA" *(adberbioa)*
Adb. *: Bata-bata*
*bedera**ka**-bedera**ka***
*bedera**zka**-bedera**zka***
***bat** aldian, bira**zka**, lau**nazka** ...*

- Beste biderkari *(edo hanixleak) :* "-KUN , -KOITX"

*"*-KOITX" bat bera delarik *(Xib.)* :
Adb. *: Gizon hau begi ba**koitx** da*

"-KUN" : ba**kun** , bi**kun** :
Adb. *: Soka ba**kun**ean ezarri dü*

- "BAKOITX", "-KO" , "- KAL" *(deklinabideko banazalea) :*
Adb. : *Hilabete **bakoitx** 5.000 € irabazten dü*
*Hilabete**kal** 5.000 € irabazten dü*
*Hilabete**ko** 5.000 € irabazten dü*
*Hilabete **oroz** 5.000 € irabazten dü*

**-** Erran molde zonbait :
Adb. *: Aitak **eta biek** lan hau egin dizügü*
*Hi, Jon, Xaxi **eta lauak** ber autoan joanen gütük*

**-** "Bizpahiru", "Bizpalau", "Lauzpabost", "Bospasei", "Lauzpazortzi" :
Adb. *: Haur horrek **lauzpabost** urte badüke*
*Haur horrek **lau-bost** urte badüke / **Hamar-hamabost***
*Hogei **bat** lagün jin zait etxera*
*Gazna horrek bi kilo et'erdi **üngürü** (nonbait) badü*
*Kilo bat **gora-behera** zakü hoiek ber pezüa düe*
*Libürü hau ehün libera eta **zerbait** pakatü diñat*
*Mila libera**z petik**, mila libera**z goiti***
*Ürzoak ehün**ka** edo mila**ka** igaraiten ziren*

**Zehaztügabeak** :

**-** "ZONBAT ?" *(galtoetan)*

- Izenaren aitzinean ezarten da beti, mügagabean deklinatzen da eta aditzak singülarra *(üsüenik Xib.)* edo plürala hartzen dü :

Adb. : ***Zonbat** libürü erosi düzü ?*
***Zonbat** dantzari bada ?*
***Zonbati** ez zaio (zaie) ahazten pakatzea !*

- Zonbat = intentsitatez edo indartzeko :

Adb. : *Ez dakit **zonbat** maite zütüdan !*

- Zonbat-nahi :

Adb. : ***Zonbat-nahi** libürü erosirik ez dü bat irakurten*

**-** "ELIBAT" = **zonbait** *(plüral arina) :*

Mügagabean deklinatzen da eta aditzan plürala agertzen da :
Adb. : ***Sagar elibat** erosi **dütüt**.(plür.)*

**-** "ELI BAT" = **talde bat** (sing.) / saldo txipi bat

Adb. *Bide bazterrean ardi **eli bat** alan ikusi **düt** (sing.)*

**-** "ZONBAIT" *(plüral arina) :*

Mügagabean deklinatzen da, aditzako singülarra edo plürala ekar dezake izen-sintagmaren aitzinean edo ondotik ezar daite :

Adb. : *Haur **zonbait** gosez hiltzen da (dira)*
*Haur **zonbaitxe** gosez hiltzen da ! (hanitx erran nahi dü)*
***Zonbait** gizoni* edo *gizon **zonbaiti** xahartzean bürüa galtzen zai**o*** edo *zai**e***

**-** "HANITX, FRANKO"

Mügagabean deklinatzen dira, izen-sintagmaren ondotik üsüenik ezarten dira, aditzan singülarra edo plürala ekar dezakee :

Adb. : *Jente **hanitxi** (frankori) hori ez zai**o*** (edo zai**e**) *gustatzen*
*Haur **hanitx** jin da. Haur **franko** jin da.*
Adb. *: Esker**rik** hanitx !* (partitiboareki)

**-** "HANITX" *(adberbio) :*

Adb. : *Gizon hori **hanitx** asto da*

**-** "HANIXKO" *(soberaxe) :*

Adb. : *Han ezagützen diat **hanixko** andere.(Ligetx.)*

**-** "GÜTI" -> gütiñi -> gütixko -> gütitto *(ez aski - güti ments)*

**-** "APÜR" -> apürñi -> apürxko -> apürtto *(ez aski - güti ments)*

**-** KOXÜA : *Amiñi bat, hein bat, eijerki, buxi bat.*

**-** "HEIN BAT, ASKI", GÜTI :

Mügagabean deklinatzen dira eta aditzan üsüenik singülarra ekarten düe :

Adb. : *Hori jente **gütik** jakinen dü*
*Jente **askik** badaki*
***Hein bat** jentek badaki*

**-** IÑHIÑI BAT, IÑHAR BAT : *( isurkarientako )*

**3-** 4 **Orokorrak :**

**-** “DENA” *(hau izenik gabe erabilirik da),*
Adb. : ***Dena** (oro) jan dü.*
***Denak** (oro) jan dütü*
***Dena oro** ama da (zinez amaren egite badü)*

**-** “GÜZIA” *(hau izenareki edo gabe)* singülarrean edo plüralean deklinatzen da :
Adb. *:* ***Güzia** jan dü.*
*Bazter **güzietako** xokorik eijerrena ...(Etxahun Iruri)*

**-** “ORO” :
- Izena + ORO + kasüa mügagabean :
Adb. : *Gizon **orok** errespetüa merexi dü.*

- Izena + kasü pl. + ORO + kasüa mügagabean :
Adb. : *Gizon **oro(e)k** errespetüa merexi dü(**e**).*
*Gizon**ek** **oroek*** (pl.) *errespetüa merexi dü**e**.*

**-** “OSO” : Zatigarriekin erabilten da, izen-sintagmaren ondotik ezarten da eta singülarrean deklinatürik da
Adb. : *Arroskilla oso**a** / oso**rik** jan dü.*

**Determinazale zehaztügabeak** *(xehetarzün gabeak) :*

Ez düe mügatzen, ez eta xehetarzünik ekarten, izen-sintagmaren aitzinean ezarten dira, ez düe mügazalerik honartzen :

Zoin -> zoinahi -> edozoin :
Adb. : ***Zoin** gazte**k** ?*
***Zoinahi** saltegi**tan** hori eros ziniro.*

Zer -> zernahi :
Adb. : ***Zer** tenore da ?*
***Zernahi** lani lotzen da.*

Determinazale hauk berak ere erabilirik dira :
Adb. : ***Zernahiri** lotzen da.*
***Edozoini** goxo zaio errespetüa.*

**4. ADJEKTIBOAK** *( izenondoak)*
Izenari bürüz xehetarzün ekarten dü erranez nolakoa den.

**4**-1 **Izenondoak :**

**-** Üsüenik izenaren ondotik ezarten dira :
Adb. : *Gizon **mehe lüze** bat jin da auto **gorri eder** batetan*

**-** Ez dü genero gramatikalik *(salbü zonbait aldiz zubereraz) :*
Adb. : *Neskatila hori mauletar**sa** da*

**-** Bi kolore izenondo direlarik ohidüraz ordre bat agertzen da :
Adb. : *Txakür **xuri**-(e)ta **beltx** bat erosi düt*
*Atorra **xuri**-**gorriek** irabazi düe*

**-** Kolorea eta izaria emaiten düen izenondoekin, kolorearena lehenik ezarten da :
Adb. : *Etxe **xuri txipi eijer** bat ikusten düt*
*Haur horrek begi **beltz handiak** dütü*

**-** Izenondo bata bestearen osagarri delarik, osazalea ondotik da :
Adb. : *Atorra **berde ülün** bat ezarri dü*

**-** Izenondoa adberbio gisa beste izenondo batekin erabilirik delarik :
Adb. : *Süge bat, **izigarri handi,** ikusi düt (adberbio)*
*Süge **handi izigarri** bat ikusi düt (aditzondo = lotsagarria)*

**4-** 2 **Izenondoaren motaz edo kategoriaz aldatzea :**

**-** Izenondoa izen bezala :
Adb. : ***Gazteek** bürühauste hanitx badüe*
***Hotz** handi honeki süa piztü düt*

**-** Izena izenondo bezala :
Adb. : *Hori beno **astoagorik** ez düt ezagützen*

**-** Izenondoa adberbio gisa :
Adb. : ***Argi** erran deit ez dela jinen (argiki)*
*Segi **xüxen** aitzina*

**-** Aditza izenondo gisa *(aditz-partizipioa) :*
Adb. : *Pello motiko **idekia** da*
*Arraultze **hautseak** baztertü dütüt*

**4-** 3 **Izenondo atributu** *(predikatu osagarri)* ***:***

Izenondoa aditz baten bidez izenari lotürik da.
Zoin aditzeki ? Izan, üdüritü, bilakatü ...
Adb. : *Etxea **eijer** da.*
*Etxea **handi** atzaman düt.*

**4-** 4 **Izenlagünak :**

Izenaren aitzinean ezarri ohi dira.
“-REN” eta “-KO” atzizkien bidez izenari lotzen dira.

“-REN” atzizkia *(Noren ?)* bi izenen lotzeko erabilirik da :
Adb. : *Pello + etxea = Pello**ren** etxea*

- “-Noren” kasü-marka singülarrean, plüralean edo mügagabean izan daite.

“-KO” atzizkiak mota orotako hitzak alkartzen dütü :

| | | |
|---|---|---|
| Izena | -> | *Etxe**ko** leihoa ( leküzko genitibo)* |
| Adjektiboa | -> | *Bihotz hone**ko** gizona (erlatibo)* |
| Adberbioa | -> | *Bihar**ko** aroa* |

**-** Izen-sintagma + “-KO” :

- Izena + “-KO” :
Adb. : *Pettiri izene**ko** haur bat*

- Aditz-izena + “-T(Z)EKO” :
Adb. : *Oherat joaite**ko** tenorea*

- Izena + izenondoa + “-KO” :
Adb. : *Ebilaldi lüze**ko** elkaldia*
*Itzal handi**ko** gizona*
*Prezio apalago**ko** oskiak*
*Bortü goreneta**ko** elürra*

**-** “-KO” = “-DÜN” *(koloreeki : -dün) :*
Adb. : *Etxe leiho gorridün hori (xib)*
*Bürü handi**ko** gizon = gizon entelegüdün jakintsü*
*Bürü handi**dün** gizona = fisikoki bürüa handi düana*

**-** Zonbatzale zehaztuak + ”-KO”, + “-TAKO” *(xib. üsüenik) :*
Adb. : *Bost urte**tako** haurra*
*Kilo**tako** ogi bat erosi düt*

- Zonbatzale zehaztugabeak + “KO” :
Adb. : *Sos hanitx**eko**, bena entelegü güti**ko** gizona da*

- Zonbatzale orokorra + “-KO” , “-TAKO” :
Adb. : *Aste oso**ko** lana*
*Aste oro**tako** lana*

- Zonbat / Zonbateko :
Adb. : *Zonbat minüta**tako** beranta = Zonbat**eko** beranta*
*Zonbat litra**tako** botilla = Zonbat**eko** botilla*
*Sokak zonbat**eko** lüzegoa dü ? Bi metra nonbait**ekoa***
*Zonbat**eko** oskiak dira ? : - Hogeita bost euro**takoak***
*Zonbat**eko** oskiak dira ? - 38-40-42... izari**koak***

**-** Adberbioa + “-KO” :

Nola / nolako :

| | |
|---|---|
| **Nola** ? Aldagaitz *(adberbio)*<br>Adberbioaz arrapostüa :<br>Adb. *:* ***ontsa**, **aisa***<br>Egoera iragankor baten galtoa.<br>Adb. *: Gizona **jarririk** da*<br>Egintza baten bürützeko prozedüraz galtoa :<br>Adb. *: Auto**z** (medioa, nola) / auto**an** (zertan) jin da* | **Nolako** ? Deklinatzen da *(adjektibo)*<br>Adjektiboaz arrapostüa :<br>Adb. *:* ***hon**, **lodi**, **handi***<br>Egoera iraünkor baten galtoa<br>Adb. *: Emaztea **eijerra** da*<br>Pertsona edo izaki baten karakteristikaz, ezagügarriaz galtoa :<br>Adb. *: Pette **gaixtoa** da* |

**-** Aditzondoak + “-KO” :
Adb. : *Sekü**la**ko kaska bildü dü*

Deklinabide-kasüak : nor, nori, nork eta noren kasüetarik kanpo, beste kasüak adberbialak dira eta izen bati lotzeko “-KO” ezarri behar zaie :

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Non | -> | non**ko** | Noreki | -> | noreki**lako** |
| Nora | -> | nora**ko** | Norentzat | -> | norenta**ko** (xib.) |
| Nontik | -> | nonti(ka)ko | Norenganik | -> | norengani(ka)**ko** |
| Nora artino | -> | nora artino**ko** | Norengana | -> | norengana**ko** |
| Zerez | -> | zere**zko** | | | |

Adb. : *Hi**rekilako** harremanak mozten ditiñat*
*Bihotz**etikako** goraintziak !*
*Maule**ra artinoko** ezantza badüt*
*Eüskara**zko** libürüa*
*Harri**zko** ontzia (geia, materia)*

Salbü :
Adb. : *Ohi**ko** ürratsean ebilten edo ibilten da*
*Izigarri**ko** hotza*

**-** Posposizioneeki ere üsü “-KO” atzizkia erabilirik da :
Adb. : *Esne prezioaren alde**ko** manifestaldia.*
*Esne prezioari bürüz**ko** bilküra.*

**-** Erran molde zonbait :
Adb. : *Noizbehinka**ko** indarka osagarriaren hon da.*
*Behin-behin**ko** lana üzten düt.*
*Behin**ko**a(ren)gatik parkatzen ahal ziozü.*
*Egündano**ko** auherra da gizon hori. (egün artinoko handiena)*

**-** “-KA” *(adberbio : egintza arrapikakorrekin)* + “-KO” :
Adb. : *Ez dü txostaka**ko** gogorik.*

**-** Aditza + “-KO” :
Adb. : *Balitz(e)**ko** eiherak ez dü irinik egiten (Xib.).*
*Baliz**ko** olak ez du burdinik egiten (Bizk.).*
*Ezin sinetsi**zko** berria ekarten dük hor.*

**-** Beste kasü zonbait :

Perpaus konpletiboak “-LA + -KO” :
Adb. : *Hil dela**ko** berria hedatü da (erranik izan da hil dela).*
*Jinen zinela**ko**an nündüzün (uste nizün jinen zinela).*
*Lo zela**ko**a egin züan (sinetsarazi züan lo zela).*

Denborazko perpausa : aditza + baiko
Adb. : *Ni etxeratü bai**k**o Pello heltü zen.(Ni etxera heltü ondoko...)*

Baiezko / ezezko *(baietz /ezetz)* Baietza / ezetza :
Adb. : *Ezez**ko**a eman deit.*
*Galtatü deiot eta baiez**ko**a (arrapostüa) eman deit.*

Zureaz besteko, bestelako :
Adb. : *Zük eneaz beste**ko** indarra düzü.*
*Lan horri bestela**ko** agoinüz lotü behar zaio.*

"-KO" atzizki zatikari *(banazaile)* - Zaletarzüna *(abiadüra) :*
Adb. : *Berrehün libera oren(e)**ko** irabazten dü.*
*Ehün kilometra oren(e)**ko** egiten düt.*

**4-** 5 **Aposizioa :** xehetarzün emaiten düan izen edo izen-sintagma

**-** Aposizio ez herzaleak *(ez murrizgarriak)* jadanik argi mügatürik, hitz xüxenaz *(zehatzaz)* informazione ekarten dü
Adb. : *Maulen, **Xiberoko hiribürüan** lan güti da.*

**-** Aposizio herzaleak *(murrizgarriak)* izenari xehetarzün ekarten deio, hobeki entelegatzeko beharrezkoa da üsüan :
Adb. : *Ezpeldoi **sendagilea** Etxahun **karrikan** bizi da*

- Errespetüzkoak : *Etxepare **Jauna**, Pako **lehendakaria**.*

- Askazgoakoak : ***Osaba** Pette.*

- Leküzkoak : *Orhi **bortüa.** Xokottoa **ostatüa**.*

**-** Aposizioak eta kasü-markak :
Adb. : *Atharratze**n**, Basabürüko hirinausi**an** (ez herzalea)* kasü marka 2etan
*Etxeberri hargina**ri** dei egin deiot (herzalea)* kasü marka azkenari
*Pello ene lagüna**ri** aita hil zaio.*
*Pello**ri**, ene lagüna**ri**, aita hil zaio.(kasü marka bietan)*

**4-** 6 **Adjektibo berezi zonbait :**

**-** "Ber", izenlagün delarik, beti izenaren ezkerretik da xibereraz :
Adb. : ***Ber** etxean egoiten dira*
***Ber** etxetik elkitzen dira.*
*Igaran urteko **berber** erakaslea jin da.*

**-** "Berean" :
Adb. : *Orai **berean** izan zait ikustera (**ora**i indartzen dü).*
***Ber** egünean izan zait ikustera.*

**-** "Bera / bardina / berra" *(Xib).* :
Adb. : *Haurrak **berak** dira (bakarrik dira).*
*Haurrak oro **berrak** dira (alkar üdürikoak dira).*

**-** "Ber gizona" / "gizona bera" :
Adb. : ***Ber** züzendaria jin da (igaran urteko berra).*
*Züzendaria **bera** jin da (pertsonalki, soilki, bakarrik).*
**-** "Hüts" izenondo :
Adb. : *Nik ogi **hütsa** maite düt (izenondo).*
*Pello gezürti **hütsa** da (adberbioa üdüri : izigarria) (gezürti handia)*
***Hüts** eta bi Maulek irabazi dü (izen).*
*Azterketan **hütsa** üken dü (izen) (0 üken dü)*
**-** "Beste" hitzaren erabilteko manera zonbait :

"Beste" izenordari deklinatzen da :
Adb. : *Hori beste**k** / beste**ak** egin **dü**.*
*Hori beste**ek** egin dü**e***

"Beste" izenlagün gisa erabilirik *( beti izenaren aitzinean) :*
Adb. : *Bortüalako ez da **beste** biderik.*

"Beste ...a" / "beste bat" :
Adb. : *Goazen **beste** ostatüala ! (zehaztüa : lehen izan leküala).*
*Goazen **beste** ostatü **bat**etara ! (zehaztügabea : zoinahitara).*

**-** "Baizik ez" *(besterik ez / baino ez) :*
Adb. : *Bat **baizik ez** düt ediren.*
***Ez** niz Pelloreki **baizik** ontsa jiten.*

**-** "Baizik" adberbio :
Adb. : *Hi **baizik** erorten nündüan = Hi gabe erorten nündüan.*
*Gizon hori ez da gaixtoa, **baizik** astoa.*
*Joan **baizik** ez dük = Doi-doia joanik dük*

**-** Beste errandüra zonbait :
Adb. : ***Batezbeste** hogeita hamar badira.*
*Lagüna**z besterik** ihor ez da agertü.*
*Eijerki ebil zite **bestela(n)** eroriko zira.*
*Bere bürü**az beste** egin dü.*
*Erraitea zerbait da, egitea **beste** da / **besterik** da.*
***Besteak beste** mozkor hiz, ez dük autoa hartü behar.*
***Besteak** ez-bezalako da hori.*
***Bestehainbeste** egin nahi dü.*

## 5. ADBERBIOA :

Adberbioek : - aditza lagüntzen edo osatzen düe.
- aldagaitzak dira *(aditzondoak).*
- ez düe mügazalerik edo determinazalerik hartzen.

### 5- 1 Adizlagünak :

**-** Kasü-marken bidez sortürik :
"nor, nori, nork" eta "noren, nonko" kasüez kanpo, besteek adizlagünak sortzen dütüe :
*Adb. : Besta**lat** lagün**eki** hoin**ez** joanen niz.*

**-** Posposizioen bidez sortürik :
Adb. : *Etxe**ari bürüz**, etxe**aren eretzean** eskola da.*
*Atzo etxe**rik kanpo** nintzan*
*Mahain**aren gainen** ützi düt libürüa*

### 5- 2 Aditzondoak :

... ez düe kasü-marka beharrik aditzari lotzeko
Adb. *:* ***Atzo** ez zen eskolarik.*

**Aditzondo sailkapena itxüraren arau** :

**-** Aditzondo bakunak :
Adb. : ***Gaur**, **egün**, **bihar**, **behin**, **beti**, **orai**, **barda**,*
***sarri, üsü, aspaldi ...***

**-** Aditzondo eratorriak *(erajinak) (dérivés) :*
Adjektiboa + "-KI" -> manera, nola :
Adb. *: eijer**ki**, gora**ki**, …*
*(ebilki -> -ki gerundioa zubereran ez da üsü erabilirik … )*

"-KA" hitz mota zonbaiti lotzen da arrapikakortzeko :
Adb. *: Aztapar**ka**, hor**zka**, ostikata**ka**, tira**ka**, jo**ka**, kurrin**ka**, dei**ka**, urtukillas**ka**, ahape**ka**, isil**ka** ...*

"-(r)IK" adjektibo edo aditzer lotürik üsüenik :
Adb. *: Lehen**ik**, azken**ik**, barur**ik**, oso**rik**, hüts**ik**, zabali**k**, txüt**ik**, gazte**rik**, triste**rik** ...*

"-LA" :
Adb. *: Ho**la**, beste**la**(n), beza**la**, nahia**la**, laxüa**la**, aisina**la**, gustüa**la**, bere honea**la** ...*

**-** Aditzondo konposatüak :
Adb. *: Herenegün, etzidamü, lehen-lehenik, nolazpait, nonbait (han), noizbehinka, noiznola.*

**Aditzondo sailkapena zentzüaren arau** *edo arabera :*

- Zirkunztantzialak *(noiz, non, nolakoak) :*

Noiz -> denborazkoak : *gaur, bihar, gero ...*
Non -> leküzkoak : *heben, hor, han, gainen, pean ...*

- Aditzari maneraz edo zonbatekoaz *(intensibitateaz)* nozio bat haboro ekarten düen aditzondoak :

- Maneraz *(nola) :*
Adb. *: ontsa, gaizki, ederki ...*

- Zonbatekoaz (intentsibitateaz) :
Adb. : hanitx, aski, sobera, zinez, izigarri, güti, amiñi bat

- Mintzazalearen gogoa salatzen düen aditzondoak *: ( agian, mentüraz, halere, ümen, üdüriz ...)*
Adb. : *"**Agian** Pello jinen da" (erraileak nahi lüke Pello jin dadin)*

**Kategoriaz aldaketa edo kanbioa :**

**-** Adberbio lexikalizatüak edo kasik lexikalizatüak :
Adb. *: Ordüan, berriz, gogotik, lüzaz, ondoan, hoinez ...*

**-** Izenondoak adberbio gisa :
Adb. *: **Argi** erran dü.*
*__Xüxen__ etxerat joan da.*
*__Oker__ ari hiz.*
*__Llabür__ egin dü ...*

**-** Partizipioa adberbio gisa : -RIK, -TA *(ez xib.)*
Adb. *: Aspertü**rik**, ikusi**rik** ...*

**-** Zonbatzaleak :
Adb. *: **Güti** / **hanitx** / **aski** badaki. **Batere** ez daki ...*

**-** Errandüra adberbialak :
Adb. *: Güti gorabehera, behin-behin, lehen-beno-lehen, batbatetan, noiztenka, noiztarik-noiztara ...*

**5-** 3 **Erakusleetarik elki adberbioak :** Heben / hor / han + *"berean" hobeki zehazteko*

**-** Lekü-adberbio arruntak : Non

| *Heben* | *Hor* | *Han* |
|---|---|---|
| hebentik | hortik | hantik |
| hóna | hórra | hara |
| hona artino | horra artino | hara artino |
| honát | horrát | harát |
| hebenko | horko | hanko |
| honako | horrako | harako |

"Honainti / Horrainti / Harainti" :
Adb. *: Karrika**z** / karrika**ren** / karrika**tik** haraintia (instr. / gen. edo abl.).*

**-** Lekü-adberbio indartüak : "Nontxe ? Hebentxe, hebentxe berean".

| *Heben* | *Hor* | *Han* |
|---|---|---|
| hebentxe | hortxe | hantxe |
| hebentixe | hortixe | hantixe |
| honaxe | horraxe | haraxe |

| *Heben* | *Hor* | *Han* |
|---|---|---|
| hebentxetorik | hortxetorik | hantxetorik |
| hebentixetorik | hortixetorik | hantixetorik |
| honaxetorik | horraxetorik | haraxetorik |

| *Heben* | *Hor* | *Han* |
|---|---|---|
| heben berean | hor berean | han berean |
| hebentik beretik | hortik beretik | hantik beretik |
| hona bereala | horra bereala | hara bereala |
| hebenko bereko | horko bereko | hanko bereko |

Adb. : *Gizon hori **hebenko bereko** da.*
***Heben berean**, orai / bihar **berean***

**-** Erakusleetarik elki manerazko *(zernolako)* adberbioak :

Holaxe Halaxe
Holakoxe Halakoxe
Adb. : *Lehen **hala**, orai **hola**, gero ez jakin **nola**.*

**-** Erakusleetarik *(gen. : -ren)* elki beste adberbio zonbait :

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| honen | -> | honenbeste | -> | honenbeste bat |
| horren | -> | horrenbeste | | |
| hain | -> | hainbeste | -> | hainbat, hanbat |

Adb. : ***Hainbat** hobe, **hainbat** sordei(s) / gaixto.(tant mieux, tant pis)*
*Zonbat asto **hainbat** orroa (bardinkako konparatiboa).*

**5-** 4 **Galtazaleetarik elki adberbioak :**

**-** Leküzkoak :

| | | |
|---|---|---|
| Non-nahi | nonbait | ihon *(ere)* |
| nonko-nahi | nonbaiko | ihonko (2) |
| nontik-nahi | nonbaitik (1) | ihontik *(ere)* |
| norat-nahi | norapait | ihorat |

(1) " Nontipaitik" ere erabilten da.
(2) “Ihon**erezko** ... **oro” : Ihonerezko** gaüza zaharrak oro biltzen dütü.

**-** Denborazkoak :

| | | |
|---|---|---|
| Noiz-nahi | noizbait | ihoiz *(sekülan)* |
| Noiz-nahiko | noizbaiko | ihoizko |

Adb. : ***Ihoizko** / **ihonerezko** paper zaharrak esküetan dütü.*

**-** Manerazkoak *(zernolakoak) :*

| | | |
|---|---|---|
| nolanahi | nolabait (1) | ihola(z) *(ere)* |

Adb. : *Osagarriak ez deio **iholako** arrenkürarik emaiten.*
*Ez da **iholaz ere** tenorez heltüko.*

(1) Nolazpait : *Lana **nolazpait** egin dü (lana ahal bezala egin dü).*

**-** “BAT ERE / BATERE” :
Adb. : *Pelotakan **ez** dü hüts **bat ere** egiten (**ez** eta **bat**...).*
*Egün osoa **batere** jan gabe igaran dü (**deüs** jan gabe)*
***Ez** da **batere** goxo gaizkien entzütea (ez da iholaz ere goxo...)*
***Batere** zühürra **ba**hiz pentsa ezak biharamenari. (baldintza)*

**5-** 5 **Posposizioak :**

**-** NOR edo ZER partitiboa galtatzen düenak :

“GABE” :
Adb. : *Sos**ik** gabe da.*

“MENTSEAN, FALTAN” *(mügagabe batekin erabilirik) :*
Adb. : *Sos **mentsean** ohointzan hasi da.*

**-** NORK : “EXI” :
Adb. : *Aita**k** **exi** goraintzi ! = Aita**ren** **partez** goraintzi !*

- NOREN, ZEREN genitiboa galtatzen düenak :

- GAINEN, ONDOAN, AITZINEAN, ÜNGÜRÜAN, ERETZEAN, BARNEN
Adb. : *Mahaina**ren** **gainen**.*
*Ama**ren** **aitzinean**.*
*Ziloa**ren** **barnen** ...*

- “GORA, BEHERA” :
Adb. : *Xenda**ren** **gora** joan da. Karrika**ren** behera bazoan.*

- “AITZI(KA), KUNTRE, ALTE” :
Adb. : *Ni ez niz Maia**ren** **aitzi** haboroziz **alte** mintzatü*
Oharra : *”Mahaina**z** mintzo zen” (geia)*
≠ “Mahaina**ren** gain**en** mintzo zen *(leküa)*

- “PARTEZ, BIDEZ, MEDIOZ, LEKÜAN” :
Adb. : *Aita**ren** **partez** semea jin da. Aholkü honen **bidez** heltü niz.*

- “HAIDÜRÜ, ZAIN, ESKE / GALTOZ” *(ez direlarik mügagabe batekin) :*
Adb. : *Treina**ren** **haidürü** da. Jatekoa**ren** **galtoz** da gatüa.*

- “BIZKAR, GAIN” :
Adb. : *Langile**en** **bizkar** bizi da.*
*Pello**ren** **gain** da edariaren pakatzea.*

- “SAILEAN, HEINEAN” *(ez direlarik mügagabe batekin) :*
Adb. : *Kültüra**ren*** / kültüra ***sailean** ez niz sartzen.*
*Lan**aren*** / lan ***heinean**, egin ahala egiten dü (lan mailan).*

- “ARABERA” :
Adb. : *Egünkaria**ren** **arabera** atzo Maulen destorbü izan da.*

**-** NORI datiboa galtatzen düenak :

- “BÜRÜZ” :
Adb. : *Eskola eliza**ri** **bürüz** da (leküaz) (hon)*
*Jente**er** **bürüz** mintzatü da (planta / postüra) (hon)*
*Eskola**ri** **bürüz** mintzatü da (geiaz : instrumentala hobe : eskola**z**)*

- “ESKER” :
Adb. : *Zu**ri** **esker** kausitü düt.*

- “SO” :
Adb. : *Geroa**ri** **so** jokatü behar da.*

- “AITZI(KA), KUNTRE” *(Züb. dat. ere bai) :*
Adb. : *Gu**ri*** edo *Gu**re** **aitzi** jarri da.*

- “GORA, BEHERA” *(Xib. dat. ere bai) :*
Adb. : *Ürtxaintxa zühaina**ri** **gora** eta **behera** aisa ebilten da.*

**-** NON inesiboa galtatzen düenak :

- "HAN HOR" :
Adb. : *Mündüan **han hor** nonahi gosejankin hanitx bada.*

- "BARNA, BEHERA" :
Adb. : *Ereitze**etan barna** igaran dira.*
*Eskeler**etan behera** joan da.*

**-** NONTIK elatiboa galtatzen düenak :

- "KANPO, HARAT, LANDA" *(lekü ala denbora)* abiabürü bat erran nahi düalarik :
Adb. : *Eüskal Herri**tik kanpo** bizi da.*
*Zazpi**etarik landa** edo **harat** etxen niz.*

**-** ZEREZ instrümentala galtatzen düenak

- "GAIN" :
Adb. : *Jatera emaite**az gain** diharü boxiñi bat ere eman deio.*

- "BESTE, BESTALDE" :
Adb. : *Pelloz eta Maiaz **beste**, Ana **ere** han zen.*
*Ütürzeheta**z bestaldean** Nafarroa dügü.*

**-** Errandüra zonbait :

- Zanka**z** gora - Üzkü**z** topa - Bürü**z** piko
- Gibele**z** gainti - Gibele**z** aitzina - Kinberre**z** gora
- Ützüligainti**ka** - Ützülüngürü**ka**
- Lüze bezain zabal erori da... (*hedailo)*

**5-** 6 **Iritzi adberbioak** *(gogo berri emaileak) :*
mintzazalearen edo beste norbaiten abürüa agertzen düenak

**- Ustezkoak :**

- "ENE USTEZ / ENE USTE OROTAN, NIK USTE" :
Adb. : *Hi**re ustez** nor jinen da ?*
***Nik uste** Maulek irabaziko düan.*

- "BALINBA" :
Adb. : ***Balinba** odei horiek ebia ekarriko dizüe (uste düt).*

**- Segürtamenezkoak :**

- "SEGÜR (ERE)" :
Adb. : ***Segür** jinen da / dela.*

- "DÜDA GABE, DÜDARIK BATERE GABE, JAKINA" :
Adb. : ***Düda gabe**, jinen da*
***Jakina** jinen dela.*

- "ERRAN GABEA" :
Adb. : ***Erran gabea** ama ere hor ze**la** haurñiarekin.*
***Erran gabea**, ama ere hor zen haurñiarekin*

**- Segürtamenik gabekoak :**

- “ZER HEL ERE, BADAEZPADA ERE” :
Adb. : ***Zer hel ere**, ebia jin baledi, aterkia hartzen düt.*

**- Agiantzazkoak / opazkoak** *(souhait)* ***:***

- “AGIAN” :
Adb. : ***Agian** egün batez jeikiko dira ... (Matalazen hiltzea )*

- “BEHARBADA” :
Adb. : *Bihar **beharbada** Maulek irabaziko dü.*

- “MENTÜRAZ” :
Adb. : ***Mentüraz** xortekan (zozketan) irabaziko dü.*

- “ARAUZ” :
Adb. : *Lan hanitx badüt, **arauz** norbait jinen zait lagüntzera.*

**- Egiaren hüilanekoak :**

- “ÜDÜRI(Z) / ÜDÜRIALA, ITXÜRAZ / ITXÜRALA, MANERALA” :
Adb. : ***Üdüriala** kexü zen, bizkarra eman deit.*
*Leihoak zerratürik dira, miraküllüz kanpo, Pello elkirik da.*
*Leihoak zerratürik dira, Pello elkirik da, edo miraküllü...*

- “BALINBA, NONBAIT” :
Adb. : *Txakürra txanpaz ari da, **balinba** norbait bada bortan.*
*(segür bezala)*
*Sagar ebatsi dü, **nonbait** sosik ez düke /lüke erosteko.*
*(mentüraz ez dü)*

**6. NOLA AGERT ERRAN-NAHIAREN MAILA :**
*(gradüa edo heina, adierazkortasun maila)*

**6-** 1 **Gradüazaleak** : adberbio-mailak
Izenondo, aditzondo eta aditzaren intentsitate heinaren agertzeko erabilten dira.

- Orozbako ezetza : “BATERE, HÜLLANIK ERE, IHOLAZ ERE” *(kategorikoa)*
Adb. : *Etxe hori ez da **batere** eijerra.*

- Behar dena delakoa : “ASKI, FRANKO, DOI, NAHIKO.”
Adb. : *Etxe hau **franko** eijer da. **Doi** jin hiz.*

- “ZINEZ” zentzükoak : “HANITX, IZIGARRI, IKARAGARRI, ZINEZ, LAZGARRI...”
Adb. : ***Izigarria** jente jin da. **Hanitx** ontsa da.*

- "OSO" zentzükoak : “ARRUNT, PÜRKI, OSO, XAHÜ ...”
Adb. : *Gizon hori **arrunt** (pürki, net , xahü...) bürütik joanik da.*

- "GAINTIKAKO" zentzükoak : “AISA , SOBERA, GAINTIKA, GOITIKA”
Adb. : *Maulek bihar **aisa** irabaziko dü.*

- Beste zonbait : "ERDI, ONTSA, ONTSATTO, HÜTSA ..."
Adb. : *Pello* ***erdi lo*** *da.*
*Haur hau* ***ontsatto*** *eijerra da. (-tto eufemikoa)*
*Ez hori sinets, gezürti* ***hütsa*** *da.(= gezürti handia : superlatibo)*

**6-** 2 **Arrapikatzeak :** Bigerren hitzak lehena indartzen dü *(intentsitatea)*

**-** Arrapika hütsak *(soilak) :*

Izenondoekin : Gorri-gorria, txar-txarra, lodi-lodia, oso-osoa ...
Adb. : *Ahalketürik* ***gorri-gorria*** *jarri da.*

Izenlagünekin : ber-bera, ber-ber(r)a, bezala-bezalako ...
Adb. : ***Ber-bera*** *jin da.(oso bakarik)*
*Ene zaküa zurea* ***bezala-bezalakoa*** *da.*

Aditzondoekin : Emeki-emeki, zabal-zabala, ekürü-ekürüa ...
Adb. : ***Ekürü-ekürüa*** *egon da.*
*Etxenko leihoak* ***zabal-zabala*** *zütüan.*

Adizlagünekin : Bat-batetan, erdiz-erdi, gain-gainetik, gaüaz-gaü
Adb. : ***Gain-gainetik*** *debekatürik*
***Erdiz-erdi*** *xixa jo dü*

Zonbatzaleekin : Bata-bata, den-dena, lehen-lehenik ...
Adb. : ***Bata-bata*** *honttoak oro klikatü dütü.*
***Lehen-lehenik*** *ogia segürtatü nahi züan*
***Den-denak*** *jan dütü.*

Beste zonbait (herots-izenak) : Bur-bur, laka-laka, ñir-ñir, tanpa-tanpa,zafla-zafla ...
Adb. : *Tipiña* ***bur-bur*** *herakitzen ari da.*
***Tanpa-tanpa*** *etxera jin zait.*

- Fonetiko kanbio zonbaitekin : Tzar edo mar, tipi-tapa, tzipi-tzapa, ikusi-mikusi ...
Adb. : ***Tzar edo mar*** *zerbait jauntsi behar düt.*

**-** Beste arrapika mota zonbait :
Adb. : ***Ontsa*** *lizateke bai* ***ontsa*** *bihar Maulek irabaz baleza.*
*Bürüa* ***gogor*** *ere bai* ***gogor*** *haur horrek !*
***Hanitxek*** *eta* ***hanitxek*** *badakie.*
***Gora*** *beno* ***gorago*** *beharrez, erori da.*
***Erri*** *egin günüan bena* ***erri*** *...*
***Joan*** *banintz* ***joan*** *nihaur, atzamanen nüan...*
*Makilaz* ***eman*** *deio, bai ontsa* ***eman*** *ere.*
*Ogia* ***egünekoa egünean*** *egiten dü.*
***Egünetik egüneala*** *hobetzez doa.*
***Leküan leküko*** *gisa.*
***Herriz herri, bürüz bürü, esküz eskü, besteak beste***
***Erranak erranik, ikusiak ikusirik, bürütik bürü*** *...*
***Dena dela /den*** *ez düt auto berri baten sosik.(Quoi qu'il en soit...)*

## 6- 3 Bardinkatze edo konparazioak :

**-** Desbardintarzünezko konparazioak :
"Haboro" erraiteko : **Adjektibo** / **adberbio** edo **partizipioa** + “**AGO**”

Adb. : *Bata bestea* ***beno*** *handi****ago*** *da : handi****ago****a hartzen düt.*
*Uste nizün Pello handi****ago*** *zela.*
*Uste nizün Pello (****hanitxez****) goiz****ago*** *jinen zela.*
*Lagüntzen banaüzü* ***hainbat*** *ais****ago*** *dükezü enetako.*
*Oskiak* ***hirutakoaz/ hiru aldiz*** *merke****ago*** *atzaman ditizüt.*
*Jeia* ***ezin*** *gaizki****ago*** *ürrentü zen.*
***Gero eta*** *gaitz****ago*** *da lan atzamaitea edo gero****ago*** *gaitz****ago*** *...)*

**-** "Sobera" erraiteko : Adj. / adb. / partizipio + “-EGI, -TTO, -XE”
“Hanitxez ... -EGI” : … -> ... -TTO -> ... -XE / -XKA
Adb. *: Oski hoik handi****egi / tto / xe / xka*** *dira enetako.*

**-** "Haboro**en**" edo "gehie**n**" erraiteko :
**Adj.** / **adb.** / **partizipio** + “**-EN**” *(superlatibo erlatiboa)*

Adb. : *Bi sagarr****etarik*** *handi****ena*** *hartü düt.*
*Txakürr****etan*** *txipi****enak*** *üsüan herosti****enak*** *dira.*
*Oro****tako*** *berri txarr****ena*** *: lagüna galdü dü.*
*Egün****danoko*** *istripü latz****ena*** *Maulen agitü da.*
***Ihoizko*** *libürü zaharr****enak*** *esküetan dütü.*

**-** Kasü araugabeak *(irregülarrak) :*

| | | ***Hon*** | ***Ontsa*** | ***Hanitx*** |
|---|---|---|---|---|
| -AGO | -> | hobe | hobeki | haboro |
| -EGI | -> | honegi | ontsegi | sobera |
| -EN(A) | -> | hoberen(a) | hobekien(a) | haboroen(a) |

**-** Bardintarzünezko konparazioak *(erkatzeak) :*

Nola(ko)tarzüna : “HAIN” *(erakusleetarik horra da)* + adjektiboa / adberbioa
Adb. : *Maule ez da* ***hain*** *itsusi. (xib. HONEN, HORREN ez erabilirik)*

Zonbatarzüna *(zonbat, kantitatea)* : “HONENBESTE, HORRENBESTE, HAINBESTE”
Adb. : *Pello* ***horrenbestez*** *Maia* ***beno*** *handi****ago*** *da.*
*Ez nüan uste* ***hainbeste*** *kostako zenik.*
Mahain hau bost zehe lüze da,
***beste hainbestez*** *lüzat daite.*

## 6- 4 Atzizki gradüazaleekin :

“**-XE**” *(N, L, R -tarik ürrentzen diren hitzekin -> -****TXE****)*

Xüxen xeheki erraiteko zoin, nolako, non, noiz.

**-** Erakusle indartüekin *(güti xib.) :*
Adb. : *Hau****xe*** *da ene libürüa. Hori****xe****, hura****xe*** *(xib. güti)****.***

**-** Adjektiboekin :
Adb. : *Mahain hau lodi**xeago**, lüze**xeago** da (gütiz haboro)*
*Mahain hau lodi**xeegi**, lüze**xeegi** da (gütiz sobera)*

**-** Adberbioekin :
*Adb. : Heben**txe/txetorik**, hor**txe/torik**, han**txe/txetorik**, gero**xeago**, sarri**xe**, beran**txeago***

- Partizipioarekin :
Adb. : *Lanean akitü**xe** niz (amiñi bat, pixka bat).*
*Hor**txe**ko sagar hontü**xeegi** horik sarrixe bildü**xe**ren dütüt.*

"**-TTO, -ÑI**" ttipigarri (-TXO) :

**-** Izenarekin : Aita**tto**, ama**tto**, Jan**tto**, alaba**tto**, haur**ñi**

**-** Adjektiboekin : Handi**tto**, txipi**tto** = amiñi bat ... **-egi** (-**xka**)
Adb. : *Oskiak handi**tto** dütüt = Oskiak handi**xka** / handi**xe** dütüt*

**-** Adberbioekin : "-**tto**, -**xko** / -**xka**"
Adb. : *Haur hau ontsa**tto** eijerra da = zinez eijerra da.*
*Güti**tto**, güti**xko**, güti**xka** (ez etxit edo etxiñi aski).*
*Bekan**tto** (-**egi**), sobera**tto** / **xko** (amiñi bat sobera).*

"**-TSÜ**" atzizkia :

**-** Hüllan, nonbait han, güti gora-behera :
Adb. : *Haltsu eta Jatsu biak bardin**tsü** (hüllan alkar üdüriak).*

**-** Hanixtarzüna, nasaitarzüna :
Adb. : *ila**tsü**, mendi**tsü** ... ahal**tsü**, potere**tsü** ...*

**6-** 5 **Bustidüra erabilienak :**

Ttipigarri edo indar emaile zonbait hitzi bustidürarekin erranahia aldatzen zaie.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | -> | X | : | Go**z**o *(gustü)* | -> | Go**x**o *(plazer emaile)* |
| Z | -> | X | : | **Z**ü**z**en *(eskübide)* | -> | **X**ü**x**en *(txüt, lerden)* |
| Z | -> | X | : | **Z**ühür *(zentzüdün)* | -> | **X**ühür *(soskoi, geinazale)* |
| Z | -> | X | : | **Z**ügün *(ez lotsor)* | -> | **X**ügün *(eijer, xotil)* |
| Z | -> | X | : | **Z**abal *(eremü handi)* | -> | **X**abal *(ordoki)* |
| TZ | -> | TX | : | **Tz**o**tz** *(adar)* | -> | **Tx**o**tx** *(zorte) ola parte* |
| TZ | -> | TX | : | **Tz**üt *(lerden)* | -> | **Tx**üt *(petigora gaitz ) (1)* |
| T | -> | TT | : | Po**t**iko | -> | Po**tt**iko |
| D | -> | DD | : | Ma**d**alen(*a)* | -> | Ma**dd**alen |
| L | -> | LL | : | **L**arri *(handi, lodi)* | -> | **Ll**arri *(espantotx)* |

(1) bena ere bere garbiketa eta barneko lanetan *(fisik.)* dena ontsa egile

**.-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-**

# III. DEKLINABIDEA

## 1. DEKLINABIDEA OROKORKI : *(ikus taulak : 53 – 54. orr.)*

Eüskaraz deklinabideko kasüak badütügü frantsesezko edo gaztelerazko preposizioen ordez :

Adb. : *Pello**ren** lagüna arreba**reki** Maule**ko** besta**lat** joan da hoine**z**.*

Kasü bakotxa galto baten arrapostüa da : NORK, NON, NOIZ, ZERK ...

| | | | |
|---|---|---|---|
| NOR ? | -> **bizidünentako** | ZER ? | -> **bizigabeentako**, |
| ZOIN ? | -> **denentako** | NON ? | -> **leküaren** |
| NOIZ ? | -> **denboraren** | | |

- **Leküa :**

Deklinabide kasüak beti ürrentzean ezarten dira, ünitateko azken hitzari lotzen dira.

Adb. : *Hantxeko haur kolore gorri txapeldün**ari** lagüna gorde zaio.*

**- Zonbata, nonbrea :**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Mügagabea | : em**á**zte | + NOREKI | -> *em**á**zte(r) ki* |
| Mügatü singülarra | : emazt**é**a | + NOREKI | -> *emazt**éareki*** |
| Mügatü plürala | : emazte**ék** | + NOREKI | -> *emazte**éki*** |

**- Mügagabea :**

- Izen berezietan :
Adb. : *Mikel**ekin** egon niz, Maule**n** bizi da.*

- Atributuan :
Adb. : *Pello erak**á**sle da. Maule eijer da. (üsüenik artikülürik gabe)*

- Izenordari eta erakusleetan *(mügagabean deklinatzen dira) :*
En**i**, ene**tako**
Hon**i**, hor**tan**

- Galtazaleetan ZER, ZOIN... IHOR, NORBAIT *(erajinetan, deribatüetan) :*

-> Nor**en** ? Zoini ? Zer**k** ? Zoin ?
Adb. : *Zoin**tan** izan zira ? Zer**tan** hüts egin düzü*

-> Ihor**tan**, zonbat**en**
Adb. : *Zonbat gizon jin da ?*
*Ihor**tan** / norbait**etan** fidantxa badüzü ?*

- Zonbatzale zehaztüeki *(xüxeneki) :* Bat, biga, hiru ... (kardinaleki)
Adb. : *Maulen hiru **é**txe**tan** oihal saltzen da,*
*eta hiru etxe**é**tan (müg.) prezio berxeak dütüe*

- Zonbatzale zehaztügabeeki *(zonbaki xüxenik gabe) :*
Zonbait, hanitx, apür, güti, hainbeste, heinbat ...
Adb. : *Zonbait jén**tereki** ez da aisa erri egitea.*
*Gizon **hanitx** jin da. Hori jente **gütik** daki.*

- Zonbait deklinabide-kasüreki :

-> “-RIK” *(partitiboa) :*
Adb. : *Ez dü ogi**rik** jateko.*

-> “-TZAT, -TAKO” *(prolatiboa) :*
Adb. : *Asto**tzat** hartü naüe.*
*Txapel**tako** bukanas bat bürüan ezarri dü.*

-> “-KO, -KAL” *(zatizale edo banazaleak) :*
Adb. : *Hilabete**kal** hirian üngürü bat egiten dü.*

-> “-Z” *(instrümentala)* : ZEREZ, NOLA
Adb. : *Nola jin hiz Maulerik ? Auto**z** (hoin**ez**, trein**ez**) (nola)*
*Bürü**az** mürrüa jo dü (instrumental hütsa)*

- Zonbait aditz berezik ere mügagabea galtatzen dü : *(atributu bezala)*

| | |
|---|---|
| Bilakatü : | *Ardua **ózpin** bilakatü da.* |
| Haütatü / Izentatü : | *Pello **lehendakari** haütatü / izentatü düe.* |

- Hartü / igorri / ezarri / sartü : *Pello **presó** hartü / igorri / ezarri / sartü düe.*

| | |
|---|---|
| Egon / baratü : | *Gerlatik **besomótx** baratü / egon da.* |
| Joan : | *Pettiri **mítil** joan da.* |

- Aditz-loküzioetan :

| | |
|---|---|
| Nigar, lo, erri, hüts | + EGIN |
| Gose, egarri, lotsa | + IZAN |
| Sü, pott, hitz | + EMAN |
| Parte, min, hitz | + HARTÜ … |

- Beste erranbide zonbaitetan :

| | |
|---|---|
| SÜTAN : | *Esküak **sütan** ditiñat.* |
| KETAN : | *Zonbat sos **ketan** joaiten den ! (debalde igorten)* |
| ORDÜTAN : | *Ez da **ordütan** heltü, treina hüts egin dü* |

**- Plüral hüllana :** *(ez Züb.)*

Gazte-OK / -ON (-EK / -EN) :
Adb. : *Euskaldun**o**n Egunkaria.*
*Aspaldi**o**n = aspaldi h**o**ntan.*

**- Bizidünen / bizigabeen atzizkiak lekü-denborazkoetan :**

Bizidünen -> “-EN BEITAN, -ENGANA(T), -ENGANIK” :
Adb. : *Haurra ama**renganat** joan da edo ama**ganat**.*

Bizigabeen -> “-N, -RA(T), -TIK / -RIK” :
Adb. : *Maule**n**, Maule**rik**, Maule(**ra**)kanpo**tik**.*

**- Fonetika arauak :** ***(azkardüra edo azentüa)***

Mügagabeko eta plüraleko itxüren berexteko :

| | | |
|---|---|---|
| *Hanitx giz**ó**n(e)**k** ez dü / düe jatekorik* | -> | mügagabea |
| *Biafrako gizon**ék** ez düe jatekorik* | -> | müg.plürala |
| *Zonbait giz**óni** bürüa galtzen zaio / zaie* | -> | mügagabea |
| *Adinareki gizon**ér** bürüa galtzen zaie* | -> | müg.plürala |
| *Pello bi esk**ó**la**tan** ebili da* | -> | mügagabea |
| *Pello Mauleko eskol**étan** ebili da* | -> | müg.plürala |
| *Hanitx g**á**zte**k** ez dü / düe lanik* | -> | mügagabea |
| *Gazte**ék** ez düe lanik* | -> | müg.plürala |
| *Zonbait g**á**zte**ri** ez zaio / zaie geroa beti ohartzen* | -> | mügagabea |
| *Gazte**ér** ez zaie geroa beti ohartzen* | -> | müg.plürala |

**- Diptongoz ürrentzen diren hitzeki :**

Üsüan bokalez ürrentü hitzak bezalaxe deklinatzen dira, bereziki AI eta AU-etarik ürrentü hitzak, nahiz heben ere nahasteka hanitx edireiten dügün.
Adb. : *Altzai**ko** zelai**rik** gorenak sai(**e**)**z** beterik dira.*
*Pello jei(e)**z** jei ebili da eta ez dü emaztegei(**r**)**ik** atzaman.*

| | *Eüsk. Batua* | *Zübereraz* |
|---|---|---|
| Zerez ? Noiz ? | Gau(e)**Z** | gaü(a)**Z** |
| Non ? Noiz ? | gau(e)**an** | gaü(a)**n** |
| Nonko ? | gau(e)**ko** | gaü**ko** |
| Nora ? | gau(e)**ra** | gaü(e)**ala** |

**- "R" tarik ürrentzen diren hitzetan "R"a bikuntzen da kasü-marka lotzen zaiolarik :**
Adb. : H*aur-(r)**ak**, txakür-(r)**ek** ...*

Halere salbüespenak badira :
Adb. : *Hur**a**, zur**ek**, paper**eki**.*

**- “A” tarik ürrentzen diren hitzak** *("**A**" herrokoa da)* **hanitx dira :**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| aizina | aixkora | alegia | atorra | aza |
| botilla | bürdüina | denbora | egia | eliza |
| erregiña | eskola | familia | gaüza | gaztaina |
| habia | hizkuntza | ideia | ikastola | itxüra |
| kaiola | katia | nabela | lamiña | lotsa |
| lotüra | maila | makila | matela | neskatila |
| probintzia | sakola | teila | tximinia | etab ... |

**- Jesanak edo mailegatüak :**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| agentzia | akademia | narraza | ekonomia | feida |
| besta | inportantzia | jüstizia | kültüra | literatüra |
| bekanika | malezia | pedagogia | polizia | saltsa |

**- "A" tarik ürrentü atzizki zonbait :**

| | |
|---|---|
| -ADA | *taul**ada**, piperr**ada*** |
| -BERA | *hoz**pera**, bihoz**bera**, min**bera*** |
| -DÜRA / -TÜRA | *egin**düra**, koza**düra*** |
| -KERIA | *tzar**keria**, auher**keria**, jelos**keria** (üsü pej.)* |
| -(T)ERIA | *tresn**eria**, gaz**teria**, beltz**eria*** |
| -GINTZA | *etxe**gintza**, teila**gintza*** |
| -KA | *pelota**ka**, txosta**ka**, ürza**ka*** |
| -TXA | *labor**antxa**, segürt**antxa**, oharme**ntxa*** |
| -TZA | *edan**tza**, egin**tza**, ezagü**tza** ...* |

**- Lekü-izen berexi zonbait :** *(batean artikülü gisako bat, bestean ez)*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Bizkaia | Zübero(a) | Donostia | Iruñea |
| Bizkaia-n | Zübro-n/an | Donostia-n | Iruñea-n |
| Bizkai-ko | Zübero-ko | Donostia-ko | Iruñe-ko |
| Bizkai-tik | Zübero-tik | Donostia-tik(-rik) | Iruñe-tik(-rik) |
| Bizkai-ra(t) | Zübero-ala(t) | Donostia-ra(t) | Iruñe-ra(t) |

## 2. DEKLINABIDE KASÜAK :

### 2- 1 Gramatikalak

**NOR :** absolutoa

Funtsezko kasüa da, hortarik elkitzen dira beste kasüak, berak ez dü kasü markarik *(NOR, ZER, ZOIN).*

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| Ø | - **A** | - **AK** |

Erabilirik da :

**-** Sübjetü gisa aditz igarangaitzeki *(NOR, NOR-NORI) : (intransitif)*
Adb. : *Gaur g**í**zon jin da* *(Mgg.).*
*Gaur giz**ó**n-**a** jin da* *(Mg. sing.).*
*Gaur giz**ó**n-**ak** jin dira* *(Mg. plür.).*

**-** Objetü xüxen gisa aditz igarankorreki *(NOR-NORK, NOR-NORI-NORK) :*
Adb. : *Atzo s**á**gar erosi düt. (trans.)*
*Atzo sag**á**r(r)-**a** erosi düt.*
*Atzo sag**á**r(r)-**ak** erosi dütüt.*

**-** Atribütüareki :
Adb. : *Pello ikásle da.*
*Gü ikásle / ikasl**éak** gira.*

**-** Bokatiboareki *(deitzeko) :*
Adb. : *Bai, Jauna.*
*Errak potiko (a ), (h)aügü hona ! Errak potikoa !*

**Partitiboa -(r)IK** *(**≠ NOR**) (mügagabean baizik ez) :*

NOR-ek bezalaxeko funkzioak dütü.

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(r) IK | - | - |

Erabilirik da :

**-** Ezezko perpausetan :
Adb. : *Ez düt ogi**rik**. Ez da jente**rik** jin.*

**-** Galtozko perpausetan :
Adb. : *Badea lekü**rik** ? Ekarri düka ardo**rik** ?*

**-** Baldintzazko perpausetan :
Adb. : *Kafe**rik** balinbadük, bat edanen diat.*

**- Beste kasü zonbaitetan :**

**-** Partizipioen egiteko :
Adb. *: Jin**ik** da.*
*Itsasoan galdü**rik** da.*

**-** Aditzondoen egiteko :
Adb. : *Isil**ik** egon da.*
*Kexü**rik** joan da.*

**-** Aditz-izenareki :
Adb. : *Nik ez diat hik egin lanaren egite**rik**.*

**-** "-EN" bardinkatzeko atzizkiareki :
Adb. : *Sagar**rik** handi**ena** jan dü.*
*Xiberoko mendi**rik** gor**ena**.*

**-** Zonbatzale zehaztügabe güti bateki *(Xib.) :*
Adb. : *Esker**rik** hanitx.*

**-** "GABE"posposizioareki :
Adb. : *Sos**ik** **gabe** niz.*
*Lotsa**rik** **gabe** sar !*

**-** Partitiboan NOR / ZER : objektu züzen

| | |
|---|---|
| Adb. : *Ekarri düzü libürü**a** ?* | Galtazaleak badaki zoin libürü den |
| *Ez düt ekarri libürü**a**.* | = Ez düt ekarri aipatü deitazün libürü hura |
| *Ekarri düzü libürü**rik** ?* | Zoinahi libürü izan daiteke |
| *Ez düt ekarri libürü**rik**.* | **=** Ez düt libürü bat ere ekarri |

**NORK** : ergatiboa

Kasü nausia, egilea, igarankorreki sübjetü funkzioa baizik ez dü
*(NOR-NORK, NOR-NORI-NORK).*

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(e) K | -AK | **-EK** |
| Hanitx g**á**zte**k** | gazt**éak** | Gazte**ék** |

Adb. : ***Nork** erosi deio libürüa ? Aita**k** / ni**k** / etxeko**ek** / norbaite**k** / hai**ek***
*Aita**k** autoa sartü dü* (NORK).
*Aita autoan sartü da* (NOR).

| | | | |
|---|---|---|---|
| *Haur(r)**ak** (obj. züz. plür.) ikusi dütüt* | NOR-NORK | -> üken *(trans.)* |
| *Haur(r)**ak** (sübj. sing.) ama ikusi dü* | NOR-NORK | -> üken *(trans.)* |
| *Haur(r)**ak** (sübj. plür.) joan dira* | NOR | -> izan *(intrans.)* |

**NORI : ** datiboa

Nor eta Nork bezala aditzan agertzen da (akordio / komunztadura).

| *Müg g.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(**r**)**i** | -**ari** | -**er** |
| *Bost giz**óni*** | *Gizon**ari*** | *gizon**ér*** |

Erabilirik da :

**-** Zeihar-objetüarentako :
Adb. : *Pello**ri** sagarrak eman deitz**o**t.*

**-** Aditz arazleeki *(-ARAZI : (faktitiboa),*
Nor-Nork -> Nor-Nori-Nork bilakatzez :
Adb. : *Amak ságar erosi dü (Nor-Nork)*
*Ama**ri** ságar eros**arazi** deiot (Nor-Nori-Nork)*

**-** Posposizioeki :
Adb. : *Zu**ri esker**, Eüskara**ri bürüz**...*

**-** Zonbait aditzeki :
“Üko egin” : *Edate**ari** üko egin dü.*
“Eman da” : *Edate**ari** eman da ...*

## **2**. 2 **Ez gramatikalak**

**NOREN :** jabego genitiboa

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| **-(r)EN** | **-AREN** | **-EN** |
| *gizónen* | *gizonaren* | *gizonén* |
| *Séme(re)n* | *seméaren* | *semeén* |
| *áita(re)n* | *aitáren* | *aitén* |

"NOREN" deklinabide-kasüak izenlagünak sortzen dütü, adjektibo bat bezala izenari xehetarzün baten ekarteko edo mügatzeko erabilirik da.

**-** Lagüntzen düan hitzaren aitzinean ezarten da :
Adb. : *Aita**ren** autoa zapatürik da.*

Salbü :
Adb. : *Aita gu**rea**, Pette zü**ena**.*

**-** Lagüntzen düan hitza ere deklinat daiteke :
Adb. : *Aita**ren** auto**areki** bestalat joan da.*

**-** Lagüntzen düan hitza isiltürik izaten ahal da :
Adb. : *Pello**ren** etxea zahar da,*
*Maia**rena** berri-berria.*

"NOREN" noiz erabil :

**-** Jabegoarentako :
Adb. : *Maia**ren** autoa. Nabela**ren** pünta.*

**-** "Egile"goa agertzeko :
Adb. : *Lili**en** saltzalea (bena ere : lili saltzalea).*

**-** Posposizioeki :
Adb. : *Pello**ren bidez**, Amaia**ren arabera**, hi**re eskü / gain**.*

**-** Errandüra zonbaiteki :
Adb. : *Gu**rea** igaranik da.*
*Ez entzüna**rena** egin dü.*
*Asto**arena** egiten dü.*
***Bereak** entzün dütü ...*

**-** Aditz-izenaren objetu züzenarentako *(Nor, Zer) :*
Adb. : *Lili**en** **erosten*** (ines.) *ikusi düt.*
*Ama**ren** **ikustera** (alat.) izan niz.*

“NOREN” kasüa beste deklinabide kasü hanitxen hoinarrian da :

| | | |
|---|---|---|
| NORE(n) | + -KI | NOREN + BEITAN |
| NOREN | + -TZAT | NOREN + -GANIK |
| NOREN | + -GATIK | NOREN + -GANA(T) |

**NONKO :** lekü-genitiboa

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(e)**TAKO**, -(e)**KO** | -(e)**KO** | **-ETAKO** |
| *Maháin**tako*** | *maháin(e)**ko*** | *mahain**étako*** |
| *B**ó**rtü**tako*** | *bortü**ko*** | *bortü**étako*** |
| *Esk**ó**la**tako*** | *eskola**ko*** | *eskol**étako*** |

- "NONKO"k leküzko izenlagünak emaiten dütü :
Adb. : *Maule**ko** karrikak, sükalte**ko** leihoa.*

**-** Bi itxüra hartzen dü mügagabean :

- "(e)ETAKO" Izen arrunteki :
Adb. : *Heben, hanitx etxe**tako** leihoak gorri dira.*

- "(e)KO" izen berezieki :
Adb. : *Maule**ko**, Londres-**ko** /(e)**ko**,Gazteiz-**ko** / (e)**ko**.*

**-** "N" edo "L"-tarik ürrentzen den hitzeki "-KO -GO" bilakatzen da :
Adb. : *Irun**go**, Zizurkil**go**, (Irun(e)**ko**, Zizurkil(e)**ko** (Xib.).*

**-** "NONKO, NOIZKO" :

- Jatorria edo nontikakoaren erraiteko :
Adb. : ***Nonko**(a) da gizon hori ? Maule**ko** düzü.*

- Denbora *(noizko ?)* :
Adb. : *Bihar**ko**, daigün aste**ko**.*

- Helbürüa *(zertako ?) :* destinatiboa zentsüareki
Adb. : *Lane**ko** tresna, joste**ko** bekanika.*

- "NONKO" eta "NOREN" arteko ezbardintarzünak :
Adb. : *Etxe**ko** argazkia : (etxen begiratzen düdan argazkia)*
*Etxea**ren** argazkia : (etxeaz düdan argazkia)*

Adb. : *Libürü**ko** prezioa* *lekua* *libürüa**ren** prezioa.* *düan*
*eliza**ko** isiltarzüna* *lekua* *Eliza**ren** isiltarzüna.* *entitatea*

**NORAKO, ZERTARAKO, NORENGANAKO :** adlatibo destinatiboa
*( üsü **-TZAT** / -**TAKO** prolatiboareki nahasirik da )*

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(e)**TARAKO** / -**RAKO** | -(e)**ALAKO** | **-ETARAKO** |
| *Arbel(e)**tarako** /- **rako*** | *arbel(e)**alako*** | *arbel**étarako*** |
| *Ostatü**tarako*** | *ostatü**alako*** | *ostatü**étarako*** |
| *Etxe**rako*** | *etxe**alako*** | *etxe**étarako*** |

NORAKO kasüa noiz erabil :

“NORA” kasüa bezala bizigabeeki leküaren eta denborarentako :
Adb. : *Sükalte**alako** mahain bat erosi düt.*
*Ez da kanpo**rako** aro.*
*Lan hori daigün aste**alako** üzten düt.*

Helbürüa : “ZERTARAKO ?”
Adb. : *Lan(e)**alako** jin niz.*
*Hanitx min(e)**tarako** aspirina hon da.*

“ZERTARAKO / ZERTAKO + NORAKO / NONKO” :

| | | |
|---|---|---|
| Adb. : *Ebi**tarakoa*** | -> | *ebi**takoa**.* |
| *Hoin**etarakoak*** | -> | *hoin**etakoak*** |
| *Maule**ko** autobüsa* | -> | *Maule**rako** autobüsa.* |

*Maule**rako**, Olorue**ko** autobüsa hartü düt.*
*Maule**rakoan** Zalgizen eküratü niz.*

“NORAKO / NORENTZAT” :
Adb. : *Herriko etxe**arentzat** lan egiten dü (bizidün bezala).*
*Herriko etxe**alako** dira paper horik (lekü, bizigabe).*

**2.** 3 **Adberbial orokorrak :**

**NOREZ / ZEREZ,** instrümentala **Nortzaz / Zertzaz, Zointaz :**

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(e)**z** | **-az** | **-ez** |
| *Giz**ó**n(e)**z*** | *gizon**az*** | *gizon**éz*** |
| *Ost**á**tü**z*** | *ostatü**az*** | *ostatü**ez*** |
| *Mak**í**la**z*** | *makil**áz*** | *makil**éz*** |

**-** “ZER -(e)Z / -TAZ / -TZAZ” :

| | |
|---|---|
| Galtazaleekin : | Nor**taz** ? Nor**tzaz** ? Zer**taz** ? Zoin**taz** ? |
| Erakusleekin : | Hon**taz**, Hor**taz**, Har**taz**. |
| Pertsona izenordarieki : | Ni**taz**, Hi**taz**, Gü**taz**, Zü**taz**, Züe**taz** |

Adb. : *Zer**taz** mintzo zira ? Denbora**z** mintzo niz.* *(geiaz)*
*Eüskara**z** mintzo niz.* *( nola)*

**-** “ZEREZ”-en ordez “ZERTAN” erabilten dügü :
Adb. : *Auto**z** (mgg.)* edo *auto**an** (müg.) jin nük (Nola ? Zertan ?)*
Instrumentala ezin da erabili izenak hitz-lagün bat düalarik :
Adb. : *Aitaren auto**Z** jin nük. (**ezin** da erran)*

**-** “ZEREZ / ZERTAZ” kasüa noiz erabil ?

- Instrümenta edo tresna erran nahi düalarik :
Adb. : *Makil**áz** jo dü.*
***É**skü**z** josi dü.*

- Ekeia, pasta, materia erran nahi düalarik :
Adb. : *Mahaina zur(e)**z** da.*
*Kota zeta**z** da.*

- Manera edo modua :
Adb. : *Haurra nigarre**z** jin da.*

- Geia :
Adb. : *Axularren libürü**az** mintzo niz.*

- Zonbait aditzekin : Ohartü, jabetü, baliatü, boztü, damütü
Adb. : *Gazte denbora**z** ohart nüzü.*
*Zü jite**z** botzik nüzü.*

- Posposizioeki : Beste, bestalde, gain, kanpo ...
Adb. : *Müga**z** bestaldean.*
*Mürrü**ez** kanpo etxe hori nik egin düt.*
*Ebaste**az** gain egar ahala eman deio.*

- Partizipioarekin : *(gerundio zentzüa)*
Adb. : *Godaleta hartü**z** brau hüstü züan.*
*Aski edane**z** mozkortzen da.*

- Errandüra zonbait :
Adb. : *Gogo**z** / bürü**z** badaki.*
*Alkoholaren ondorio**z** destorbü hanitx bada.*

- "ZEREZKO -> -ZKO" *(ekeia) :*
Adb. : *Zure**zko** mahaina.*
*Bürdüina**zko** bidea -> bürdünbidea.*

**NOREKI, ZEREKI :** soziatiboa (-N, -LA, -LAN) **:**

"NOREN" kasütik elkitzen da -> NORE(N) + -KIN

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(r)**EKIN** | -**AREKIN** | -EKIN |
| giz**ó**n**ekin** | gizon**arekin** | gizon**ékin** |
| em**á**zte(r**e**)**kin** | emazt**éarekin** | emazte**ékin** |
| **á**ita(r**e**)**kin** | ait**árekin** | ait**ékin** |

**-** "NOREKI(N)", zereki(n) kasüa noiz erabil ?

- Kidetarzüna, lagüntza zentzüarekin :
Adb. : *Txakürr**arekin** bortüalat joan da.*

- Instrümentü edo kausa zentzüarekin :
Adb. : *Nabela**rekin** moztü dü.*
*Bekanika herots**arekin** ez düt deüs entzüten.*

- Denbora :
Adb. : *Ebilte**arekin** ez da hotzik.*
*Negü**arekin** hotza jiten da.*

- Kasü honek ere "-KO" atzizkia hartzen ahal dü : NOREKILAKO
Adb. : *Aita**rekin** dütüdan harremanak -> Aita**rekilako** harremanak.*

- "NOREKI / ZEREZ, ZEREKI" :
Alkar üdüri dira eta zonbait aldiz bata bestearen ordez erabil daite :
Adb. : *Makilar**eki** jo dü (soz.)*
*Makila**z** jo dü (instr.)*

Bena üsüenik :

"NOREKI" : lagüngoa erran nahi dü.
"ZEREZ" : bide, tresna, medio.
Adb. : *Lagün bat**eki** egon niz (ez lagün bat**ez** ...)*
*Telefona**z** elerran düt (ez telefona(r)**eki** ...)*
*Auto**z** jin da (autoa erabili dü jiteko)*
*Autoa(r)**eki** jin da (autoa ekarri dü)*

Oharra :
*Lafitteren arabera :*

*-**KI** : üsü Xiberoan*
*-**KIN** : (ines.) alkartzea eginik da Adb. : Haurra ama**rekin** da*
*-**KILA** : (adl.) alkartzeari bürüz Adb. : Haurra aita**rekila** igorri dü*
*-**KILAN** : (itxüra enfatikoa)*

**NORENTZAT / NORENTAKO** destinatiboa *(noren + -**tzat** / -**tako**)* **:**

Xedezko deztinatiboa.

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(r)**ENTZAT** | **-ARENTZAT** | **-ÉNTZAT** |
| -(r)**ENTAKO** | **-arentako** | **-éntako** |
| *Giz**ó**ne**ntako*** | *gizona**réntako*** | *Gizon**éntako*** |
| *G**á**zte(r**e**)**ntako*** | *gaztea**réntako*** | *Gazte**éntako*** |
| ***Á**ma(r**e**)**ntako*** | *am**árentako*** | *Am**éntako*** |

Harzalea nor den erraiten dü :
Adb. : *Haurrak amaren**tzat** /-**tako** bildü dütü.*
*(Xib. ez : -TZAKO.)*

**NORENGATIK** motibatiboa *(NOREN+GATIK)* **:**

**-** "REN-" genitibo markarik gabe erabil daite, bereziki izenordarieki :
"ZÜGATI, HIGATIK …"

- Zergatia edo **kausa** :
Adb. : *Bake**arengatik** zernahi egin lezake.(en faveur, pour...)*
*Lagüntze**arengatik** bazkaria eman deio.(trüke)*

- Perpaus **kontzesiboetan** (NAHIZ ETA, ARREN) : -(A)GATIK
Adb. : *Aberats **izan**(**a**)**gatik** ez da emaile. (malgré, bien que...)*
*Ama(ren)**gatik** nahi düana egiten dü.(ama ez dü sinesten)*

- Beste :
Adb. : *Mila euro**gatik** erosi dü (ez zaio kario üdüritü).*
*2000 euro 2 euro**gatik** pakatü düt (2000 - 2 = 1998 €).*

**NORTZAT / NORTAKO / ZERTZAT :** prolatiboa *(orde)*

**-** "-TZAT / -TAKO" hau ez da mügagabean baizik agertzen eta xüxenka hitzari lotzen da.

Aditz haueki üsüan erabilirik da : *hartü, edüki, eskentü, eman, ezarri*...
Adb. : *Errege**tzat** / -**tako** hartü düe.*
*Txapel**tzat** / -**tako** bürüan bukanas bat dü.*
*Montüra**tzat** / -**tako** asto eder bat baizik ez dü.*
*Auto hau berri-**tzat** / -**tako** saldü deit.*
*Asto**tzat** / -**tako** igaranarazi naüe.*

**-** -"KO", "KAL" *(Xib.) :* distributiboa, zatizalea
Ez dügü mügagabean baizik edireiten :
Adb. : *1.000 € hilabete**ko** / -**kal** irabazten dü.*

**2.** 4 **Adberbial lekü-denborazkoak**

**NON / NOIZ**, **ZERTAN**, **ZOINTAN**, **NOREN BEITAN** : inesiboa

| *Mügg.* | | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|---|
| -(e)**TAN** | (iz. arr.) | -(e)**AN** | **-ETAN** |
| -(e)**N** | (iz. ber.) | | |
| -(e)**N BEITAN** | (bizid.) | **-AREN BEITAN** | **-EN BEITAN** |
| *Lán(e)**tan*** | | *lan(e)**an*** | *lan**étan*** |
| *Maule-**n*** | | | |
| *Gizón(e)**n beitan*** | | *Gizon**áren beitan*** | *Gizon**én beitan*** |

"NON" kasüa noiz erabil :

Leküa :
Adb. : *Non da Pette ? Pette baratze**an** da.*

Denbora :
Adb. : *Noiz horra da Pette ? Ostegün(e)**an**.*

Zertan ari den *(iharduera) :*
Adb. : *Zertan ari da Pette ?* Pette lan(e)**an** ari da.
*Pette sonü joite**n** ari da. (aditz izenareki)*

Manera, modua :
Adb. : *Ezinbeste**an** ohean sartü da.*
*Bere hone**an** erran deio.*
*Ustegabe**an** jin zaio.*
*Xüxene**an** Xiberoko Botzatik.*

Posposizioeki :
Adb. : *Etxe**n** barne**n**, mahain pe**an**, ene ondo**an**.*

**NONTIK** *(lek.)*, **NOIZTIK** *(denb.)*, **NORENGANIK** *(bizid.)* : **ablatiboa**

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(e)**TARIK** (iz. arr.) | -(e)**TIK** | -**ETARIK** |
| -(e)**RIK / -TIK** (iz. ber.) | | |
| -(e)**NGANIK** (bizid.) | -**A**(**REN**)**GANIK** | -**ÉNGANIK** |
| *Lékü**tarik*** | *lekü**tik*** | *lekü**étarik*** |
| *Iruri**rik*** | | |
| *Gizó**nenganik*** | *gizon**a(ren)ganik*** | *gizon**énganik*** |

“NONTIK” kasüa noiz erabil :

Leküa :
Adb. : *Non**tik** horra zira ? Merkatü**tik** horra nüzü.*

Zeiharbidea *(nontik igaraitez) :*
Adb. : *Ohoinak leiho**tik** sartü dira.*
*Zalgize**rik** igaran niz.*

Denbora :
Adb. : *Igaran urte**tik** hona gaixkitü da.*
*Astelehen-(e)**tik** ostiraleala lanean ari nüzü.*

“Zer egitetik” *(iharduera) :*
Adb. : *Nontik horra zira ? - Lan(e)**tik***
*Ogiaren eroste**tik** horra nüzü.*

Manera *(nola) :*
Adb. : *Gogo**tik** lan egiten dü.*
*Ez dü ihon**tik** ere honartzen.*

Ohar bat :
**ETXE** *(andereño, errege...)*
Etxe**n** *(ene etxean)* ≠ etxean *(zoin-nahi etxetan)*
Etxe**rik** *(ene etxetik)* ≠ etxetik *(zoin-nahi etxetarik ) ( Abl.)*
Etxe**rat** *(ene etxealat)* ≠ etxealat *(zoin-nahi etxetarat)*

**NORA** bizigabeen, **NORENGANA** bizidünen **:** **adlatiboa**
**NORAT** bizigabeen**,** **NORENGANAT** bizidünen **:** **hüllantze adlatiboa**

(NORAT : *bürüz, hüllantze adlatiboa*) (*beste euskalkietan* : NORANTZ)

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(e)**TARA**(**T**) (iz. arr.) | -(e)**ALAT** | -**ÉTARAT** |
| -(e)**RA**(**T**) (iz. ber.) | | |
| -(e)**NGANA**(**T**) (bizid.) | -**A**(**REN**)**GANÀ**(**T**) | -**ÉNGANA**(**T**) |
| *Eskóla**tara(t)*** | *Eskola**lát,** Eskol**ála*** | *Eskol**étara(t)*** |
| *Maule**rát,** M**á**ule**ra*** | | |
| *H**á**urr(e)**ngana(t)*** | *Haurr**á**(ren)-**ganát / gána*** | *Haurr**én**-**ganát / gána*** |

Oharra : "-REN-" genitibo marka zonbait aldiz galarazirik da.
Adb. : *Haurra ama**ganat** ezkapi da.*

NORA kasüa noiz erabil :

Leküa :
Adb. : *Norat (bürüz) zoaza ? Etxe**rat** noazü.*
*Nora joan zira ? Etxe**ra** joan nüzü*

Denbora, noiz arte :
Adb. : *Zazpi et'erdi**tara** egon da heben.*
*Zazpiak et'erdi**tara** egon da heben.*

Xedea, zer gogoreki :
Adb. : *Oskien erroste**ra** izan niz.*

"-TÜ" aditzen moldatzeko atzizkiareki :
Adb. : *Ni Maule**ra** / **ratü** ondoko ülüna zen.*
*Barda hameketan ohe**ratü** niz.*

Zonbait errandüratan modüzko edo leküzko adberbio zentzüareki :
Adb. : *Gis**ala**, maner**ala**, üdüri**ala**, itxür**ala**, gustü**ala***

**NORA ARTINO,** **NORA ARTINOKAN**, *(lekü / denbora)* mügatü adlatiboa
**NORA ARTE, NORANO**
**NORENGANA ARTINO** / **NORENGANANO** *(bizidünen)*

| *Mügg.* | *Sing.* | *Plür.* |
|---|---|---|
| -(e)**TARANO** (iz. arr.)<br>-(e)**tara ARTINO** ( “ “ ) | | **-ETARANO**<br>**-etara ARTINO** |
| -(e)**RANO** (iz. ber.)<br>-(e)**ra ARTINO** ( “ “ ) | | |
| -(r)**ENGANANO** (bizid.)<br>-(r)**engana ARTINO**( “ “ ) | **-A**(**REN**)**GANANO**<br>**-a**(**ren**)**gana ARTINO** | **-ENGANANO**<br>**-engana ARTINO** |

Adb. : *Bihotze**alano*** / *Bihotze**ala artino** sartü deio ezpata*
*Maule**ra artino*** / *Maule**rano** lagüntü dü*
*Pello**renganano*** / *Pello**rengana artino** joan da*

.

# DEKLINABIDEA

| | KASÜAK | GALTOAK | MÜGAGABEA | | MÜGATÜA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Singularra | Plurala |
| gramatikalak | absolutoa | nor, zer, zoin | Ø | | - a | - ak |
| | ergatiboa | nork, zerk, zoinek | - ( e ) k | | - ak | - ek |
| | datiboa | nori, zeri, zoini | - ( r ) i | | - ari | - er, (eri, ei) |
| | partitiboa | …. | - ( r ) ik | | ….. | ….. |
| Ez gramatikalak | jabego genitiboa | noren, zeren, zoinen | - ( r ) en | | - aren | - en |
| | lekü genitiboa | nonko | - ( e ) tako | ko (iz-ber.) | - (e) ko | - etako |
| Adberbial orokorrak | Instrümentala | norez, zerez, zertaz, zertzaz | - ( e ) z | | - az | - ez |
| | Soziatiboa | norekin, zerekin, zoinekin | - ( r ) ekin | | - arekin | - ekin |
| | xedezko destinatiboa | norentako, zerentako | - ( r ) entako | | - arentako | - entako |
| | | norentzat, zerentzat | - ( r ) entzat | | - arentzat | - entzat |
| | motibatiboa | norengatik, zerengatik | - ( r ) engatik | | - arengatik | - engatik |
| | prolatiboa | nortzat, zertzat | - tzat, tako | | - ….. | - ….. |
| | zatikaria, banazailea | ………. | - kal, ko | | - ….. | - ….. |
| Adberbial lekü - denborazkoak | <u>BIZIGABEAK</u> | | | | | |
| | inesiboa | noiz, non, zertan | - ( e ) tan, n | | - (e) an | - etan |
| | ablatiboa | noiztik, nontik, zertarik | - ( e ) tarik | rik (iz. ber.) | - (e) tik | - etarik |
| | adlatiboa | nora, zertara | - ( e ) tara | ra (iz. ber.) | - ala | - etara |
| | hüllantze adlatiboa | norat, zertarat | - ( e ) tarat | rat (iz. ber.) | - alat | - etarat |
| | mügatü adlatiboa | noiz, nora artino, artio | - ( e ) ra artino, rano | | - ala artino, alano | - etara artino, etarano |
| | adlatibo destinatiboa | norako, noizko (dest.) | - ( e ) tarako, rako | | - alako | - etarako |
| | <u>BIZIDÜN, ENTELEGÜDÜN</u> | | | | | |
| | inesiboa | noren beitan | - ( r ) en beitan | | - aren beitan | - en beitan |
| | ablatiboa | norenganik | - ( r ) enganik | | - arenganik | - enganik |
| | adlatiboa | norengana | - ( r ) engana | | - arengana | - engana |
| | hüllantze adlatiboa | norenganat | - ( r ) enganat | | - arenganat | - enganat |
| | mügatü adlatiboa | norenganano, artino | - ( r ) engana artino / - no | | - arengana artino / - no | - engana artino / - no |

a + a = a : ama + ari = amari
a + e = e : ama + er = amer
e + a = ea : gazte + ak = gazteak
e + e = ee : gazte + ek = gazteek

"ta":leküzkoaren ezagügarria
(r ): eufon.2 bokalen artean
(e): eufon.2 kontson. artean

- e -: plüral edo hanitxaren azagügarria
- a -: mügatüaren ezagügarria

**ERAKUSLEEN DEKLINABIDEA**

| *GALTOAK* | *SINGULARRA* | | | *PLURALA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| nor, zer, zoin | **hau** | **hori** | **hura** | **hau / hoi** -k | **hori**-k | **hurak** |
| nork, zerk, zoinek | **hon** -ek | **hor** r-ek | **har** -ek | **hau / hoi** -ek | **hori**-ek | **hai / hei / h** -ek |
| nori, zeri, zoini | " -i | " r-i | " -i | " -er | " -er | -er |
| noren, zeren, zoinen | " -en | " r-en | " -en | " -en | " -en | " -en |
| nonko | " -tako | " - tako | " -tako | " -etako | " -etako | " -etako |
| norez, zerez, zertaz, zentzaz | " -taz, ez | " - taz, horrez | " -taz, tzaz, ez | " -etaz, etzaz, ez | " -etaz, etzaz, ez | " -etaz, etzaz, ez |
| norekin, zerekin, zoinekin | " -ekin | " r-ekin | " -ekin | " -ekin | " -ekin | " -ekin |
| norentako, zerentako | " -entako | " r-entako | " -entako | " -entako | " -entako | " -entako |
| norentzat, zerentzat | " -entzat | " r-entzat | " -entzat | " -entzat | " -entzat | " -entzat |
| norengatik, zerengatik | " -engatik | " r-engatik | " -engatik | " -engatik | " -engatik | " -engatik |
| **BIZIGABEAK** | | | | | | |
| noiz, non, zertan | " -tan | " - tan | " -tan | " -etan | " -etan | " -etan |
| noiztik, nontik, zertarik | " -tarik | " - tarik | " -tarik | " -etarik | " -etarik | " -etarik |
| nora, zertara | " -tara | " - tara | " -tara | " -etara | " -etara | " -etara |
| norat, zertarat | " -tarat | " - tarat | " -tarat | " -etarat | " -etarat | " -etarat |
| noiz/nora artino, artio | " -tarano, artino | " - tarano, artino | " -tarano, artino | " -etarano, artino | " -etarano, artino | " -etarano, artino |
| norako, noizko (dest.) | " -tarako | " - tarako | " -tarako | " -etarako | " -etarako | " -etarako |
| **BIZIDÜN, ENTELEGÜDÜN** | | | | | | |
| noren beitan | " -en beitan | " r-en beitan | " -en beitan | " -en beitan | " -en beitan | " -en beitan |
| norenganik | " -enganik | " r-enganik | " -enganik | " -enganik | " -enganik | " -enganik |
| norengana | " -engana | " r-engana | " -engana | " -engana | " -engana | " -engana |
| norenganat | " -enganat | " r-enganat | " -enganat | " -enganat | " -enganat | " -enganat |
| norenganano | " -enganano | " r-enganano | " -enganano | " -enganano | " -enganano | " -enganano |
| norengana artino | " -engana artinc | " r-engana artinc | " -engana artinc | " -engana artino | " -engana artino | " -engana artino |

**-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-**

# IV. ADITZA

## 1. EÜSKAL ADITZA : *(ikus : "aditz taulak")*

### 1- 1 Aditz motak :

"NOR, NOR-NORI" (***NOR subjektu***) igarangaitzeki :

Nor jin da ? Ni jin niz. *(nor = ni subjektu)* -> IZAN
Adb. : ***Jon*** *etxen sartü da.*

"NOR-NORK, NOR-NORI-NORK" (***NOR objektu***) iragankorreki :

Nork ikusi dü Pello ? Nik ikusi düt Pello *(objektu)* -> ÜKEN, EDÜKI
Adb. : ***Pellok*** *pirripita ezkaratzean sartü dü.*

Adizki jokatüak eta jokatügabeak :

Jokatüak : pertsona eta aldia agertzen düe :
Adb. : *Jin* ***ginen****. Ikusiko* ***düt****.*

Jokatügabeak : pertsona eta aldi markarik ez da agertzen, pertsona eta aldi oroen balio düe :
Adb. : *Bedatseko lilien* ***ikustean*** *bozten niz.*

Adizki perifrastikoak eta trinkoak :

Perifrastikoak :
Adb. : *j**oa**iten niz*
*e**bil**ten düzü*
*i**kus**ten düt*

Trinkoak : *(tinkoak, zintetikoak)*
*(orai.)* ban**oa** da**bil**azü da**kus**at *(ikusten düt)*
*(irag.)* nind**oa**n ze**bil**azün nen**kus**en *(ikusten nüan)*

Aditzak oro perifrastikoan jokatzen ahal dira eta **bi** zatitan dira :

Aditz **nausia** : aditzaren erran-nahia emaiten dü eta aspektua finkatzen :
Adb. : ***Jiten*** *da,* ***sartü*** *zen,* ***eman*** *zeion*

Aditz **lagüntzalea** : pertsonaz, aldiaz, eraz *(moduaz)* xehetarzün emaiten deigü :
Adb. : *Jiten* ***da,*** *sartü* ***zen,*** *eman* ***zeion***

Aditz trinkoan xehetarzünak oro hitz batetan dira :
Adb. : ***Z****ebilazü**n** (ebilten züzün),* ***n****indoa**n** (joaiten nintzan...)*

Lagüntzaleak ere adizki trinko izaten dira :
Adb. : *Pette Mauleko* ***da****.*
*Maiak zortzi urte* ***dü****.*

**1**- 2 **Aspektua : aditz nausiak lau aspektu har dezake.**

| | |
|---|---|
| JIN, HAR, IKUS | aspektu gabea |
| JIN, HAR**TÜ**, IKUS**I** | aspektu bürütüa |
| JITEN, HAR**TZEN**, IKUS**TEN** | aspektu bürütügabea |
| JINEN, HAR**TÜ**-**KO**/-**REN**, IKUS**I**-**KO**/-**REN** | aspektu gerokoa |

IKUS *(asp. gab.)* Ahalezko, aginterako, subjuntiboko lagüntzaleeki erabilten da :
Adb. : *Ikus daiteke (ahalezkoa)*
*Ikus ezak (agintera)*
*Nahi diat ikus dezaan.(subjuntiboa, 2.perts. Hik)*
*Nola ikus ? Zer pentsa ?*

**Salbüespenak :**

Aditza beste hitz mota batetarik horra delarik :

| | | | |
|---|---|---|---|
| Gizon | -> gizon**tü** | -> gizont bedi | *(Xib. üsüenik)* |
| Hur | -> hur**tü** | -> hurt dadin | *( " " )* |
| Xuri | -> xuri**tü** | -> xurit daiteke | *( " " )* |
| Zorrotz | -> zorroz**tü** | -> zorrozt(ü) daiteke : | *(zorrozten ahal da)* |

"T" aditzoinaren ürrentzean :

- Aditz eratorrieki *(erajineki) :*
Adb. : *lake**t**, ausar**t***

- Literatüra ohidüran direlakoz :
Adb. : *lo**t**, ezagü**t**, ohi**t**, ohar**t**...*

"IKUSI" *(aspektu bürütüa)*, aditz partizipioa, egintza ürrentüa, aditzen izentatzeko hiztegietan erabilirik da.

- Ürrentze desbardinak üken detzake :
Adb. : *hel**tü**, ikus**i**, erra**n**, iratz**i**...(ik. ondoko taula)*

"IKUSTEN" *(aspektu ez bürütüa, / ez ürrentüa)*

Aditzoinari "-T(Z)EN" lotzen zaio ürrentürik ez den egintzarentako.

**Noiz erabil** : -TEN edo –TZEN :

| | | | |
|---|---|---|---|
| -TZEN | -TÜ<br>-DÜ | har**tü**<br>gal**dü** | Har**tzen**<br>gal**tzen** |
| | -LI | esta**li**<br>itza**li** | esta**ltzen**<br>itza**lzen** |
| | -KI | jei**ki**<br>urtu**ki** | jeiki**tzen**<br>urtuki**tzen** |
| | -E<br>-A | bet**e**<br>mank**a** | bet**atzen**<br>mank**atzen** |
| | -RI | iratzar**ri** | iratzar**tzen** |
| -TEN | -N | egi**n**, eda**n**, jin | egi**ten**, eda**ten**, ji**ten** |
| | -TSI<br>-TZI<br>-TXI | jaun**tsi**<br>ehor**tzi**<br>era**txi** | jauns**ten**<br>ehorz**ten**<br>erax**ten** |
| | -SI<br>-ZI | iku**si**<br>ha**zi** | Ikus**ten**<br>haz**ten** |
| | -ZTÜ<br>-STÜ | ho**ztü**<br>hü**stü** | Hoz**ten**<br>hüs**ten** |
| | -RI | ekar**ri** ero**ri** | ekar**ten**, eror**ten** |
| Salbüespen zonbait | | hil<br>jo<br>eho<br>eman<br>erran | hil**tzen**<br>jo**iten**<br>eh**aiten**<br>ema**iten**<br>erra**iten** |

Oharrak :

Ortografiaz :

Adb. : *hau**tse*** -> *hau**sten***

*ehor**tzi*** -> *ehor**zten***

*zorro**tz*** -> *zorroz**tü*** -> *zorro**zten***

Zentzüaz :

Adb. : Irakur**ten** *(barnatüz)* J. Cas.

Irakur**tzen** *(axaletik)* “

“IKUSI-KO / -(r)EN”

Aditz partizipio “-KO” edo “-(r)EN”, geroan izanen den egintzarentako erabilirik da :

Adb. : *Joan**en** gira, Ekarri**ko** dügü.*

Zonbait aditzeki bata edo bestea erabil daite :

Adb. : *Ikusi(r)**en** dük / ikusi**ko** dük.*

*Jin**enko** -> jin**eko** (Santa Grazin eta Eskiulan)*

"-N" edo "-L"z ürrentzen diren aditzek bekan “-KO” atzizkia hartzen düe :

Adb. : *Hil**en**, egin**en** (Xib. ez hilgo, egingo).*

**-** Adizki trinkoen aspektua :

Ez düe aspektu-markarik, erabilten da egintza puntualaz ari delarik :
Adb. : *Pello eskolalat* ***badoa*** *(orai berean)* trinkoa
*Pello eskolalat* ***joaiten da*** *(ohidüraz)* perifraztikoa

Trinkoa "betikotarzünaren" erraiteko erabil daite ere :
Adb. : *Hori mündü orok bad**aki**. (denboratik kanpo)*
*Hori mündü orok j**aki**n dü. (denbora batez)*

**-** Adizki trinkorik ez düen aditzeki, “ARI IZAN” aditza baliatzen da punktualitatearen agertzeko :
*Adb. : Pellok txülüla joiten dü. (ohidüraz, üsantxaz)*
*Pello txülüla(ren) joiten **ari da**. (orai berean)*

**-** Ipuin, historia, istorio kontatzeko, aspektu oraialdi **bürütüa** erabilten da.
Adb. : *Ohoina banketxean sar**tü** da, leihoxkala hüllan**tü***
*eta han zen gizonari diharüa oro har**tü**.*

**-** Aspektu bürütüaren egiteko beste moldeak :
Adb. : *Egin **üken** düt Pariseko ützülia. (igarankorreki)*
*Joan **izan** niz Pariserat. (igarangaitzeki)*

**-** “-RIK” :
Adb. : *Libürüa irakurri**rik** diat.*
*Ikusi**rik** izan da. (ikusi-TA / A, bekan Xib)*

Aspektu ez bürütüaren egiteko beste bide zonbait :

**-** “OHI” :
Adb. : *Astelehenez joan **ohi** dü merkatzale.*

Aspektu gerokoaren egiteko beste bide zonbait :

**-** “BEHAR” :
Adb. : *Joan **behar** dü. Jin **beharra** da. (geroaldi hüllana)*
*Zer egin **behar** düzüe gaur ? = Zer egin**en** düzüe gaur ?*

**-** “-T(Z)ERA” :
Adb. : *Pastorala hast**era** da / doa. (gero. hüilana)*

**-** “-T(Z)EKOA / IZAN, ÜKEN” :
Adb. : *Pello ji**tekoa** da. (gero. hüilana)*
*Oskiak eros**tekoak** dütü. ( “ )*
*Hori gaur ikus**teko**(a) da ( “ )*

- “-T(Z)EKO IZAN / ÜKEN / EGON / BARATÜ” :
Adb. : *Lana egi**teko dago**, egi**teko baratü da**, egi**teko dü** (ez da eginik)*

**1**. 3 **Aldia**, *(denbora) :* aditzaren erran nahia noiz agitü den agertzen dü :
- lehen, orai, gero -> zen, da, dateke
- alegiazkoa edo hipotetikoa -> denboratik kanpo -> balitz

| | *NOR* | *NOR-NORI* | *NOR-NORK* | *NOR-NORI-NORK* |
|---|---|---|---|---|
| | ni | ni hari | nik hura | nik hura hari |
| Igarana / lehenaldia | nintzen | nintzeion | nüan | neion |
| Oraia / oraialdia | niz | nitzaio | düt | deiot |
| Geroaldia *(arkaikoa)* | nizate(ke) | nitzaikeo | düket | deikeot |
| Alegiazkoa / hipot. | banintz | banintzeio | banü | baneio |
| Baldintzazkoa *(oraia)* | nintzate(ke) | nintzeikeo | nüke/niro | neikeo |

Üsü denbora eta aldia ber mailan agertzen dira, salbü ez beti :
Adb. *Maia* ***atzo*** *(denbora nozionea :* ***igarana****) heltü* ***da*** *(tempus :* ***orai****)*

**1.** 4 **Modua :** aditzak nola adierazten düan izantza edo egintza
mintzazaleak egintzaz düan ikusteko manera agertzen dü :

Adb. : *Pellok sagarrak erosi* ***dütü****. (errailea segür da)*
*Pellok sagarrak erosi* ***lütüke****. (omen, ümen)*
*Pellok sagarrak eros* ***detzake*** *(erraileak uste dü erosten ahal dütüala)*

"-KE" dügü seinale nausia "ustea" edo "ahal izatea"ren entzünarazteko.
aspektu gerokoa ere erabil daiteke :
Adb. : *Non da Pello ? Maiak jakin****en*** *dü = badaki****ke****.*

**1.** 5 **Pertsona :**

Egintzaren subjektua nor den erraiten deigü.

| | | |
|---|---|---|
| NOR | DA | *Pello jin* ***da*** |
| NOR-NORI | ZAIT | *Pello (eni) jin* ***zait*** |
| NOR-NORK | DÜT | *Nik Pello ikusi* ***düt*** |
| NOR-NORI-NORK | DEIOT | *Nik Pellori sagarra eman* ***deiot*** |

Aditzan, zentzürik zabalenean, hiru pertsona ager daite : NOR, NORI, NORK.

Pertsona markak nonahi atzamaiten dira :

| Hatsarrean | | | Erditan | | Ürrentzean | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| NOR ETA NORK | | | NORI | | NORK | |
| Ni | Nik | N | Eni | -T | Nik | -T |
| Hi | Hik | H | Hiri | -K(a) / -N(ña) | Hik | -K(a) / -N(ña) |
| Hura | Harek | D *(orai)*<br>Z *(irag.)*<br>L *(aleg. / irag.)* | Hari | -O | Harek | - |
| Gü | Gük | G | Guri | -GÜ | Gük | -GÜ |
| Zü | Zük | Z | Zuri | -ZÜ | Zük | -ZÜ |
| Züek | Züek | Z ... E | Züer | -ZÜE | Züek | -ZÜE |
| Hurak | Haiek | D *(orai)*<br>Z *(irag.)*<br>L *(aleg. / irag.)* | Haier | -E | Haiek | -E |

Forma inpertsonalak -> 3. pertsona erabilten da. (erdarazko : *ON*, *SE*)

Adb. : *Ezagün **da**.* *Entzüten **da**.*
*Nontik joaiten **da** Maulerat ?* *Ez naü**e** atzamanen.*
*Dio**e** edo erraiten dü**e*** *Irabazi **dügü**.*
*Egün gerlako tresna hanitx egiten dü**e**.*

Denborari eratxeki gaüzetan :

Adb. : *Ebia ari **da**. Ebia **da**. Elürra **ari da**. Elürra **da**. (balio inpertsonala)*

Bena ere :

Adb. : *Ebi egiten **dü**. Aize / elür egiten **dizü** (NORK ?)*
*Iñaziz ari **da**. (NOR ote ?) Ortzi edo pertsona mitiko bat... !*

**1.** 6 **Zonbata :** *(nonbrea)*

**-** Plüralgileak :

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| NOR | - Z (TZ)<br>- TZA<br>- TÜ<br>- E | zaio zai**tz**o<br>badoa badoa**tza**<br>düt dü**tü**t<br>zira zira**e**, zid**e** | deigü<br>dabila | dei**z**gü /dei**z**kü<br>dabil**tza** |
| NORI | - E | zitzaio zitzai**e**<br>deio dei**e** | | |
| NORK | - E | deio deio**e**<br>deitz**e** deitze**e** | | |

**-** Mügagabea :

- Hanitx “DA” edo Hanitx “DIRA” ?

Adb. : *Zonbat gizon jin **da** ? Gizon hanitx jin **da**.*
*Zonbat libürü erosi **düzü** ?* *Hanitx erosi **düt***
*5 libürü erosi **düt** / **dütüt**.*

- “ETA” jüntagailüareki alkartü hitzeki plürala erabilten da :

Adb. : *Pello **eta** maia jin **dira**. Pello Maiareki jin **da**.*

- "BALIO üken, KOSTA izan, PEZÜ üken" :
Adb. : *Libürüak ehün euro balio* ***dü*** *= ehün euroko balioa dü.*
Bena : *Etxe horrek miliu**ak** balio **dütü** ( miliuak = objektu züzena )*

- "PARE BAT" singülarra erabilten da :
Adb. : *Oski pare bat erosi **düt**.*

- "ELIBAT" / ELI BAT
Adb. : *Sagar **elibat** erosi **dütüt** (plüral arina)*
Bena : *Bide bazterrean ardi **eli bat** alan ikusi **düt**. (saldo txipi bat)*

Iraünpena erran nahi düen aditzeki : "IRAÜN, EGÜRÜKI, KOSTA IZAN..."
Adb. : *Gerlak urte**ak** eta urte**ak** iraün **züan**.*
*Treina oren**ak** egürüki **düt**.*
*Izerdi ederr**ak** kosta **zait** etxe horren egitea.*

## 2. ADITZ LAGUNTZALEAK :

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| IZAN | da | zaio | zen | zeion | balitz | lizateke |
| ÜKEN / *EDÜN | dü | deio | züan | zeion | balü | lüke |
| *EDIN | dadin | dakion | ledin | lekion | daiteke | zaitekean |
| *EZAN | dezan | diz(*a*)on | zezan | ziz(*a*)on | dezake | zezakean |

Oharra : IZAN eta *EDÜN aditz nausi eta lagüntzale izaten ahal dira :
Adb. : *Pello **joan da** eta libürüa **erosi dü**. (heben "**da / dü**" lagüntzale dira)*
*Hau Jon **da**, zortzi urte **dü**. (trinko) (heben "**da / dü**" aditz nausi dira)*

Lagüntzalea orokorki :

| | | ***Indikat.*** | | | | ***Subj.*** | ***Ahal.*** | | | ***Agint.*** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | KE | | | | KE | | | |
| Oraia | Nor | da | lizateke | Geroaldi arkaikoa | date(ke) | dadin | daite(ke) | | zite | bedi |
| | N-Ni | zaio | litzeikeo | | zaikeo | dakion | ditakio | daitekeo | zakitzo | bekio |
| | N-Nk | dü | lüke | | düke | dezan | dezake | diroke | ezazü | beza |
| | N-Ni-Nk | deio | leikeo | | deikeo | diz*a*on | dizakeo | | iz*a*ozü | biz*a*o |
| Igarana | Nor | zen | zatekean | | | l/zedin | zaitekean | zitekean | | |
| | N-Ni | zeion | itzeikeon | | | lekion | zitakion | | | |
| | N-Nk | züan | zükean | | | zezan | zezakean | zirokean | | |
| | N-Ni-Nk | zeion | zeikeon | | | ziz*a*on | zizakeon | | | |
| Alegia | Nor | balitz | lizateke | | | baledi | leite(ke) | | | |
| | N-Ni | balitzeio | litzeikeo | | | balekio | leikio | | | |
| | N-Nk | balü | lüke | | liro | baleza | lezake | liroke | | |
| | N-Ni-Nk | baleio | leikeo | | | baliz*a*o | lizakeo | | | |

**2-** 1 **Indikatiboa : IZAN, *EDÜN** *(ÜKEN)* **lagüntzaleak** *(aditza aspektuareki)*

Igaraneko adizkiek "-(a)N" hartzen düe ürrentzean.

"-T " pertsona marka, hitzaren erditan -TA edo üsü -DA bilakatzen da :
Adb. : *Dei**t** -> dei**t**azü, zenei**t**an, hündü**d**an...*

"-K " eta "-N" pertsona markak hitzaren erditan "-A-" eta "-ÑA-" bühürtzen dira :
Adb. : *Güntü**a**n, güntü**ña**n.*

NOR adizkiek "-KE " edo "-TEKE " itxüra hartzen düe : lizaTE(KE)

"-E" plüralgileak (NORI, NORK) "-KE " ondotik ezarten dira :
Adb. : *Leike**ee** (haiek haier), litzake**e***

"-KE " gabeko adizkiak *(ikus indikatiboko taula azken ostoetan)*.

**"-KE" dün adizkiak :**

- Geroaldia : *(arkaikoa, eta kultu izan gabe, Xiberoan hanitx erabilirik) :*
Adb. : *Date(ke), zaikeo, düke, deikeo*

- Alegiazkoa, ustezkoa :
Adb. : *Bihar Pello pausüko dateke, aisina düke. (itxüra erabilienak).*
Adb. : *Lagüna joan zaikeo, leküa hüstü deikeo.*

- Baldintzazkoa : ondorio oraian eta ondorio igaranean

| | *balitz* | *balitzeio* | *balü* | *baleio* |
|---|---|---|---|---|
| **1. oraia** *alokutiboa* | lizateke lüke-k/n/zü | litzeikeo litzikeo-k/n/zü | lüke like-k/n/zü | leikeo likeo-k/n/zü |
| **2. igarana** *alokutiboa* | zatekean züke-a/ña/zü-n | litzeikeon zitzikeo-a/ña/zü-n | zükean zike-a/ña/zü-n | zeikeon zizkeo-a/ña/zü-n |

**2-** 2 **Subjuntiboa :**

Subjuntiboa : *EDIN eta *EZAN lagüntzaleeki erabilten dira :

NOR, NOR-NORI" -> *EDIN
Adb. : *Nahi nüan jin **zedin** eta joan **lekion** ikustera.*

NOR-NORK, NOR-NORI-NORK" -> *EZAN
Adb. : *Nahi diat Pellok ikus **dezan** eta erran **dizaon**.*

Subjuntiboko adizkieki aditzoina erabilten da, aditz nausiak ez dü aspektu markarik
Adb. : *Nahi diat **sar** hadin eta **ikus** dezaan.*
*Nahi diñat **sar** hadin eta **ikus** dezañan.*

Noiz erabilten da subjuntiboa ?

- Helbürüzko perpauseki :
  Adb. : *Ekarri di(zü)t libürüa **irakur** d**eza**zü**n**.*

- Gogoa edo nahia (opa, agiantza) zentzüko perpausetan :
  "NAHI ÜKEN, KOMENI IZAN, ONTSA IZAN, HON LIZATEKE"
  Adb. : ***Ontsa da** müsika irakatsirik izan **dadin**.*
  ***Nahi** züan joan **gintean**.*

- Aginte edo manüzko perpausetan, 1. eta 3. pertsonen ez da atzizkirik, hortako subjuntiboko oraia erabilten da. 1. pertsonako adizkiek "N" hartzen düe, 3. ekoek "-LA" :
  Adb. : *Egin dezagü**n** besta !*
  *Lan hau ürrent dezada**n** lehenik, gero ikusiko.*
  *Jin ditea**la** eta lagünt gitzae**la** !*

**2-** 3 **Ahalera :** *(Potentziala)*

Ahaleran *EDIN eta *EZAN dira aditz lagüntzaleak :
"NOR, NOR-NORI" -> *EDIN,
"NOR-NORK, NOR-NORI-NORK" -> *EZAN
  Adb. : *Daiteke, ditakio, leiteke; dezake, dizakeo.*

Ahaleran aditzoina erabilirik da :
  Adb. : ***Eros** daite(ke)= Erosten ahal da.*
  ***Sal** detzake = Saltzen ahal dütü*

Ahaleran adizkiek "-KE" hartzen düe *(Xib. : daite / daiteke)*

| | *Nor* | *Nor - nori* | *Nor - nork* | *Nor – nori - nork* |
|---|---|---|---|---|
| or.<br>alok. | jin daite(ke)<br>jin dite-k/n/zü | joan ditakio<br>joan ditakio- k/n/zü | har dezake<br>har dizake- k/n/zü | eros dizakeo<br>eros dizakio- k/n/zü |
| Ig.<br>alok. | jin zitekean<br>jin zitake-a/ña/zü-**n** | joan zitakion<br>joan zitakio-a/ña/zü-**n** | har zezakean<br>har zezake-a/ña/zü-**n** | eros zizakeon<br>eros zizakio- a/ña/zü-**n** |
| hip.<br>alok. | jin leite(ke)<br>jin lite(ke)-k/n/zü | joan leikio<br>joan likio- k/n/zü | har lezake<br>har lezake- k/n/zü | eros lizake(i)o<br>eros lizake(i)o- k/n/zü |

Hipotetiko hau zonbaitek baldintzazko geroaldia deitzen düe.

**2-** 4 **Baldintzazkoa ahalezkoarekin** : adibide zonbait

| | ***Nor*** | ***N-Nori*** | ***N-Nork*** | ***N-Ni-Nk*** |
|---|---|---|---|---|
| **<u>Bald. aleg.</u>** | **balitz** | **balitzeio** | **balü** | **baleio** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *Etxerik parti**tü*** | *balitz, lanealat* | *hel**türik** / hel**tzen** / helt**ü*** | ***zatekean*** |
| *Etxerik parti**türik*** | *balitz, lanealat* | *hel**tzen** / hel**tü*** | ***zatekean*** |
| *Etxerik parti**tzen*** | *balitz, lanealat* | *hel* | ***daiteke / leiteke*** |

| | ***Nor*** | ***N-Nori*** | ***N-Nork*** | ***N-Ni-Nk*** |
|---|---|---|---|---|
| **Bald. erreala** | (orai.) bada | bazaio | badü | badeio |
| | (irag.) bazen | bazeion | bazüan | bazeion |

*Etxerik partit**ü** bada, lanealat helt**ü(rik)** edo hel**tzen** **dateke** edo **lizateke***
*Etxerik parti**tzen** bada, lanealat hel **daiteke** edo **leiteke***
*Etxerik partit**ü** bazen, lanealat helt**ü(rik)** edo hel**tzen** **zatekean***
*Etxerik partit**ü** bazen, lanealat hel **zaitekean***

| | ***Nor*** | ***N-Ni*** | ***N-Nk*** | ***N-Ni-Nk*** |
|---|---|---|---|---|
| **Bald. gertagarria** | baledi | balekio | baleza | baliz(a)o |

*Etxerik parti baledi, lanealat hel **daiteke** (oraia)*
*Etxerik partitü geroz... heltzen ahal da*
*Etxerik parti baledi, lanealat hel **leiteke** (hip.)*

| | ***Baldintza*** | | ***Ondorioa / ahalezko*** |
|---|---|---|---|
| alegiazko igarana | **-tü**+ alegiazkoa | | **-tüko**+ igarana |
| | Hüllan**tü** *(izan)* | balitz | Ikusi / ikusten günü**kean** |
| | Esken**tü** *(üken)* | baleit | har**tüko nüan,** hartü(**tzen) nükean** |
| | Ekarri | baleit | botzik **nintzate(ke)an** |
| alegiazko ez-igarana | **-tuko**+ aleg.*(Xib.gertagarria)* | | **-tüko**+ alegiazkoa |
| | Ji**ten** | balitz | ikus **lezake** (**liro**) |
| | Etxe bat | balü | axolbean **lizate**(**ke**), izan **daite**(**ke**) |
| | Gal | baledi | Ikara jar **leite**(**ke**), jarr**i** lizateke |
| | Eskent / eskentzen | balitzagü | har(**tzen**) **günütüke,** har **ginitiro** |
| ez-alegiazko igarana | **-tü** + alegiazkoa | | |
| | **-tzen** | " | |
| | Erori | bazen | manka**tü zatekean,** manka **zaitekean**<br>manka**türik zatekean**<br>manka**tü zatekean** |
| | Eror**ten** | " | arrunt jeiki **zatekean**, jeik **zaitekean** |
| ez-alegiazko ez-igarana | **-tü** | + oraia | |
| | **-tzen** | " | |
| | **-tüko** | " | |
| | Eror**i** | bada | jeiki**ko da,** jeik **daiteke** |
| | Eror**ten** | " | jeiki**tzen da,** jeiki **lizateke** |

**2**- 5 **Agintera** *(Inperatiboa : Manatzeko / debekatzeko erabilten da.)*

Manatzeko, aditzoina lagüntzalerik gabe erabil daiteke :
Adb. **:** ***Sar*** *!* ***Ützt*** *bakean !* ***Ken*** *hortik !*

- Aditz perifrastikoa :
EDIN eta *EZAN aditz lagüntzaleak erabilten dira.
Aditzoina *(azpektü gabe)* lagüntzaleareki erabilten da :
Adb. : *Sar hadi ! Har ezak !*

- Aditz trinko erabilieneki : "EGON, JOAN, EBILI, JIN, EGIN, EMAN..."

| | |
|---|---|
| *zaude hor ! = egon zite hor !* | *- zoaza etxerat ! = joan zite etxerat !* |
| *(h)abil harat ! = ebil hadi harat !* | *- (h)aigü hona ! = jin hadi hona !* |
| *egileari egiok ! = egileari egin izaok !* | *- emak hor ! = eman ezak hor !* |

**Aginte bereziak** :

| | | |
|---|---|---|
| TO (RI) / NO | **->** har eza-k/n | ***to / no*** *sagar hau* |
| TOTZAK / NOTZAN | **->** har itza-k/n | ***to / notza -n/k*** *sagarrak* |
| ORIZÜ | **->** har ezazü | ***orizü*** *etxeko giltza* |
| ORITZÜ | **->** har itzazü | ***oritzü*** *autoko giltzak* |
| ORIZÜE | **->** har ezazüe | ***orizüe*** *bazkaria* |
| ORITZÜE | **->** har itzazüe | ***oritzüe*** *sagarrak* |

- Manatzeko beste bideak :

| | | |
|---|---|---|
| - Botzareki : | *Bihar* ***jiten / jinen*** *hiz bazkaitera !* | |
| Aholkü emaiteko : | ***Sogin*** *bena ez* ***hunki*** *!* | |
| Debeküa : | *Ez da holakorik* ***erraiten*** *!* | |
| Errandürak : | ***Errak*** *hou !* | ***Errazü*** *bena !* |
| | *Kasü* ***emak*** *!* | ***Sar*** *dakiola !* |

**2-** 6 **Aditz-loküzioak :**

IZENA + "IZAN / ÜKEN" :

| | |
|---|---|
| Bizi izan | behar izan / üken |
| Nahi izan / üken | uste üken |
| Ezin izan / üken | esperantxa üken |
| Ahal izan / üken | damü izan |
| Balio üken | maite üken |

Adb. : J*oan behar* ***izan*** *zaio /  edo  Joan behar* ***üken*** *dü*

| | | |
|---|---|---|
| Bizi izan da | Nahi izan da /dü | Nahi üken dü |
| Bizi da | Nahi da / dü | Nahi dü |
| Bizi izaten da | Nahi izaten da / dü | Nahi ükeiten dü |
| Bizi izanen da | Nahi izanen da / dü | Nahi ükenen dü |

Adb. : *Etxen lüzaz egon ondoan, kanporat joan* ***nahi izaten da / izanen da.***

| | | |
|---|---|---|
| Bizi izan zen | Nahi izan zen /züan | Nahi üken züan |
| Bizi zen | Nahi zen / züan | Nahi züan |
| Bizi izaten zen | Nahi izaten zen / züan | Nahi ükeiten züan |
| Bizi izanen zen | Nahi izanen zen / züan | Nahi ükenen züan |

Adb. : *Pello, eskolan, beti lehena* ***nahi izaten*** *zen.*
*Pello gureki jin* ***nahi izanen*** *zen /* ***nahiko*** *zen /* ***nahi*** *zatekean.*

| | | |
|---|---|---|
| Bizi izanen | *edo* | Bizi**ren** / **ko** |
| Nahi izanen / ükenen | *edo* | Nahi**ko** |
| Behar izanen *(zaio)* | *edo* | **Beharko** zaio / **Behar** zaikeo |
| Behar ükenen *(dü)* | *edo* | **Beharko** dü / Behar **düke** |

Adb. : ***Behar izanen*** *dük jin lagüntzera =* ***Beharko*** *dük jin....*

- ARI IZAN : *(Xib. =* ***erauntsi*** *: igarana)*
  Adb. : *Atzo aize epaiten* ***erauntsi*** *dü (N-Nk : aktiboa).*
  *Pelotakan* ***erauntsi*** *dü*

Ari iza**ten** *(noiztenka)* -> Ari**tzen** *(oraia)* : *Txostakan ari**tzen** da.*
Ari izan**en** -> Ari**ko** : *Bihar kantatzen ari**ko** niz.*

- EZIN + "IZAN edo ÜKEN" :
  Adb. : ***Ezin hiz*** *eneki jin.*
  ***Ezin dük*** *erosi autorik ez badük sosik.*

- AHAL + "IZAN edo ÜKEN" :
  Adb. : *Ikustera joan* ***ahal izan*** *hitzaio, ikusi* ***ahal üken*** *dük.*

- IZENA + "EGIN edo EMAN edo HARTÜ" :
  Adb. : *Hitz egin. Ele erran (elerran)*

Izena mügagabean da eta ezin da mügazale edo izenondorik ezar artean :
Adb. : *Hitz egin* (*Hitz**a** egin* ) *Hitz* ***lüzea*** *egin* ezin da erran*.

Haboroxeak NORK motakoak izanik ere ez düe objektürik, izena bera hala da.
Salbü : "Hüts egin" : ***Treina*** *hüts egin düt.*

Aditz-loküzio horietarik hanitx lexikalizatürik dira, hots hitz bat bezala erabilirik.
Zonbaiti, ezezkoan partitiboa hartzean, erranahia kanbiaten zaie :

| | | |
|---|---|---|
| *Ez dü ostatüan* ***lo egin*** | *->* | *Ez dü gelarik hartü ostatüan.* |
| ***Ez*** *dü* ***lorik egin*** *ostatüan* | *->* | *Gela hartü düke bena ez dü begirik zerratü.* |
| *Ez dü treina* ***hüts egin*** | *->* | *Ordütan heltü da treinaren hartzeko.* |
| ***Ez*** *dü* ***hütsik egin*** *diktaketan* | *->* | *Hitzak oro xüxen idatzi dütü.* |

Aditz-loküzio hauk üsüan "EGIN, EMAN eta HARTÜ" aditzeki eginik dira :

| | | |
|---|---|---|
| Adb. : *aments egin* | *hitz eman* | *loak hartü* |
| *erri egin* | *min eman* | *alkar hartü* |
| *leher egin* | *pot eman* | *min hartü* |
| *üko egin* | *sü eman* | *parte hartü* |

## **2-** 7 **Aditz berezi zonbait :**

**-** “NOR eta NOR-NORK” motakoak :

| | **IZAN** | **ÜKEN** *(edün)* |
|---|---|---|
| Sartü | *Barnerat sartü* ***niz*** | *Egürra sartü* ***dü*** |
| Elki | *Kanporat elki* ***niz*** | *Lilia kanpo elki* ***düt*** |
| Jeiki | *Jeiki* ***niz*** | *Haurra jeiki* ***düt*** |
| Hasi | *Pastorala hasi* ***da*** | *Lana hasi* ***dü*** |
| Ürrentü | *Pastorala ürrentü* ***da*** | *Lana ürrentü* ***dü*** |
| Igaran | *Treina igaran* ***da*** | *Zübüa igaran* ***dü*** |
| Ments (falta) | *Pello ments* ***da*** | *Haurrak ama ments* ***dü*** |
| Kanbiatü | *Pello autoz kanbiatü* ***da*** | *Pellok autoa kanbiatü* ***dü*** |
| Heltü | *Berria heltü* ***da*** | *Pellok berria heltü* ***dü*** *(helarazi dü)* |
| Eman | *Ardoari eman* ***da*** | *Ardoa eman* ***dü*** |
| Deitü | *Deitzen* ***da*** *Pello (izenez)* | *Txakürra deitzen* ***dü*** |
| Jarraiki | *Txakürra jarraiki* ***da /zaio*** | *Legea jarraiki* ***dü*** |

Bazkaltü, aihaltü eta bere bürüaz ari delarik *(bühürkarian)* : duxatü, mainatü, beztitü, ürrinonstatü **izan** erabilten da jokatzeko.

- “NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK” :

Irabazi *:* *Zozketan irabazi* ***düt*** *Pelotan Pello****ri*** *irabazi* ***deiot***
Erri egin *:* *Pitxureki erri egin* ***dü*** *Südürreala erri egin* ***deio***

- “NORA(T)” galtatzen düen aditzak :
*(pertsonalki subjektuaren leküz kanbiatze delarik) :*
Joan, jin, igan, eratsi... **IZAN** erabilten da : *Bortütik eratsi* ***da.***
Ezkontü, bildü... : *Barkoxerat ezkontü* ***da.***
Adb. : *Gaü oroz etxerat biltzen* ***da.***

- “ZEREZ, ZERTAZ” galtatzen düen aditz zonbait :

| | | | |
|---|---|---|---|
| Baliatü | jabetü | ardüratü | ohartü |
| Akitü | aspertü | kanbiatü | damütü |

Adb. : *Lagüne****z*** *baliatü, lane****z*** *akitürik / aspertürik.*

- Aspektu berezi zonbait :

“KOSTATZEN = KOSTA (DA), KOSTATÜKO = KOSTAKO”
Adb. : *Hanitx* ***kosta / kostatzen*** *da Pariseko ützülia.*

“FALTATZEN = FALTA (DA), FALTATÜKO = FALTAKO”
Adb. : *Pellok aterkia heben ahatze dü, bihar* ***faltako*** *zaio, ebia ari balinbada.*

- “-ETSI”

| | | |
|---|---|---|
| Aski**etsi** : askitako üdüritü | Ederr**etsi** : edertzat hartü | Gaitz**etsi** : txartzat hartü |
| Gor**etsi** : ohoratü | Güti**etsi** : mespretxatü | Haüt**etsi** : haütagarri |
| Hon**etsi** : hon üdüritü | Hob**etsi** : hobe üdüritü | |

**2-** 8 **Adizki jokatügabeak :** *(aldi marka eta pertsona markagabeak )*

- Aditzoina : [- ASP.] *(aspektu gabe)*
  Adb. : ***sar**, **bil**, **ikus**...*

Noiz erabil aditzoina ?

- Manatzeko *:* ***Igi** hortik ! **Ütz** isilik ! **Ken** hortik !*

- Galto *(erretorikoetan)* zonbaitetan :
  Adb. : ***Nola** sinets gizon hori, hatsa oro gezürra dü ? **Nori** fida ?*

- Erran zahar, errefrauetan :
  *Adb. : Otsoa **non** aipa, **han** gerta. I**kus** eta **sinets**.*

- Zeihar galtoz edo harridüraz
  *Adb. : Ez dakigü **nontik** sar ! Bada **zer** ikus ! / ?*

- Zonbait posposizioreki : *Eros **aitzinean** ikusi nahi düt.*
  *Ikus **arte** ez düt sinetsiko.*
  *Irabaz **ahala** igorten dü.*

- Zonbait errandüratan : *Lotsa nük **eror**.*
  *Zer agi(t) ere.*
  *Xaha eta xaha ari da.*

- Zonbait hitz alkartütan : *Sal eros -> salerospen*
  *Har eman -> harreman*

**2-** 9 **: Partizipioa :**

Zonbait aldiz partizipioa eta aditzoina ez dira aisa berexten.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Adj. | | Eroria<br>Eroriak<br>Ezkontüa | *Bago eroriala laster egürkariak.*<br>*Sagar eroriak bildü ditizü.*<br>*Gizon ezkontüa. Soldado hila* |
| Adb. | -(r)IK<br>-(e)Z<br>-(e)AN | Aspertü(**r**)**ik**<br>Irakurri**z**<br>Jakin(**e**)**an** | *Lanez aspertü(**r**)**ik** da.*<br>*Irakurri**z** hanitx ikasten da.*<br>*Ez niz berri horren jakin(**e**)**an**.*<br>*Jakin(**e**)**an**, ez nintzan jinen* |
| Izena | | Errana (erlatibo llabürra)<br>Jana,edana | *Aitaren errana ohartzen zait.*<br>*Jana eta edana ükenen dütük.* |
| Beste | ERDI+part.<br>LEHEN+part.<br>AZKEN+part.<br>Partiz.+BERRI | **Erdi** hautsea<br>**Lehen** jina<br>**Azken** sartüak.<br>Sortü **berria** | *Godalet **erdi** hautsea urtuki düt.*<br>***Lehen** jina hartü dü.*<br>***Azken** sartüak borta zerra beza.*<br>*Sortü **berria** amarekin da.* |

Posposizio zonbaiteki :
  Adb. : *Joan **gabe** lana ürrentü dü.*
  *Erosi **aitzin** musa ikertü dü.*
  *Erran **ondoko** / **baiko** dolütü zaio.*

Errandüra zonbait :

Adb. : *Ez ikusi**a** (**rena**) egin dü.*
*Ikusi-mikusi nik ikusi...*
*Egünak jin egünak joan, beti aize epaiten ari da.*
*Erran**ak** erranik.*

## **2-** 10 **Aditz-izena :**

Aspektü bürütügabetik moldatzen da :

| | | | | | | | Izena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adb. : | *jin* | **->** | ***jin*** | **->** | *ji**ten** (ken **n**)***->** | | *jite* |
| | *sar* | **->** | *sar**tü*** | **->** | *sar**tzen*** | *“* **->** | *sartze* |
| | *zahar-* | **>** | *zahar**tü*** | **->** | *zahar**tzen*** | *“* **->** | *zahartze* |

- Kasü haboroxeetan deklinatzen da :

| | |
|---|---|
| Zer ? | *Maite diñat berant jeiki**tzea**.* |
| Zerk ? | *Bortüan ebil**teak** hon egiten ditazü.* |
| Zeri ? | *Eda**teari** üko egin dioat.* |
| (Part.) | *Ez dük ene istorioetan südürraren sar**tzerik**.* |
| Zeren ? | *Auher bizi**tzearen** alte nündükezü.* |
| Zertaz ? | *Pattako ja**tez** laster ase nintek.* |
| Zereki ? | *Hire ikus**teareki** Maiari begia argitü ziok.* |
| Zer(en)gatik ? | *Ohointza egi**teagatik** ttettetegian sakatü diñe.* |
| Zertan ? | *Eüskararen ikas**ten** ari düzü.* |
| Zertarik ? | *Begira hadi gezürraren errai**tetik**.* |
| Zertara ? | *Ikus**tera** joan ziozü.* |
| Zertarano ? | *Ehai**terano** mizpira salda eman deio.* |
| Zertarako / noizko ? | *Zure hel**tzerako** lana ürrentürik zikezüen.* |

- Aditz-izenaren erabilteko beste manera zonbait :

“T(Z)E + KO (KE) = ... GABE” :

Adb. : *Lana ürren**tzeko** baratü ziek.*

“T(Z)E + RA (AR)” = arrunt agitü beharra :

Adb. : *Elki**tzera** nündüan = Elkitzera abiatzen nintzan*

“T(Z)E + KO ZORIAN” = agitzeko püntüan :

Adb. : *Biziaren gal**tzeko zorian*** edo **menean**
*(hil zorian = hiltzeko püntüan )*

- Düdazko kasüak aditz zonbaiteki :

- “AHATZE” :

Adb. : *Irakur**ten** ahatze düt. (ez dakit haboro irakurten)*
*Irakur**tea** ahatze düt. (ez zait ohartü irakurtea)*

- “JOAN, JIN, EBIL” :

Adb. : *Kanta**tzera** jin niz. (Zertara ? Helbürüa)*
*Kanta**tzez** jin niz. (Nola ? Manera)*
*Kanta**tzen** jin da (ez Xib.) Kanta**n** jin da . (Nola ? Manera)*

- “AISA DA, GAITZ DA, NEKE DA, GOXO DA” :

Adb. : *Lan horren egi**tea** aisa da. (Nola da lan horren egitea ?)*
*Lan hori egi**ten** / **egin** aisa da. (Nolakoa da lan hori ?)*

- “ÜTZI” :
  Adb. : *Ikas**ten** ützi düt. (etxerik joan nizalarik ikasten ari zen)*
  *Ikas**tera** ützi düt. (ikasten ari dadin ützi düt bakean)*
  *Ikas**tea** ützi düt. (ez niz haboro ikasten ari)*

**2-**11 **Gerundioa :**

Eüskaraz, berez, ez da gerundiorik. *( Lafitte-k infinitibo deklinatüa deitzen dü)* *"participe présent",* “gerundio" *(konkomitantzia).*

**-** “-T(Z)EN” Zertan ari *(iharduera) :*
  Adb. : *Aita Egünkariaren irakur**ten** ari da.*

**-** “JOAN, JIN, EBILI”-eki instrümentala erabilten da *(Nola ?) :*
  Adb. : *Mina handi**tzez** joan ziozü.*

**-** “-Z, -AZ” instrümentala, erraiteko :

**-** Bidea, medioa, arartekoa :
  Adb. : *Borta hauste**z** sartü da.*
  *Nola bildü düzü auto hori ? Ontsa pakatü**z**.*

- Manera, modua :
  Adb. : *Bürüaren hazka**tzez** gogozkan hasi zen.*

- Manera eta aurrekotasuna *(lehenik),* “**eta**” jüntagailüaren ordez :
  Adb. : *Makila aida**tüz** mehatxatü züan.*

- Kausa, ondorioa :
  Adb. : *Ikusi**z** eri zela, pausüan ützi züan.*

- Xehetarzün emaiteko *(azalpenezkoak) :*
  Adb. : *Berant heltü düzü erran**ez** errota zilatü zaiola.*

**-** “-TA / DA” *(Züb. : ... ETA edo -(R)IK)*
  Adb. : *Lana egin **eta** joan da / lana eginik joan da.*
  *Kanpoan nahi**rik** barnen da.*
  *Nahi**ta**(**ra**) egin balü, ez züan hobeki eginen.*

**-** “-(e)AN” *(Non ? Zertan ?)* : mügatü singülarra
  Adb. : *Jakin(e)**an** isilik egonen nündüzün.*
  *Ikusi nahi**an** nüzü.*

**-** “-KI” *(güti Xib.) :*
  Adb. : *Pello merkatzale joa**ki** atzaman düt.*

**-** “-LA(RIK)” :

- Denbora :
  Adb. : *Bortütik eraixten ze**la** istripü bat üken dü.*

- Manera :
  Adb. : *Hor da gizon bat paper bat esküetan düa**la**.*

**-** “-KA” *(Izenareki moldatü gerundioa, arrapika erran nahi dü) :*
Adb. : *Gaü osoa eztül**ka** igaran dü.*

**-** “-KA” *(aditzari ere lotzen ahal zaio) :*
Adb. : *Beti joan-jin**ka** , dei**ka**, hel**ka** ari da.*

**2-** 12 **Aditz arazleak :** *(faktitiboak)*

Eüskara zaharrean -RA- artizkia erabilten zen arazleen egiteko :

Ekarri -> e-**ra** -karri ikasi -> i/e-**ra** -katsi jaiki -> e-**ra** -iki
Eman -> e-**ra** -man ikusi -> i/e-**ra** -kutsi ebili -> e-**ra** -bili
Edan -> e-**ra** -dan ebaki -> e-**ra** -baki etzan -> e-**ra** -tzan...
Egin -> e-**ra** -gin

Lehenago arazle ziren haboroxeak ez dira egün arazle bezala ekarririk.

Aditz haboroxeak “-ARAZI” atzizkiareki erabilten ahal dira :

**-** “-ERAZI” *(üsü Xib.),* “-ARAZI” *(Eüskaltzaindiaren aholküa),*

Aditzoinari xüxenka lotzen zaio, aspektu-marka ondotik ezarten da :
Adb. : *Pette jin**arazi** / -**arazten** / -**araziko** düt.*

Aditz-lagüntzalea kanbiatzen da, beste pertsona bat agertzen da :
Adb. : *Ni jin niz -> ni**k** jinarazi düt.*

Ortografiaz :
Beti aditzari lotürik idazten da :
Adb. *: Erran**arazi**, ikus**arazi**...*

Zonbait aditzeki -T- artekari bat ezarten da :
Adb. : *Ager(**t)arazi** / ager**razi**, sor(**t)arazil** / sor**razi** ...*

Ürrentzean "A" düen aditzen kasüan, "A" bakun idazten da :
Adb. : Arrapika -> arrapik**arazi**, antola -> antol**arazi**

**-** “-T(Z)ERA BEHARTÜ / BORTXATÜ” arazle bezala erabilirik dira :
Adb. : *ji**tera** bortxatü / behartü naüe.*

**2-** 13 **Aditzarekilako partikülak :** aditz-multzoko osagaiak

“**BA**-“ eta “**EZ**”

**-** “BA-“ aurrizkia BAI partikülatik horra da, egiazkoa edo baiezkoa segürtatzen dü :
Adb. : *Hori **ba**dakit. Sos **ba**düzü.*
Trinkoeki ere erabilten da :
Adb. : *Pello bidean **ba**dabila. **Ba**goatzak aidearen hartzera.*

**-** “EZ” partikulak ezezkoa segürtatzen dü :
Lagüntzalearen aitzinean ezarten da, artean ez da beste osageirik sartzen ahal, salbü BEIT- aurrizki menpegailüa :
Adb. : ***Ez** deiot gütüna eman **ez beit**üt ikusi.*

- EZIN partikulak ahalik gabea erran nahi dü :
  Adb. : *Nik **ezin** düt lan hori egin (ez düt egiten ahal)*

**Partikula modalak :**

**-** “AHAL” :

- Galto erretorikoetan *(arrapostüa isiltürik lükean galto erretoriko batetan) :*
  Adb. : *Ez **ahal** dakik nor nizan ? (segür ere badakik nor nizan)*

- Ustekeria edo suposizionea :
  Adb. : *Pette hor **ahal** dük. (uste diat Pette hor den)*

- Gogoaren edo nahiaren agertzeko, opazkoa :
  Adb. : *Ez **ahal** hiz ebi ari eta kanpo joanen !*

**-** “OTE” galtazaleak düda edo ustekeria zerbait agertzen dü :
  Adb. : *Pette jin **ote** dük ? (Pette egiaz jin dea ?)*
  *Ba **ote** dakizü txakür hau norena den ? (badaezpadan)*

**-** “OTEAN” : “OTE” beno azkarrago
  Adb. : ***Otean** jo nahi naüzü ?*

**-** “EMEN / ÜMEN / OMEN” : Mintzazaleak beste norbaitenganik entzüna erraiten dü, errana ez da egiaztatürik, ez da segürtzat emanik :
  Adb. : *Ezantza goititüko **emen / ümen** da. (dioe)*

**-** “OHI” = üsantxa dü :
  Adb. : *Joan **ohi** zen / züan. Eman **ohi** züan. Egin **ohi** dü.*
  *Deitü **ohi** da (üsantxaz deitürik da)*

**-** "-A" atzizkia adizki jokatüari lotzen zaio galtoaren egiteko :
  Adb. : *Pello jin da ? = Pello jin de**a** ?*

**2-** 14 **Adizki alokutiboak** *(üsü Züb.) :* **toka / noka / züka /** *(berori : ez Züb.)*

“**HI, HIK**” singülarra 2. pertsona -> egintzaren egarle edo egile da
  Adb. : *Hi jin **hi**z.*
  *Hik libürüa ekarri dü**k** (**2.** pertsona soila)*

**ZÜ, ZÜK**” leheneko plüraletik *(omen)* **2.** pertsona **->** egintzaren **egarle** edo **egile da**
  Adb. : *Zü joan **z**ira.*
  *Zük sagarrak erosi dütü**zü***

Aldiz, alokütiboan, “**To**”, “**No”** eta “**ZÜ**” solaskidea **ez da** egintzaren **egarle** edo **egile**
  Adb. : *Pette jin dü**zü**. Gük libürüa erosi di**zü**gü*
  *(**zü** güti bat ospetsü, Xib. üsü emazteekin)*

“**HI**”ka alokutibo hontan solaskidea **ez** da egintzaren **egarle** edo **egile**
  Adb. : *Pette jin dü**k**. Libürüak erosi diti**k*** (solaskidea gizon)
  *Pette jin dü**n** .Libürüak ekarri diti**n*** (solaskidea emazte)

“**Hi**”kako “**k**” eta “**n**” marka hauk aditzan hurtürik edo zerratürik direlarik **->**
“**a**” eta “**ña**” bilakatzen dira.

**-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-**

# V. PERPAUS BAKUNAK

## 1. PERPAUS BAKUN MOTAK :

### 1- 1 Galtozko perpausak :

- "ZATI GALTOA" aditzaren aitzinean ezarten da. Galtoa ezezkoan delarik, galtazalea "EZ" partikularen aitzinean ezarten da :

Adb. : ***Nork*** *eman deizü libürü hori ?* ***Nork ez*** *dü libürürik ?*

- "HAÜTÜ GALTOA" :

Adb. : ***Non*** *bizi zira, Maulen* ***ala*** *Akamarren ?*

- "ARRAPOSTÜA, BAI edo EZ" düen galtoak :

Adb. : *Badakizüa eüskara ?* ***Bai / Ez****.*
*Ba* ***ote/ ahal*** *dakizü eüskara ?* ***Bai / Ez****.*

### 1- 2 Aitormen perpausak : adierazpenak, *(déclaratives)*

- "BAIEZKOAK" : Subjektua + osagarria + ADITZA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Adb. : | *Pellok* | *honttoak* | *jan dütü.* | *(marka-gabe)* |
| | *Pello* | *etxerat* | *joan da* | |

- "EZEZKOAK" : Subjektua + EZ + lagüntzalea + osagarria + ADITZA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Adb. : | *Pello* | *ez* | *da* | *gureki* | *jin* |

### 1- 3 Aginte perpausak : *(manatzeko)*

Adb. : ***Ago*** *hor !* ***Ez*** *dezazü****la*** *holakorik egin !*
***Sar*** *dite****ala*** */* ***bite*** *!*

### 1- 4 Harridürazko perpausak : *(lotsa, kezka, mespretxüa)*

**-** "ERAKUSLE eta ERAKUSLEETARIK" elkitakoeki : *(lekü, modu aditzondoeki)*

Adb. : ***Hau*** *da gizona !* ***Hau*** *da hotza !*
***Hanko*** *herotsa !* ***Holako*** *auherrik (isiltürik : ez da) !*

**-** GALTAZALEEKI :

Adb. : ***Zoin*** *eijer den elürra bortüan !*
***Zer*** *handi den !*
***Nola*** *debrü bizi hola !*

- BAIEZKOAK : "BAI ... -LA !", "BA- ... -LA !" *(konpletibo itxüra)*

Adb. : ***Bai****, ontsa kantatzen düa****la*** *!*
*Hau* ***bai*** *gogor de****la*** *!*
***Ba****ze****la*** *jente atzo Maulen !*

- EZEZKOAK :

  - "EHE !" edo "EHE DDIA !" : *(ükatze azkarrago)*

  Adb. : *Pette jin dea ? –* ***Ehe*** *!*

- "EZ ETA ... ERE !"
Adb. : *Ekarri düzüa libürüa ?* ***Ez eta*** *pentsatü* ***ere*** *!*
*Ikusi düzüa Pello ?* ***Ez eta*** *ikusi nahi* ***ere*** *!*

- "EZ ..."
Adb. : ***Ez*** *günüan güti erri egin !* ***Ez*** *hiz asto ttipia to, hi ! (eufemiko)*
*Kexü,* ***ez*** *zeitana makilaz eskentü !*
***Ez*** *dezaala arrapostürik eman pürü ! (hik)*

- "EZ ... –NEAN" :
Adb. : *Bürüa hautse* ***ez*** *düa****nean*** *! (ederretarik ezkapi da)*
*Etxea osorik erre* ***ez*** *de****nean*** *! (zorionez ez da erre)*

- "EZETZ EZ / BAIETZ ... -LA" *(Xib. "EZETX EZ / BAIETX ... –LA") : (parioa, desafioa)*
Adb. : ***Ezetx*** *ez hiza****la*** *hurealat jauzten !*
***Baietx*** *jauzten niza****la*** *!*

**-** "EA ... -N / -NEZ" : *(esperantxa, nahia)*
Adb. : ***Ea*** *noiz jinen zire****n*** *ikustera !*
***Ea*** *irabaziko düzü****nez*** *txapelketan !*

**-** "ESKERRAK ... –N" ! *(züb. üsü : "ESKERRAK / BEHAR ERE ...BEIT-!") : (zoriona)*
Adb. : ***Eskerrak / behar ere*** *jin* ***beit****zira lagüntzera !*

**-** "ARRAPIKATZEAK" : *(igaranaz damü, dolü...)*
Adb. : ***Pello*** *zen gizona,* ***Pello*** *!* ***Jakin*** *banü,* ***jakin*** *!*
***Erri*** *egin günüan, bena* ***erri*** *!* ***Ikusi*** *bazünü,* ***ikusi*** *!*

**-** "ERLATIBOA" : harridüra
Adb. : *Hau denbora dügü****na*** *!*
*Bildü düda****n*** *kaska !*
*Hau mozkorra bildü dügü****na*** *!*

**-** " ...ETA" :
Adb. : *Nola irakurriko dü hori ? Irakurten ez jakin* ***eta*** *! (ez daki* ***eta*** *! )*
*Nola entzün dü hori ? Gor dük* ***eta***

**-** "ERE" : aditz-izen edo partizipioareki
Adb. : *Han agitzea* ***ere*** *!*
*Güri agitü* ***ere*** *!*
*Horren erraiteko* ***ere*** *!*

**-** "-REN " atzizkiareki :
Adb. : *Gure gizona****ren*** *kexüa !*
*Bizitzea****ren*** *gogorra !*

**-** "Hitz INDARGARRIAK" : "GERO"
Adb. : *Asegarria hiz* ***gero*** *!*
*Afrika zabal da* ***gero*** *!*

**-** “Hitzen LEKÜA” :
Adb. *: Gizon galanta zen **Pello** !*

**-** Aditza ISILTZEZ :
Adb. : *Pello, ainain eijerra !*
*Baratxügaitza, hi !*

**-** INTERJEKZIO ZONBAIT :
*To ! Ai ! Oi ! Hou ! Atx ! Atx hou ! P(h)ue ! E(i)a !*

Errandüra indargarriak :

*Alajinkoa ! Debrüak bola ! Debrüak eraman !*
*Mila debrü ! Ene fedea ! Sar balekio ! Alatürik goihena !*

**2. PERPAUSEN EGINDÜRA** *(hitzen leküa)* ***:***

- Marka-gabeko perpausa :

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Subj. | os. zirk. | zeih.obj. | obj.. xüx. | aditz nausi | ad. lag. |
| | I | I | I | I | I | I |
| Adb. : | *Ama**k*** | *merkatü**an*** | *Maia**ri*** | *hontto**ak*** | *erosi* | *deitzo* |

- Bestelan hitzen ordrea aski libre da eüskaraz :
Adb. : *Pette etxen da / Pette da etxen / Etxen Pette da / Etxen da Pette.*

- **Mintzageia** *(tema) :* Bi solaskidek, elestan ari direlarik, güti edo hanitx ezagützen düen geia.

- **Galtageia** da solaskideak jakin nahi lükean xehetarzün edo informazionea.

- **Irazkina** edo **Iruzkina** (“*rema” / "mot de valeur"* / "*terme requis*") da arrapostü txerkatüa, xehetarzün edo informazione berria.

Irazkina üsüenik aditzaren aitzinean ezarten da :

| | |
|---|---|
| *Aitak sagarra **haurrari** eman deio. Nori ?* | *(haurrari, ez beste norbaiti)* |
| *Aitak haurrari **sagarra** eman deio. Zer ?* | *(sagarra, ez iranja; edo marka-gabe)* |
| *Haurrari sagarra **aitak** eman deio. Nork ?* | *(aitak, ez amak)* |
| ***Eman deio** sagarra aitak haurrari. Zer egin dü ?* | *(eman, ez saldü) ...* |

**.-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-**

# VI. PERPAUS ALKARTÜAK

## 1. JÜNTATÜAK

**1-** 1 **Alpetüak** *(alpean ezarriak)* *(**Alboratüak**)* **:** *(juxtaposées)*

**-** EMENDIOZKO alpetzea : 2. perpausak aitzinekoak errana emendatzen dü.

"EZ ... EZ ..." :
Adb. : ***Ez** dü jaten, **ez** dü edaten, eritüko da.*

"BAI... BAI..." :
Adb. : *Etxahun **bai** sortü, **bai** bizitü, **bai** hil da Barkoxen.*

"...-LA,...-LA" :
Adb. : *Sar dadi**la**, elk dadi**la**, borta beti zabalik üzten dü.*

"EZ ... BAIZIK, ... ERE" :
Adb. : ***Ez** haurrak **baizik**, aitetamak **ere** han ziren.*

**-** HAÜTÜZKO alpetzea :

"EDO...,EDO ..." :
Adb. : *Ez da jin, **edo** eritü da, **edo** zerbait agitü zaio.*
***Edo** sar hadi, **edo** leküa hüts ezak.*

"ALA...,ALA ..." :
Adb. : ***Ala** kanpoan, **ala** barnen txapela beti bürüan dü.*
***Ala** arrunt egin, **ala** geroko ützi, ez zakian zer egin.*

**-** AITZIKAKO alpetzea : aurkaritzakoa

"ALDE BATETIK ..., BESTETIK ..."
Adb. : ***Alde / Gainti batetik** maite nüke Jaguar baten ükeitea, **bestetik** norek paka harek behar düan ezantza ?*

"BATAK ..., BESTEAK ..."
Adb. : ***Batak** ontsa bizi dira, **besteak** gosez hiltzen dira.*

**-** KAUSAZKO alpetzea : **"NOLAKO ..., HALAKO..." :**
Adb. : ***Nolako** nausia, **halako** mitila.*
***Nolako** zura, **halako** ezpala. (nolakoa beita zura halakoa da ezpala)*

- "NON..., HAN..." :
Adb. : ***Non** aipa, **han** gerta.*
*Txakürrak **non** mina, **hara** mihia (non beitü mina, hara mihia)*

**1-** 2 **Emendiozko jüntagailüak :** “**eta**” *(ber heineko, ber motako bi osagei jüntatzen dütü).*

- “JÜNTAGEIAK” :

* Bi perpaus :
Adb. : *Pette lanean etxen egon da* ***eta*** *Maia merkatzale joan.*
*Ez düzü lanik egin,* ***eta*** *nahi düzü paka zitzagün ! (kontzesibo)*

* Bi ber kasü-markako edo bi izen-sintagma :
Adb. : *Pellori* ***eta*** *Maiari ez deiet deüs erran.*
*(salbü halere) Noiz* ***eta*** *non agitü den ez dakit.*
*Nork* ***eta*** *zertako eginik izan den ez dakit.*

**-** “SALBÜESPENAK” :

Pertsona izen-ordarieki :
Adb. : *Zük* ***eta*** *nik lan hori eginen dizügü.*

Erakusleeki :
Adb. : *Honek* ***eta*** *horrek txapela badüe. eta* ***ez*** *: “hau eta besteak”*

Singülarrean :
Adb. : *Lan horren egiteko gogoa* ***eta*** *indarra behar* ***da****.*
*Sükaltea* ***eta*** *sargia erraztatü düt.*

Plüralean -> Kasü-marka bietan ezarten da edo ez 2. osageian baizik :
Adb. : *Libürü**ak eta** dizko**ak** Etxart libürütegian saltzen dira.*
*Libürü **eta** dizko**ak** Etxart libürütegian saltzen dira.*

Zerrendatzean -> kasü-marka azken osageiari lotzen zaio.
Adb. : *Gizon hau bere gatü, txakür, oilo **eta** mandoar**eki** bizi da.*

Posposizioeki -> Biek kasü-marka har dezakee, edo ez azkenak baizik :
Adb. : *Soldatetan emazte**en eta** gizon**en arteko** ezbardintarzüna bada.*
*Soldatetan emazte **eta** gizon**en arteko** ezbardintarzüna bada.*

**-**“AKORDIOA” : "**eta**"ren bidez alkartü osageien jüntadüra plüraltzat hartzen da bi osageiak singülarrean izanagatik. *(komunstadura = akordioa)*
Adb. : *Pello **eta** Maia elerran di**ti**at merkatüan*

Halere, ez da beti hola agitzen :

- Jüntatüak perpaus osoak direnean, jüntadüra ez da plüraltzat hartzen :
Adb. : *Bortüan ebilte**a eta** aide freskaren hartze**a** maite **düt**.*
*Erran **deit** jinen dela **eta** lanean lagüntüko naüala.*

- Jüntatüak sinonimo edo üdürikoak direnean *(ez da egiazko emendiorik),* bigerrenak zehazten edo osatzen dü lehena :
Adb. : *Gizon horrek imur hon**a eta** arraileri**a badü**.*

- Aditza aitzinean ezarten delarik :
Adb. : *Pellok jauntsi **dü** atorrapeko**a**, atorr**a eta** trikot**a**.*

**-** Izen zonbakaitzeki : *(kontatzen gaitz direnak)*
Adb. : *Saldak piperra* ***eta*** *gatza ments* ***dü*** *edo piper* ***eta*** *gatz ments* ***dü****.*
*Hau* ***eta*** *hura erran* ***deit****. (errandüra berexi zonbaitetan...)*

**-** "OSAGEI ISILTÜAK" *(sous-entendus)* ***(ezabaketak)***
Aditz osoa isiltzen delarik -> üsü azken jüntageiko aditza isiltzen da :
Adb. : *Nik sagarra janen diat* ***eta*** *hik intzaurrak.*

Esküineko aditz lagüntzalearen isiltzea :
Adb. : *Ama deitüko diat* ***eta*** *erran dütüanak kontatüko.*
*Pellok ez dü pipatzen ez* ***eta*** *edaten.*

Ezkerreko aditz lagüntzalearen isiltzea :
Adb. : *Lana ürrentü, etxen sartü, aihaltü* ***eta*** *oherat joan da.*

Adizki jokatügabeeki :
Adb. : *Gaur has* ***eta*** *bihar ürrentzea uste dizüt.*

Azken jüntageiaren isiltzea *(galtzea) :*
Adb. : *Pello* ***eta*** *jiten badira, borta zabal izaezü.*

"eta" indartzeko eta menperagailü gisa ere erabilirik da :
Adb. : *Jin* ***eta*** *egar ahala eman deio.*
*Behin* ***eta*** *berriz...*
*Harat* ***eta*** *honat ebilten da.*
*Nahiz* ***eta*** *aberats den, ez da bihotz hon. (kontzesibo)*

**1-** 3 **Jüntagailü haütakariak :**

-"EDO" : orobata edo bardintarzüna, haütüak ez dü muntarik *(importance).*
Bi sinonimoren jüntatzeko :
Adb. : *Barbalot ttipi hori andde kottagorri, marigorri* ***edo*** *kattalingorri da.*

Zonbatzale zehaztüeki :
Adb. : *Sei* ***edo*** *zazpi gizonek hor lan egin dü(e).*

Galto zonbaiteki :
Adb. : *Nork* ***edo*** *zerk libürü hori desegin dü ?*

Jüntageia isiltürik, ez jakin xüxen zer edo nor den.
Adb. : *Pettek* ***edo****... lan hori ürrentüko dizü.*
*Pettek* ***edo****... lan hori egin düke.*
*Gaüko hamarrak* ***edo****... ziren... (nonbait han)*

**-** "ALA..., (A)LA... " : haütüak munta badü, jüntageiak alkarren baztergarri dira : *(galto perpausetan da haboroenik erabilirik.)*
Adb. : *Erosketak Maulen* ***ala*** *Atharratzen egiten dütüzü ?*
*Maulen* ***edo*** *Atharratzen. (haütü horrek ez dü muntarik ).*

Azken jüntageia isiltürik harridürazko zentzüareki :
Adb. : *Ez naüka ezagütü* ***ala*** *! (mütürra egiten deitak ?)*
*Ez düka ogia erosi(****a****)****la*** *!*
*"Andozeko ibarra oi* ***ala*** *ibar lüzea !"*

**-** “eta” jüntagailüaren pareko *(zoinahi) :*
Adb. : *Gazteek **ala** zaharrek denek maite züen Pelloren ümore hona*
*Gazteek **nola** zaharrek denek maite züen Pelloren ümore hona*

**-** Akordioa : *(komunztadura)*
Adb. : *Pello ... **ala** hi joanen **hiz** amaren txerkara ?*
*Pello (joanen da...) **ala** hi, joanen hiz amaren txerkara ?*
*Pello **ala** hi joanen **zidee** amaren txerkara ?*
*Pello joanen da, ala hi, amaren txerkara ?*

**1-** 4 **Jüntagailü aurkariak** *(kontrazaleak)* : **BENA, BAIZIK**
Kontrajarriak diren bi perpaus jüntatzen dütü eta üsüan kakotx bat ere ezarten da.

- BENA :
Adb. : *Nahi zen jin, **bena** aitak ez dü ützi. (jitera)*
*Ez da merke, **bena** bai eijerra.*
*Pellok ontsa egin dü, **bena** Maiak hobeki. (egin dü)*

- BAIZIK :
Adb. : ***Ez** da gaixtoa, **baizik** astoa.*
***Ez** da nahi ez düdalakoz, **baizik** ezin düdalakoz.*
***Ez** niz gaur joanen, bihar **baizik**.*

2. **MENPERATÜAK :** *(subordonnées)*

**-** Menperatzean perpausak batak besteetan enpeltatzen dira :
Adb. : *Zureki de**n** gizona / ez **beit**üt ezagützen, nahi dizüt bihar zureki jin **dadin***

**2**-1 **Konpletiboak :** *(üsüenik NOR / ZER galtoen arrapostüak)*

**-** Zeihar galtoak :
Adb. : *Galtaltü deit badüdane**z** sosik ostatüalat joaiteko.(zeihar galtoa)*
*Galtatü deit : "Badüka sosik ostatüalat joaiteko ?” (galto xüxena)*
*Ez dakit jinen den**ez** -> arrapostüa **Bai** edo **Ez**.*
*Galtatü deiot jinen den**ez** -> arrapostüa **Bai** edo **Ez**.*
*Galtatü deit nor jin de**n** -> arrapostüa ez da **Bai** edo **Ez**.*

**-** “Sinesten”,” pentsatzen”,”ohartzen”, “erraiten”, “aitortzen” erran nahi düen aditzeki : aitormenekoak *(déclaratives)*

“-LA” : aditz nausia baiezkoan delarik :
Adb. : *Erran dioat ikustera joanen nitzaio**la.***

“-NIK” : aditz nausia ezezkoan delarik.
Adb. : ***Ez** dioat erran ikustera joanen nitzaio**nik***
*(nitzaion**ez** : J.Cas.)*

Lotürak menpeko lagüntzaleareki nola egiten dira :

| | | | |
|---|---|---|---|
| -LA / -NIK | - GÜ<br>- ZÜ<br>- E<br>- A<br>- GO<br>- O | dügü**la**<br>deiozü**la**<br>düe**la**<br>de**la**<br>dago**la**<br>zaio**la** | dügü**nik**<br>deiozü**nik**<br>düe**nik**<br>de**nik**<br>dago**nik**<br>zaio**nik** |
| -DALA / -DANIK | - T | deitzo**dala** | deitzo**danik** |

**-** "Düdazkoak" : düda düt, üdüri zait ...
Adb. : *Düda düt jinen de**la*** edo *de**nez**.*
*Üdüri zitak jinen de**la***

**-** "Nahiküntea" agertzen düen aditzeki : *(nahi, manatü, galtatü, opatü, otoiztü, aholkatü...)* + **Sübj**.
Adb. : *Nahi / otoiztü düt jin **dadin***

**-** "Lotsa" edo "beldürra" erran nahi düen aditzeki
*(aditz nausia baiezkoan)*, aditza konpletiboari + "...-LA" / "...-N" / Sübj.
Adb. : *Lotsa niz jinen de**la***
*Lotsa niz jin **dadin***
*Badiat lotsa jinen de**n***
*(aditz nausia ezezkoan)*, konpletiboa + **Sübj.** üsüenik
Adb. : *Ez niz lotsa ohoinak etxen sar **ditean***

- "Debeküa" erran nahi düen aditzeki : begiratü, epantxatü...
Adb. : *Debekatü deiot ez **dezan** holakorik egin (helbürüzko)*

Erran daiteke ere : *Debekatü deiot **jitea***
*Epantxatü düt lan horren egi**tetik***
*Begira hadi zankoen hor sar**tzetik***

**-** "Sendimentüaz" ari diren aditzeki : botzik niz..., plazer diat...

- subjuntiboareki : Adb. : *Botzik nük jin **hadin** -> hire jiteak bozten nik*
- kausa : Adb. : *Botzik nük jin **be**hiz* (*beit hiz)*

- Aditz inpertsonalen konpletiboak : "nahia", "beharra"... zentzüko aditzeki, "hobe izan...", "hon izan...", "xüxen izan...", "konbeni izan...", +**Sübj.**
Adb. : *Xüxen da gure mintzajearen borroka **gitean***

- Segürtamen edo egiaztatze *(constatation)* zentzüko aditzeki : "ageri da...", "ezagün da...", "bistan da...", "erran gabe doa..."
Adb. : *Sagüak dantzan, **ageri da** gatüa ez de**la** hor*

**-** Historiako gertakizün batez mintzatzen delarik
Adb. : *Ordüan agitü zen Karlos Handia heltü ze**la** Iruñera eta hiria erre züa**la***
*Ordüan agitü zen Karlos Handia heltü **beit**zen Iruñera eta hiria erre **beit**züan.*

## **2**- 2 **Erlatiboak** : ***(izenlagün balde dira : "-REN, -KO")***

Perpaus osoa izenlagün delarik erlatiboa erabilten da

Adb. : *Sükalte**ko** mahaina ederra da* = *Sükaltean de**n** mahaina ederra da*

*Pello**ren** txakürra gorrail da* = *Pellok düa**n** txakürra gorrail da*

Jin de**n** **potikoa** ene anaia da *(ondokoa)*

***Le garçon*** ***qui*** *est venu* *est mon frère (antécédent)*

- "-**N**" : hau dügü erlatibozko perpausetan atzizkirik erabiliena, aditz lagüntzaleari edo trinkoari eratxekitzen zaio

  Adb. : *Adesa ikusi dügü**n** gizona Mauleko da*

  *Adesa ikusi dügü**na** ezagützen düt* (ondokoa üsü isiltürik da)

Aditza igaranean delarik testüngürüak erraiten dü erlatiborik badenez :

Adb. : *Erosi günütüa**n** sagarrak honak ziren ( -**n** igarana eta erlatiboa*)

*Erosi günütüa**n** sagarrak, honak ziren (-**n** igarana baizik ez da)*

- Erlatiboaren mügak

*(1) Pellok pirripita erosi **dü**.(*menp.)

*(2) Pirripita gorri **da**.*(nausitzekoa)

} *Pellok erosi düa**n** pirripita gorri **da***

Lehen perpausa 2.ean enpeltatzen dügü, "pirripita" ez da behin baizik agertzenperpaus nausian *(ondokoa / antécédent ).* Menpekoa izanen den perpausean arrapikatzen den osagai *(élément)* isiltzekoa deitzen da.

*(1) Lagüna**reki*** (isiltzekoa) *jan **düt**.*

(2) *Lagüna* (ondoko bilakatzekoa) *erakasle **da**.*

} *Jan düda**n** lagüna erakasle **da**

*Hau **ezin** da*

Erranaldi hontan ikusten dügü bi perpausen alkarretaratzean, **isiltzekoa noreki** kasüan deklinatürik, erranaldia ez-gramatikala agertzen dela eta bestalde errailea "gizajale" dela.

Beraz ikus dezagün **isiltzekoak** erlatibo bühürtzeko zoin kasütan izan behar düan :

- Isiltzekoa eta ondokoa **ber** kasüan -> erlatibo egin **aisa** da :

*Bortü**an** izan gütüzü.*

*Han* (bortüan) *ardi badüzü.*

} *Izan gire**n** bortü**an***

*ardi **badüzü***

- Isiltzekoa **Nor**, **Nork**, **Nori** kasüan **->** erlatiboa egin **aisa** da

*Adb. :* Gizon bat *jin da, mintzatü nitzaio*

*-> Jin de**n** gizonari mintzatü nitzaio*

*Lagün**ak** deitü naü, haren etxen izan niz*

*-> Deitü naüa**n** lagünaren etxen izan niz*

*Lagun**ari** autoa erosi deiot, hareki jan düt*

*-> Autoa erosi deioda**n** lagünareki jan düt*

**-** Lekü / denborazko kasüeki : zonbait aldiz aisa da, aditzak berak isiltzekoa zoin kasütan den argitzen düalarik (egon non, jan non, jin nontik, joan norat)

Adb. : *Pello egoiten da mendi**an**, hantik horra niz*
*-> Pello egoiten de**n** menditik horra niz*
*Atzo izan niz ostatü**an**, han janen düt gaur*
*-> Atzo izan niza**n** ostatüan janen düt gaur*

**-** Erlatiboa aposizionean

Adb. : *Zühaintze horren kükülа-kükülan de**n** **txori beltz** hori belea da*
-> ***Txori beltz hori,*** *zühaintze horren kükülа-kükülan de**na,** belea da*

**-** "-NEKO" = -N + (e)KO Isiltzekoa NON, NOIZ kasüan eta ondokoa beste kasü batetan deklinatürik delarik, "-N" menperagailüari "-KO" lotzen zaio

Adb. : *Aita gerlatik ützüli ze**neko** egüna ez düt sekülan ahatzeko.*
*Gazte denboran bizi nintza**neko** herria orai hütsik da.*

**-** "-TAKO" (-RIKO")

Adb. : *Zük igorri**tako** gütüna (ez Xib.)*
*Zük igorri (düzü**n**) gütüna üken düt (Xib.)*

**-** "ZOIN / NOR ... BEIT... (ERE)"

Adb. : *Haur hau, **zoini** orai güti ama hil **beit**zaio (**ere**), amañirekin da.*

**2-** 3 **Kausazkoak (zergatia) : zirkunstantzialak edo adizlagünak**

- "-LAKO (Z)" :
  Adb. : *Merke de**lakoz** erosi düt*

- "-ETA" :
  Adb. : *Etxen egon da bürüan min züan **eta** (güti Xib.)*

- "BEIT- (BAIT-)" :
  Adb. : *Eri **beit**a ez da jin*

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| "BeiT" | + da =T | -> | *Bei**t**a* |
| "BeiT" | + gira =K | -> | *Bei**k**ira* |
| "BEIT" | + zira =TZ | -> | *Bei**tz**ira* |
| "BEIT" | + niz =N | -> | *Bei**n**iz, bei**n**aü* |

**-** "NAZ GEROZ" , "NAZ GAINEN" , "NEZ" :

Adb. : *Eri de**naz geroz** ohean egon dadila.*
*Aberats de**naz gainen**, ez dü sos beharrik*
*Aberats de**nez** ez dü lagüntza beharrik*

- "-LA MEDIO" *(honarentako)*

Adb. : *Hi hiza**la medio** pelotan* irabazi *diagü. (hiri esker)*

- "-LA ETA"

Adb. : *Edanik ze**la eta** ez düe autoaren hartzera ützi*
*Bürüan min züa**la** (**eta**) ez zen kantaldialat joan*

- "-LA KAUSA" *(txarrarentako)*

Adb. : *Hi hiza**la kausa** pelotan* galdü *diagü (hire ogenez)*

- “-T(Z)EAGATIK”
  Adb. : *Zalegi ebil**teagatik** erori da*

- “ZEREN (eta), EZI, EZEN”
  Adb. : *Txakürra galdü dizüt **zeren** (**eta**) ez nizün estekirik*

- “-N BER”
  Adb. : *Sos düa**n** **ber** zernahi erosten dü (denb. zentzüa)*

- “-NEAN “ *(konj. ines.)*
  Adb. : *Erraiten düda**nean** sinets nezazü (denb. zentzüa. Laf.)*

**-** Aditz jokatü gabeeki : *(üsüenik denborazko zentzüa düe ere)*

| | |
|---|---|
| Ad.-iz. + instr. : | *Plazer düt zure ikuste (**a**)**z*** |
| " " + ines. ark. : | *Ikuste**n** **eta** nola den, ütz ezazü isilik* |
| " " + dat. / abl. : | *Zahartze**alat** / Zahartze**ari** ez da beti zentzatzen* |
| " " + soz. : | *Amaren hüilantze**arekin** haurra erriz hasi da* |
| Aditz partizipioa *:* | *Entzüleek galtatü**rik** berriz kantatü züan* |

- Izenlagüna + instrümentala :
  Adb. : *Boztario**z** nigarra begian züan*

**2-** 4 **Kontzesiboak** :

Kontzesiboetan menpeko perpausak epantxüa edo traba entzünarazten dü, bena epantxü hori ez da aski perpaus nausiko egintzaren epantxatzeko.

**-** “ARREN” *(güti Xib.)* -> aditza + lagüntzalea + -N + ARREN
  Adb. : *Pakatü* (naüa**n**) ***arren** ez düt lan hori eginen*
  *Aberats izan **arren**, ez da emaile*

**-** “BA... ERE” -> aditza + (ez) BA...ERE
  Adb. : *Sinesten ez **ba**düzü **ere** egia düzü*
  *Uste **ba**düzü **ere** ez düzü egia*

- NAHIZ ETA... + lagüntzalea + -N edo “NAHIZ EZ...+ lagüntzalea + -N
  Adb. : ***Nahiz eta** libürü hori gustatzen zaita**n** ez düt erosten ahal.*
  ***Nahiz ez** de**n** gaztelüa maite düt nik sorleküa...(Elizanburu).*

***- “-**AGATIK”+ (ERE) :*
  Adb. : *Besta izan**agatik** (**ere**) lanean ari da*

**-** “ETA / (-TA)” edo “-(r)IK + ERE”
  Adb. : *Besta izan **eta** / izan**ta** lanean ari da*
  *Besta izan**ik** **ere** lanean ari da*

**-**“GABE (ERE)” :
  Adb. : *Zük deüs erran **gabe** banakizün*
  *Aberats izan **gabe** auher bizitzeko... (Ligetx)*

**-** “-NA ... -LA / -(r)IK”
  Adb. : *Nahi düa**na** erran deza**la** nik hola segitüko düt*
  *Nahi de**na** jin**ik** ez deiot borta zabaltüko*

**-** "KOSTA AHALA KOSTA / BEHAR DENA KOSTARIK"
Adb. : *Lan hau **behar dena kostarik** gaur ürrentü behar düt*

**2-** 5 **Helbürüzkoak :** Zerta(ra)ko : helbürüa, xedea edo asmüa entzütera emaiten düe

**Aditz izeneki**

-"-T(Z)ERA" :
Adb. : *Eüskararen ikas**tera** jin niz (joan, jin...aditzeki)*

-"-T(Z)EKO" :
Adb. : *Ontsa bizi**tzeko** osagarria behar da*.

-"-T(Z)EKOTAN / -T(Z)EKO XEDETAN / ASMÜTAN"
Adb. : *Heben bazkari**tekotan** jinik niz*
*"Pello ... eta Maia ... ezkon**tzeko xedetan** dira (kridak)*

**-** "-T(Z)EAGATIK" edo "-T(Z)EARREN" *(güti Xib.) :*
Adb. : *Zureki egoi**teagatik** jin nüzü (Züb. üsüago : Zureki egoi**teko**)*

**Subjuntiboareki :**

-Menperagailürik gabe :
Adb. : *Ekarri deinat libürüa irakur **dezañan***

**-** AMOREGATIK ETA / NAHIZ (ETA)
Adb. : ***Amoregatik eta** eüskara bizi **dadin** eüskara erabilten düt*

**Partizipioareki :**

**-** NAHIZ / BEHARREZ
Adb. : *Amarenganat joan **beharrez / nahiz** haurra nigarrez ari da*

**Beste :** Adb. **:** *Behar lüke norbait lagüntza**le***

**2-** 6 **Ondoriozkoak : kausazkoaren hüilan, gütiago erabilirik**

**-** "HAIN / HAINBESTE ... (NON) ... BEIT..."
Adb. : ***Hainbeste** jan dü orai lo **beit**a ( non orai lo den )*
***Hain** gaizki mintzatzen da (**non**) ihork ez **beit**ü entelegatzen*

- Aditz-iz. + "-KO" *(lek.gen.) :*
Adb. : *Ez da aski azkar harri horren altxatze**ko***

**-** Aditz-iz. + "-RA ARTINOKO" (müg.adl.) :
Adb. : *Ehaite**ra artinoko** kaska eman deio.*

**-** "-KO GISAN / MANERAN / HEINEAN" :
Adb. : *Iraüte**ko heinean** lanean ari hadi*

**2**- 7 **Baldintzazkoak *(kondiziozkoak) :***

Perpaus nausian adieraziak izan behar badü, menpeko perpausaren baldintzak bete behar lüke.

**Aditz itxüra jokatüeki :**

**-** "BA-" *(alegiazkoa, suposizionea, ustezkoa, üdüripenezkoa) :*
Adb. : *Ontsa izan **ba**litz gureki elkiko zen edo elki zaitekean*
*Jiten **ba**da botzik nizateke*

**-** (BALDIN BA-)" : *(Xib. : balinba lotürik = agian, heltübada edo ere segür ere)*
Adb. : *Jiten **balinba**da borta zabaltüko deiot*

- "NON EZ + lagüntzalea + -N" :
Adb. : ***Non ez** niza**n** eritzen, bihar merkatzale joanen nük*

- Lagüntzalea + -N BER :
Adb. : Jiten de**n ber** botzik nüzü

**-** Bi baldintza *(hipotesi)* + subjuntiboa :
Adb. : *Txapela ezar **dezaan** ala buneta enetako bardin dük*

**-** Baldintzazkoa beste gisaz :
Adb. : *Abia zite**,** jarraikitzen zütüt*
*Ikusten nündüan**,** gordatzen zen*

**Aditz itxüra jokatü gabeeki**

-"-KOZ" :
Adb. : *Egite**koz** arrunt egizü*

-"-KOTAN" :
Adb. : *Joaite**kotan**, orai joan behar dük*

**-** "-Z GEROZ, (BEHIN -Z GEROZ)" :
Adb. : *Ikasi**z geroz**, hori lan aisa da*

**-** Aditz-izena + "-RA" :
Adb. : *Jakite**ra** ez neion deüs erranen*

**-** Aditz-izena + "-Z" :
Adb. : *Aski galtatze**z** emaiten züan*

**-** Part. partitiboan "-RIK" :
Adb. : *Askitan erran**ik** sinesten züan*

**-** "NAHIAGO ...BA" :
Adb. : *Nahiago düt jiten **ba**zira*
*Nahiago düt jin zitean (Xib.)*
*Oharra :* *Hobe düzü gaur heben egoiten **ba**zira (güti Züb.)*
*Gaur heben egonik hobe düzü (konpletiboa)*

**2**- 8 **Konparatiboak :** *(Bardinkazaleak)* : **Konparazioneen, erkatzeen egiteko**

**- Nolakoa :** adjektibo, adberbio edo partizipioeki

**-** Desbardintarzüna A ≠ B -> "-N BENO ...AGO"
Adb. : *Lan hori üdüri düa**n** **beno** gaitz**ago** da*

**-** Bardintarzüna A = B -> "-N BEZAIN"
Adb. : *Gizon hori bidea lüze (de**n**) **bezain** asto da*
*Lüze **bezain** zabal südüraz joan da*

**- Heina** *(zonbat)* **:** "GÜTIAGO, GEHIAGO, BEZAIN BESTE"

**-** Desbardintarzüna A ≠ B -> "-N BENO GÜTIAGO, HABORO"
Adb. : *Nahi düda**n** **beno haboro** lan badüt*
*edo Nahi **beno haboro** lan badüt*

**-** Bardintarzüna A = B -> "-N BEZAIN BESTE / BAT"
Adb. : *Gizon horrek ez dü üdüri düa**n** **bezain beste** sos*

**-** "...-AGO ETA...-AGO, (ZONBAT ETA...-AGO, ORDÜAN ...AGO)"
Adb. : *Tximinoa gor**ago** **eta** üzküa agerian**ago***
*Arrazoa txipi**ago** **eta** (ordüan) orroa handi**ago***

- "...- AZ BESTE, ...(r)EN BESTEKO" -> A -> B
Adb. : *(nolakoa)* : *Ene autoa Pelloren**az** **beste** da*
*(hobe edo txarrago)*
*(zonbata)* : *Ene autoak Pellorena**ren** **besteko** indarra dü*
*(neurgaitzeki, izartzen gaitz)*

**- Bardintarzüna zonbatean :** ZONBAT .... HAINBAT ... -> A = B

Adb. : ***Zonbat** asto, **hainbat** orroa*
***Hainbat** hobe* *(tant mieux)*
***Hainbat** gaixto / sordei(s)* *(tant pis)*

**2**- 9 **Denborazkoak :**

Perpaus nausiko egintza NOIZ gertatzen den, denboraz xehetarzün emaiten düe.

**Aitzinean :**

**-** "BENO LEHEN, AITZIN(ETIK)" :
Adb. : *Jin **beno lehen** edo jin **aitzin** aihaltü niz*

- "ORDÜKO" :
Adb. : *Pello heltü **ordüko** treina igaranik zen*

**Geroan :**

- "ETA (GERO)" :
Adb. *: Aihal* ***eta*** *(**gero**) joan da*

- "ONDOAN" *(ondoren, ostean) :*
Adb. : *Aihal(tü)* ***ondoan*** *joan da*

- "BEHIN ... ONDOAN / -RIK" *:*
Adb. : ***Behin*** *ikusi* ***ondoan*** *(ikusi**rik**) ohartzen zaio*

- "-Z GEROZ" *:*
Adb. : *Ikusi**z geroz** sinesten ahal da*

**Berehalakoan :**

**-** BEZAIN LASTER / ZALE / SARRI :
Adb. : *Heltü* ***bezain laster*** *haurra hüilantü zeion*
*Heltü* ***ordüko*** *bazkaltü zen*

- "ONDOKO :
Adb. : *Heltü* ***ondoko*** *haurra hüilantü zeion*

**-** "ETA BEREHALA **/** ARRUNT **/** SEGIDAN" :
Adb. : *Hel* ***eta arrunt*** *ohean sartü zen*

- "-NEKO" :
Adb. : *Etxera heltü ze**neko** loak hartü züan*

**Ber denborakoan :**

**-** "-NEAN, NOIZ ERE.... BEIT-" *(püntüan)*
Adb. : *Sartü de**nean** denak agurtü dütü (bürütüa)*
*Sartzen de**nean** denak agurtzen dütü (ohidürazkoa)*
*Sartüko de**nean** denak agurtüko dütü (gertatzekoa)*

**-** "-N BATEZ / BATEAN" *(bekanean)*
Adb. : *Ikustera jinen nitzaizü**n batez** libürüa ekarriko deizüt*

**-**"-N ARTEAN /(MEMENTOAN) / BITARTEAN" *(iraünpena)*
Adb. *: Lanean ari niza**n artean** hi aize epaiten ebilten hiz"*

"- NO"
Adb. : Mündü hontan bizi niza**no** nik ez diozüt ez erranen...

"- LARIK / -LA" *(iraünpena) :* kausazko, denborazko
Adb. : *Maulerik horra ze**larik** edo ze**la** arroilan sartü da*

**Üsükoan** *(maiztarzüna)*

"- NETAN" :
Adb. : *Jiten* ***denetan*** *ez da esküak hütsik jiten*

"-N ALDI OROZ / ALDIKAL" :
Adb. : *Jiten de**n aldikal** zerbait ekarten dü*

**Noizko**(**a**)

"-NEKO" :
Adb. : *Gazte nintza**neko** argazkia sakolan düt (igaraneko)*
*Zahartü niza**neko** makila erosi düt (geroko)*
*Oilo de**neko** ostirale*

**Noiztik ?** *(abia püntü batetarik)*

"- NETIK" :
Adb. : *Ezkontü de**netik** lagünak bazter ützi dütü*

"- NEZ GEROZTIK" :
Adb. : *Lana ontsa egi**nez geroztik** nork zerbait erran dezake ?*

**Noiz arte ?** *(hel müga)*

"-ARTE / ARTINO" :
Adb. : *Haurra, ama jin **arte** haidürü egon da*

**Aditz jokatü gabeeki** *(aditz-izenareki)*

"-T(Z)EAN ≠ T(Z)ERAKOAN"

*Maulera hel**tzean** Pello ikusi düt*




*Maulera hel**tzerakoan** Pello ikusi düt*




"-T(Z)EAREKI" : Adb. : *Amaren ikus**teareki** haurrari begia argitü zaio*
"-T(Z)EARI" : Adb. : *Amaren ikus**teari** haurrari begia argitü zaio*
"-T(Z)EALAT" : Adb. : *Zahar**tzealat** ahazkortzen da*

**2**- 10 **Zernolakoak :** "nola ?" *(moduzkoak, manerazkoak)*

**-** "-N BEZALAKO(A)" ≠ "-NA BEZALAKO(A)"
Adb. : *Pelloren autoa zük erran düzü**n** **bezalako**(**a** )da (eijer, zahar, gorri)*
*Pelloren autoa zük erran düzü**na bezalako**(**a**) da (konparazionea)*

**-** "-N BEZALA / MANERAN / GISAN ... "
Adb. *Zankoa hantürik düa**n** **maneran** ez da ebilten ahal*
*Gaurko lana ütziko dügü de**n** **bezala** ürrentü gabe*

- "-N HEINEAN" :
Adb. : *Ahal düda**n** **heinean** lagüntüko haüt*

**-** "HALA-HALA, BEZALA-BEZALA "
Adb. : *Lana ürrentü gabe **hala-hala** partitü zen*
*Lana hik galtatü **bezala-bezala** egin diñat*

**-** "AHALA" + aspektu gabea *(Xib.)* edo partizipioareki
Adb. : *Irakur **ahala** libürü badüt etxen*
*Irabazi **ahala** sos jaten dü*

- "BA... BEZALA" :
Adb. : *Tzakür bat **ba**nintz **bezala** mintzatü zait*

- Konpletibo bidez :
  Adb. : *Gaixo motikoa ikusi düt herresta zebila**la***  *(Lafitte)*
  *Zaküa bizkarrean (züa**la**) zale ebilten zen*

- Instrümentalareki :
  Adb. : *Txostaka**z** ere gaüza hanitx ikasten da*

- Zernolakoak beste gisaz :

| | |
|---|---|
| Partiz. + posp. "ORDE" : | *Bihar lanealat jin **orde** pausatüko hiz* |
| Partiz. + posp. "GABE" : | *Ogia erosi **gabe** etxerat jin zen* |
| Partiz. + posp. "ARAU" : | *Sosa irabazi **arau** geinatzen dü* |
| Partiz. + "-(r)IK" : | *Makila kaldü bat eraiki**rik** hilotz baratü zen* |
| Izenondo + "-(r)IK" : | *Zankoak arin**ik**, zale ebilten zen* |
| Adberbio partizipioa + "-KA" : | *Zernahi erran**ka** ari zeion* |

Aditz aspektu gabea *(zerrendatzean) :*
Adb. : ***Has*** *eta* ***ürrent*** *goiz batez lana egin züan*
***Jin**, **jan**, **joan** hola bizi da gure potikoa*

**-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-**

.

# LOKAILÜAK (Testü mailako lokailüak) :

Testü batetan perpausak nolazpait alkarreki josten dütügü, eta nabardüra zonbait ekarten dü perpaus batak besteareki düan erlazioari.

Adb. : *Hanitx ikasirik **ere** beti ikasteko ükenen dük (kontzesiboa)*

**-** Emendiozko lokailüak :

ere, eta, bai eta...ere, ez eta ere, halaber, segürik, horrez gain, haboro dena, ala... ala..., nahiz... nahiz, ez... ez..., haboroziz...ez, hala nola...

Adb. : *Joan hadi, ni **ere** horra nük*
*Pette ikusi düka ? - E**z eta** ikusi nahi **ere***
*Hik **haboroziz** nik **ez** diagü aski sos auto horren erosteko*

**-** Lokailü haütakariak :

bestelan, bestelan ere, edo, ezpere

Adb. : *Ez igan sagartze hortara **edo** eroriko hiz*
*Har ezak bide hau, **ezpere** galdüko hiz (bestelan...)*

**-** Aitzikako lokailüak *(aurkaritzakoak)* **:** *bena, aldiz, berriz, aitzitik (bena bai), halere, alta, haatik...*

Adb. : *Hi hortik igaraiten hiz, ni **aldiz** hebentik*.
*Aberats dük, **halere** / **bena** / **haatik** ez (dük) emaile.*

**-** Ondoriozkoak : *beraz, ordüan, horregatik, hortakoz,*

Adb. : *Eri hiz **beraz** / **ordüan** ohean egon hadi.*
*Ez zinen hor, **hortakoz** ez düzü ikusi.*

**-** Kausazko lokailüak : zeren, zeren eta, ezi, ezen

Adb. : *Bidean galdü düzü **zeren** (eta) iparrorratza etxen ahatzerik zizün*.

**-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-**.

# EMENDIO ZONBAIT Nahas-mahas

## 1. NOIZ, NOIZTIK, NOIZKO, NOIZ ARTE ....

Noiz : *ostegünea**an**, goiz**an**, bihar, gaüa**z**, daigün urte**an**..*
*egün urte bete -> düala urtea*
*orai berri*

Noiztik *bihar**danik**, beti**danik**, ostegün**etik**, bi ostegün**etarik**...*

Noitzaz geroz, *noiz**tik** (igaranetik)* , *engoitik / orai **danik**, jada, jada**nik***

Noizko (a) *etzi**ko**(a),sarriko(a), beti**daniko**(a), ...*
*id. (geroan) lüza**rako**, betiko**ala** (jiten da), gero**alako**.*

Nora arte /artino
*iganteala **arte**, bihar **arte**, bostak **arte**, egün**dano**.*

Üsütarzünaren :
- Noiz**tik** noiz**tara** *(artetarik, ez üsü)*, noiz**ean** behin *(bekan, ez üsü) ,*
- Noiz**tenka** *(Z¨bb.)* / Noiz **behinka** *(artetarik ez üsü)*
- Urte **oroz** = urte**kal**, urtea jin, urtea joan
- Bigabost**etan** *(üsü)*, berri**tan** *(bi aldiz),* hanitx**etan**, behin, haboroxe**etan**
- Bate**an**... beste**an**..., franko**tan**, urte**an** behin, bost aldiz, aspaldi**an**
- “Aste lüxean” = ez behin ere *(geroan) (à la saint-glin-glin)*
- “Aizerik ez datean astean” = ez sekülan *(geroan) (à la saint-glin-glin)*

| **Ürrün lehen** | **Astean nonbait** | **Ber egünean** | **Hiru egünetan** |
|---|---|---|---|
| Kristo aitzin (K.a) | Igaran egünean | Goiz hontan | Bezperan |
| Kristo ondotik (K.o) | Herenegünago | Adesa / Oixtian | |
| Lehenago | Herenegün | Doi-doia | |
| Igaran mentean | Atzo | | |
| Lehen | Barda | | |
| Nustenean | | | |
| Igaran urtean | | | |

| **Aurten** | **Egün** | **Orai berean** | **Ber egünean** |
|---|---|---|---|
| Daigün urtean | Gaur | Arrunt | Biharamenean |
| Daigün mentean | Bihar | Berehala | Hiru egün barne |
| Daigün menteetan | Etzi | Sarri / Berehala | |
| | Etzidamü | Arrastiri hontan | |
| | Daigün egünetan | | |

**Egünak** : Astelehen, Astearte, Asteazken, Ostegün, Ostirale,
Neskenegün, Igante.

**Hilabeteak :**

| | | |
|---|---|---|
| Urtarrila | Barantaila | Martxoa (Ostaroa) |
| Apirila (Jorraila) | Maiatza (Epaila) | Arramaiatza (Ekaina edo Bagila) |
| Üztaila | Agorrila | Setemere (Bürüila edo Iraila) |
| Ürrieta | Azaroa (Gorotzila) | Abentüa (Negila) |

**1789ko iraültzan hilabeteez erabili hiztegiaz :**

| *Bedatsean* | *Udan* | *Larrazkenean* | *Negüan* |
|---|---|---|---|
| Sapadün | Bihiliz | Mahaste | Elürkor |
| Lilidün | Beroliz | Lanote | Ebikor |
| Belardün | Frütiliz | Izozte | Aizekor |

**Urtaroak :**

Bedatsea Üda Larrazkena - Üdazkena Negüa

**Egünean noiz** :
Ozkorrian *(Azkorrian)* Ortzondoan Argitzirrintan Argitzean Goizan

**Egüerditan**
Arrastiritan Arrastiri apalean Ülüntzirian Argi übeltzean Arratsean Gaüan

**Gaüerditan**

**2. Tenorea / ordüa**

**Orenak**

Egüerdi
Gaüerdi

(minütak) **güti**
(minütak) **ments**
(laurden) **ments**



...**ak** (orenak)
**eta** (minütak)
**eta** (laurden)

**Tenoreaz galto-arrapostüak :**

Zer tenore da ?
*Oren bakoitxa-------------------------da*
*Bost**ak**----------------------------------dira*
*Bost**ak** eta hamar--------------------dira*
*Bost**ak** eta laurden (kart)-----------dira*
*Bost**ak** et'erdi (bost et'erdi) dira --(da)*

*Zazpi**ak** hogei güti edo ments---dira*
*Bi**ak** laurden güti edo ments-----dira*
*Gaüerdi edo egüerdi -------------da*
*Egüerdi et'erdi----------------------da*

Oren zonbakiak deklinatzen dira :
*Bi**ak**, bost**etarik** sei**etara**, zortzi**etan**, egüerdi**tara**, zazpi**en** alte**ala***

**3. Data** Zonbakiak herrokatzen dira eüskal perpausen egindüra ordrean :
2009. 12. 05
2009.eko (2009ko) abentü**aren** 5a
2009.eko (2009ko) abentü**ak** 5
Milakoen püntü edo taka ez da ezarten

**4. Zonbaki : kardinalak, ordinalak, zatizaleak**

| Kardinalak | Ordinalak | Zatizaleak |
|---|---|---|
| 0 - huts / zero | | |
| 1 - bat | lehena | 1.a - bedera |
| 2 - bi | bigerrena | 2.a - bira |
| 3 - hiru | hirugerrena | 3.a - hiruna |
| 4 - lau | laugerrena | 4.a - launa |
| 5 - bost | bosgerrena | 5.a - bosna |
| 6 - sei | seigerrena | 6.a - seira *(Gav.)* |
| 7 - zazpi | zazpigerrena | 7.a - zazpira |
| 8 - zortzi | zortzigerrena | 8.a - zortzira |
| 9 - bederatzü | bederazügerrena | 9.a - bederatzüra |
| 10 - hamar | hamargerrena | 10.a - hamarna |
| 11 - hameka | hamekagerrena | 11.a - hamekara |
| 12 - hamabi | hamabigerrena | 12.a - hamabira |
| 13 - hamahiru | hamahigerrena | 13.a - hamahiruna |
| 14 - hamalau | hamalaugerrena | 14.a - hamalauna |
| 15 - hamabost | hamabosgerrena | 15.a - hamabosna |
| 16 - hamasei | hamaseigerrena | 16.a - hamaseira |
| 17 - hamazazpi | hamazazpigerrena | 17.a - hamazazpira |
| 18 - hamazortzi | hamazortzigerrena | 18.a - hamazortzira |
| 19 - himeretzü | himeretzügerrena | 19.a - himeretzüra |
| 20 - hogei | hogeigerrena | 20.a - hogeira |
| 21 - hogeita bat | hogeita batgerrena | 21.a - hogeita bana |
| 30 - hogeita hamar | hogeita hamargerrena | 30.a - hogeita hamarna |
| 31 - hogeita hameka | hogeita hamekagerrena | 31.a - hogeita hamekara |
| 40 - berrogei (2x20) | berrogeigerrena | 40.a - berrogeira |

41 - berrogeita bat (2x20+1)
50 - berrogeita hamar (2x20+10)
51 - berrogeita hameka (2x20+11)
60 - hiruetan hogei (3x20)
61 - hiruetan hogeita bat (3x20+1)
70 - hiruetan hogeita hamar (3x20+10)
71 - hiruetan hogeita hameka (3x20+11)
80 - lauetan hogei (4x20)
81 - lauetan hogeita bat (4 x20+1)
90 - lauetan hogeita hamar (4x20+10)
91 - lauetan hogeita hameka (4x20+11)

Bederatzügerrena : *9ème*
Bederatzürrena : *neuvaine*
Hamargarrena : *10ème*
Hamarrena : *dizaine*
J. Cas.

| | | |
|---|---|---|
| 100 - ehün | 600 - seiehün | 1000 - mila |
| 200 - berrehün | 700 - zazpiehün | 2000 - bi mila |
| 300 - hiruehün | 800 - zortziehün | 7000 - zazpi mila |
| 400 - lauehün | 900 - bederatzüehün | |
| 500 - bostehün | | |

Adb. : *17535 -> hamazazpi mila bostehün eta hogeita hamabost*

**OHOINTEGI KÜTXA** OK *Eüskal Herrikoa*

*€ eurotan baizik*

*Ordain ezazü txeke honentzat :*
*Mila berrehün eta hamazazpi €uro eta bost zent.* 1217, 05
.......................................................................................................
Hartzedün honi : . *Pette Zapata kauterari*.......................................................

*Ordain leküa :*
*Kontü zonbakia* ***025 40549***
*Zepo karrika 75*
*64570 AKAMARRE*
*TEL. : 05 74 59 05 62*
***4572982 0564320765 855564321***

*Non elki : Maulen*
*Egüna :* 2009 09 07
Maia ETXEBELTZ
64520 AKAMARRE
Eüskal Herria
Izenpedüra :

**5. Eragiketak :** *(opérations)*

| | | | |
|---|---|---|---|
| 22 | 51 | 15 | 15 |
| *(gehi)* + 6 | *(ken)* - 23 | *(aldiz)* x 5 | *(zati)* : 3 |
| *(bardin)* = 28 | *(bardin)* = 28 | *(bardin)* = 75 | *(bardin)* = 5 |

**6. Aroa / Denbora**

Odei - Odei üzürti - Odei gizen
Iñazi - Düründa / ühülgü zaparta - Irurtziria
Ortzadarra

Odeizü **da** Dündü **da** Ateri **da** Atertü **da**
Ebia ari **da** Lano **da** Lanape **da** Argizagi edo argizagite **da**

Ebi *(tzarraka = erauntsi llabür)* egin **dü**,
Elür egin **dü**, Tzitzer egin **dü** *(mgg. erabiliz)*
Ebi / elür / tzitzer / harri egin **dü** edo erauntsia egin **dü**

Odeietarik ebi motak :

Lanoa,lantzera,ihitza,ebia,irazarria,ebi zürrübilla,tzitzerra,kazkaburra,harria

Goizeko ihitza *(heze / busti)* egüerdiko beroa *(alporoa)* Gaüko zena *(heze)*

Hotzetik : Lantzurda -> Izotza -> Karru miraila -> Karru xuria ->
Karru beltza -> Karru leida edo leira *(verglas)*

Elür bustia – Elür auso *(avalanche)* – Elür lurta *(avalanche)* – Elur lüma *(flocon)*

